


## Euskal kultura 2000

azaroa-abendua 2000



ERRAMUN BAXOK  
 MIKEL BUJANDA  
 ANDOLIN EGUZKITZA  
 RITXI LIZARTZA  
 XABIER MENDIGUREN ELIZEGI  
 LAURA MINTEGI  
 ALLANDE SOKARROS  
 ANDRES URRUTIA  
 IÑAKI ZABALETA URKIOLA

*Gaiak*

Unamuno eta euskara. XABIER KINTANA  
 Euskal Herria elebidun. GOTZON GARATE  
 Gure poeten malkoa. KOLDO IZAGIRRE

# JAKiN

*121*

azaroa  
abendua  
2000



*Aldizkari hau ARCEko kidea da*  
*(ARCE: Asociación de Revistas Culturales de España)*

---




*Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura  
eta Euskara Departamentuaren laguntza jaso du*

---



*Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

*Aurkibidea*



*Zenbaki honetan*

---

w7

*Gai nagusia*

---

**Euskal kultura 2000**

**ERRAMUN BAXOK w11**  
MIKEL BUJANDA  
ANDOLIN EGUZKITZA  
RITXI LIZARTZA  
XABIER MENDIGUREN ELIZEGI  
LAURA MINTEGI  
ALLANDE SOKARROS  
ANDRES URRUTIA  
IÑAKI ZABALETA URKIOLA

*Gaiak*

---

**Unamuno eta euskara w65**  
XABIER KINTANA

**Euskal Herria elebidun w81**  
GOTZON GARATE

**Gure poeten malkoa w103**  
KOLDO IZAGIRRE

© JAKIN

JAKINeko idazlanez inon baliatzerakoan  
aipa bedi, mesedez, iturria

JAKIN

aldizkari irekia da eta ez dator nahitaez  
idazleen iritziekin bat

ZUZENDARIA

Joan Mari Torrealdai

ERREDAKZIO-ARDURADUNA

Xabier Eizagirre

KONTSEILU EDITORIALA

Paulo Agirrebaltzategi, Joxe Azurmendi, Joseba Intxausti

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA


Tolosa Hiribidea, 103-1.C / 20018 Donostia  
Tel. 943 21 80 92 / Fax 943 21 82 07  
jakin@jalgi.com

---

2000ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	6.000 pzta. (36,06 euro)	—
Ale arrunta	1.000 pzta. (6,01 euro)	1.350 pzta. (8,11 euro)
KANPOAN		
Harpidetza	6.500 pzta. (257 FF / 39,07 euro)	—
Ale arrunta	1.100 pzta. (43,5 FF / 6,61 euro)	1.550 pzta. (61,29 FF / 9,32 euro)

## Summary



## Basque Culture 2000

New authors, professionals in the world of Basque culture, provide us with a critical commentary of the cultural events that have been taking place during the year 2000. Erramun Baxok focuses on the socio-linguistics in the North Basque Country; Mikel Bujanda provides a general assessment of cultural activity in Navarra; Andolin Eguzkitza reminds us of the Galeusca Congress that took place in October 2000; Ritxi Lizartza reflects on the strengthening of theatrical activity; both Xabier Mendiguren Elizegi and Laura Mintegi assess literary production; Allande Sokarros focuses on the analysis of cultural events in Zuberoa; Andres Urrutia adds several notes regarding cultural, political and literary matters this year and finally, Iñaki Zabaleta Urkiola, after commenting on several cultural events, analyses the document signed by 140 men and women from the world of culture («Silence is not shelter»). In reality, practically all these new authors end their comments in some way or another by referring to the current complex context of Basque politics. *w Various Authors*

*f*

## Unamuno and the Basque language

The writer and member of the Basque Language Academy Xabier Kintana analyses the relationship that Miguel de Unamuno maintained with the Basque language throughout his life. This is a subject that has brought about much discussion and even today remains a source of controversy. For this reason, Kintana takes up the declarations of the great philosopher and writer from Bilbao regarding the Basque language, with the aim of understanding and reinterpreting them in their true context. *w XABIER KINTANA*

## Bilingual Basque Country

The writer Gotzon Garate focuses on a subject of great socio-linguistic and cultural depth in the Basque Country: that of bilingualism. The thesis the author defends is conclusive: that real bilingualism is impossible, it is an illusion. Defending bilingualism means providing an impetus to the current diglot situation of the Basque language, as reflected in literature, in the media and education, etc.


wGOTZON GARATE

*f*

## The tears of our poets

The writer Koldo Izagirre presents us with the second part of the collection *Books of poetry from the 20th century*, published by the Susa publishing company. This collection gathers together the poetical anthologies of forty Basque poets from the 20th century. The article introduces us to the poetic works of ten poets from this second part: Xabier Lizardi, Iokin Zaitegi, Gabriel Aresti, Juan Mari Lekuona, Manex Erdozaintzi-Etxart, J.A. Artze, Jose Luis Otamendi, Xabier Montoia, Patziku Perurena and Rikardo Arregi Diaz de Heredia.

wKOLDO IZAGIRRE



*e*skuetan duzun hau bigarren aldiko 121. zenbakia da eta 2000. urteko azkena.

Urteroko ohiturari jarraituz, urtean zehar kulturaren alorrean gertatutakoaren balantzearekin gatoz azken zenbaki honetako *Gai nagusia* sailean. Horretarako, urteko hiruzpalau gai hautatu eta horiei buruz gogoeta eginez artikulu arin eta freskoak egitea proposatu diegu hainbat idazleri. Bederatziren erantzuna jaso dugu. Mila esker, bada, guztioi.

Erramun Baxok soziolinguistak euskarak Iparraldean duen egoerari buruzko hausnarketak eskaini ditu, geroari ere so egiteko asmoz; Mikel Bujandak, Euskalerria Irratiko zuzendariak, Nafarroako kultur jardueraren balantze orokorra egin du; Andolin Eguzkitzak, Euskal Idazleen Elkarteko lehendakariak, Galeuscaren Biltzarrari buruzko iruzkinak dakarzkigu; Ritxi Lizartza hizkuntz teknikariak euskal antzerkigintzaren gorakada eta sendotze prozesuari buruz egin du gogoeta; Xabier Mendiguren Elizegi eta Laura Mintegi idazleek, nork bere ikuspegitik, aurtengo literatura ekoizpenaren inguruko balorazioa eta gogoeta mamitu dute; Allande Sokarros kazetariak Zuberoako euskalgintza eta kulturgintzan jarri du arreta; Andres Urrutia notarioak urte honetako literatura, kultur eta politika jardunari buruzko zenbait ohar erantsi ditu; eta Iñaki Zabaleta Urkiola irakasleak, azkenik, kultur arloko zenbait gertakari aipatu ondoren, «Isiltasuna ez da aterpe» agiriak sortutako eztabaidaz dihardu. Guztiek ere, egia esan, egungo



testuinguru politiko konplexua dute aipagai eta gogoeta-gai beren iruzkinetan.


*Gaiak* saila, bestaldetik, hiru artikuluz osatuta dago. Unamuno eta euskararen arteko harremanak, diglosia eta elebitasuna, eta XX. mendeko euskal poetika dira, hain zuzen ere, artikulua hauetan landutako gaiak.

Lehen artikuluan, Unamunok bere bizitzan zehar euskararekiko izandako jarrera gorabeheratsuak aztertu ditu Xabier Kintana idazle eta euskaltzainak. Auzi honek oraindik ere zeresanik ematen duenez, Unamunok euskarari buruz adierazitakoak testuinguru egokian ulertzeko moduan aurkeztu nahi ditu Kintanak.

Ondoren, Gotzon Garate idazleak garrantzi soziolinguistiko eta kultural handiko auzia dakar: elebitasuna. Garateren tesiak ez du zalantzarako izpirik uzten: benetako elebitasuna ezinezkoa da, ameskeria hutsa. Elebitasunaren alde egitea, hainbat esparrutan (literatura, komunikabideak, hezkuntza...) islatzen den egungo egoera diglosikoa sustatzea besterik ez da.

Azkenik, Susa argitaletxearen XX. Mendeko Poesia Kaiarak bildumaren bigarren argitaldia aurkeztu du Koldo Izagirre idazleak. Argitaldi honetako hamar poeten obra du hizpide: Xabier Lizardi, Iokin Zaitegi, Gabriel Aresti, Juan Mari Lekuona, Manex Erdozaintzi-Etxart, J.A. Artze, Jose Luis Otamendi, Xabier Montoia, Patziku Perurena eta Rikardo Arregi Diaz de Heredia. j

# Euskal kultura 2000



ERRAMUN BAXOK w MIKEL BUJANDA  
w ANDOLIN EGUZKITZA w RITXI LIZARTZA  
w XABIER MENDIGUREN ELIZEGI w LAURA MINTEGI  
w ALLANDE SOKARROS w ANDRES URRUTIA  
w IÑAKI ZABALETA URKIOLA w *11*





## Erramun Baxok

Gaztetxoak eta euskara

**H**izkuntz inkesta bat gertakari kulturala da ikusiz adibidez 1996ko «Euskararen Jarraipena II» ikerketak ukan zuen oihartzuna. Aurten zabaltzen zaigu 1999an gaztetxoengan egin zen inkesta soziolinguistikoa «Etorkizuna aurreikusten» izenburu ederrarekin. Hiru lurraldeetako 13-14 urteko 3.146 ikaslek galde sorta bat osatu dute eta elkarrizketak eraman dituzte beren hizkuntz gaitasunaz, euskararen erabileraz eta hizkuntzei buruz dituzten jarrez; 9 ikerlarik emaitzak bildu dituzte eta komentatu, Iñaki Martínez de Luna koordinatzaile. Liburua laster kalera-tuko da eta oraindik bizpahiru ohar Iparraldeaz atera nahi nituzke, agian irakurtzeko gustua emateko.

Bereziki euskararen ezagutzaz. 1996ko inkestak gain-behera lazgarria erakusten zuen Iparraldean, alderantziz eta zorionez Hegoaldean araberako garapena agertzen zelarik. Herritarrek adinaren arabera hartuz 60, 40 eta 20 urtetan euskara ongi dakitenak zenbat dira ehunekotan? Hurrenez hurren Iparraldean 35, 27, 11 dira. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) 26, 21, 33. Nafarroan ehuneko 10, 9, 11. Gaurko gaztetxoak zertan dira? Hamar urtez gazteen euskalduntasuna EAEn kasik bikoiztu da 33tik 62ra; Nafarroan ere 11tik 20ra. Iparraldean berdintsu egon delarik 11 eta 9,5.

Hizkuntz nortasuna

**D**irudi profeta malerusak arrazoi duela idazten duelarik Iparraldean 2030ean % 5 euskaldun izanen direla. Nork daki? Gaur egun ikastoletan eta ikasgela elebidunetan dabilzan % 16tik gehienak bizi izanen dira eta familiatuak. Ikus taula honek zer erakusten digun (ehunekotan):

13-14 urteko gaztetxoak	Iparraldea	EAE	Nafarroa	Euskal Herria
Euskaldunak	9	62	20	48
Euskararen transmisioa	66	86	70	84
Transmititzeko xedea	87	74	65	74
Nortasun jarrerak	20	16	11	15
Onura jarrerak	15	15	28	27
Euskararen balio eza	7	13	28	14

Zenbakien lehen lerroa hizkuntz gaitasunarena da. Bigarren lerroan ikusten da guraso biak euskaldunak direlarik zer heinetan euskara transmititu duten. Nabari da Iparraldean dela euskararen jarraipen ahulena. Baina hizkuntz jarrera neurtzeko, gaztetxoei galdegin zaie: *Hemen -dik urte batzuetara seme-alabarik bazenu, zuk euskaraz egin -go zenieke etxean?* Ohargarri da Iparraldeko gaztetxoengan dela herri hizkuntza jarraitzeko xede zabalena eta alde-rantziz Hegoaldean jarraitzeko xedea dela gertatu den transmisioa baino ahulago.

Zergatia ulergarriago da hizkuntz motibazioa aztertuz. Alabaina, ikasleei galde ireki bat egin diete: *Euskara zertarako?* Erantzun asko eta oso ezberdinak izan dira. Batzuek nortasun jarrera adierazten dute: euskaldun izateko, gure herriaren hizkuntza delako, tradizioaren jarraipena dela-eta. Besteek euskararen baliagarritasuna azpimarratzen dute: lana aurkitzeko, ikasketak egiteko, komunikatzeko. Onura jarrera honek pragmatismoa erakusten du. Badira ere erantzun ezkorrak euskarari balioa ukatzen diotenak: aspergarria, zaila, mugatua, beste hizkuntzak nahia-go.

Hiru jarrera hauek bereiziz, ikusten dugu Iparraldean nortasun jarrerak direla nagusi, eta erantzun ezkorrak gutienik. Hegoaldean oro har jarrerak pragmatikoagoak dira eta denbora berean euskararen aurkako ikusmoldeak ugariago. Geroari buruz euskararen garapena segurtatuko duten hiru faktore nagusiak dira herriaren aldeko atxikimendua, familiako jarraipena eta hizkuntz politika. Iparraldean politikaren ahulezia ageri da. Halere, ikusiz gaztetxoen gogo ona herriaren eta herri hizkuntzaren alde, itxaropena ez da utopikoa. Gaurko gazteen hizkuntz identitateak aurrekustera ematen dizkigu geroko gizartearen hizkuntz nahiak.

## Sarako biltzarra

Urte oroz bezala, errepublika frantsesaren peko diren herrialdeetako hizkuntz arduradunak elkarretaratu gara, hautetsi, administrari ala elkartekide, Alsaziatik Martini-karainokoak. Aurten biltzarra Saran eta Hendaian iragan da eta gaia zen hizkuntz antolaketa. Orain arte gure helburua Hizkuntz gutituen Eurokartaren onespena zen. Iaz gobernuak izenpetu zuen, eta berehala Konstituzio Kontseiluak ukatu, baizik eta kontzeptu batzuk onartezinak zirela: hizkuntz eskubide kolektiboak, lurraldetasuna, herri hizkuntzen erabilera publikoa. Zer egin? Konstituzioaren 1. eta 2. artikulua aldatzeko iraultza egin beharko litzateke eta lehenik iraultza kulturala jakobinismotik federalismora pasatzeko. Luzeegi guretzat.

Zorionez hor dago Herritar eta Giza Eskubideen 11. artikulua, komunikazio askatasunarena, «eskubide ooren oinarria», eta idazki konstituzional honek frantsesari eskusibitatea kentzen dio. Herri hizkuntzek badute beren tokia, hain zuzen hiztunek emanen dieten tokia. Beraz, hizkuntza horien aldeko politika posible da. Egia erran, zailtasunak jasaten dituzten hizkuntzen antolaketa bi zutabetan oinarritua da, gizartearen eskaera eta erakundeen eskaintza.

*Gizartearen eskaera* hizkuntzari buruzko atxikimenduaren ondorioa da. Adierazle nagusiak dira familiako hizkuntz jarraipena, hiztunkidegoaren zabalkuntza, gurasoen eskaera haurrek ukan dezaten herri hizkuntzari lekua ematen dion irakaskuntza, herritarren kemena elebitasun publikoa erabiltzeko, herri kulturgintzan parte-hartzea. Baina hizkuntza gutituen ezaugarri bat da hiztunen gogo ona denborarekin ahultzen dela.

*Erakundeen eskaintza* beharrezkoa da egitura publikoek eta pribatuek herri hizkuntzaren erabilera errazten dutelarik, hala nola administrazioan, komunikabideetan, ikastetxeetan, saltegietan, enpresetan. Botere politikoaren jokatzeak molde baikorrak ondorio onak ekar ditzake herri hizkuntzaren alde, bai egitura pribatuen aldetik, baita ere familiarako transmisioan. Alabaina, gurasoen hezkuntza hautuak pragmatikoak dira: hizkuntza bat irakasten dute, gizarte

baloratua eta baliagarria den neurrian. Alde horretako leku-kotasunak entzun ditugu, Jaurlaritzaren euskara biziberritzeko plan nagusia, Kontseiluaren estrategia, UEMA, Garapen Kontseiluaren estrategia.

Zorigaitzez, Frantziako politika maltzurra da eta gizarte eskaera indartsu baten beha dago zerbaixkaren egiteko herri hizkuntzen alde. Saran finkatu helburua hau zen: aginte politikoak axola guti duenez, militanteek berpiztu behar dute gizartearen eskaera eta aldi berean erakundeen eskaintza aitzinarazi, hiztunen eskubideak errespetaez.

Hitzarmen berezia

**B**adakigu zein den Garapen Kontseiluaren lana 5 urte hauetan Ipar Euskal Herriaren eraikuntzan. Gizarte zibila mugiarazi du proposamenak egiteko lurralde antolaketan, ekonomian, kulturgintzan. Hautetsien Kontseiluak tokiko gizarte politikoa biltzen du eta bere onspena adierazi zuen, baina gauzatzeko ahalik gabe. Eta hona non Estatuak, prefetaren bitartez, bat-bateko eskaintza egiten digun: *Convention spécifique Pays Basque*. Euskal Herri hitzarmen berezi honen lehen kapitulua «hizkuntz politika» da, esatera hau lehen aldiz agertzen baita idazki ofizial batean. Bost ardatz nagusi definituak dira euskara biziberritzeko: haur eta helduen ikaskuntza, euskara hedabide pribatuetan eta publikoetan, euskalgintza Euskaltzaindia lagunduz eta bereziki Iker saila, euskararen erabilera bizitza publikoan, seinaleztapenean, zerbitzuetan eta komunikabide berrietan.

Bosgarren ardatza da hizkuntz politika hau eramane duen erakunde hirukoitza: 1) Obragintza Publikoa da hizkuntz politikaren erabakitzailea eta hor daude lau mailetako ordezkariak, estatu, eskualde, departamendu eta udalarteko euskal sindikatukoak. 2) Elkarre eta erakundee-tako Obralaritzaren gain da erabakiak diren proiektuak programatzea, gauzatzea eta ebaluatzea. 3) Hizkuntz Kontseilua izanen da erabakitzaileen eta obralarien arteko bilgunea ekimenak koordinatzeko, proposamen berriak egiteko, egitarauak begiratzeko eta beharrez berritzeko, euskararen estatutuaz arduratzeko.

Hitzarmen berezi honetan badira bi proiektu zerrenda. Lehen zerrendan sartzen dira 2000-2006 plan kontratua gauzatuko diren 10 ekimenak 6 urteko aurrekontuarekin, orotara 40 milioi libera nonbait han. Hemen daude euskal erakundeen aldeko laguntzak, eta hartzaile izanen dira Hizkuntz Kontseilua, AEK, Euskaltzaindia, Iker, Ikas, Euskal Irratiak, ETBren hedatzaileak. Hiru ekintza badaude, euskararen aldeko gogoia, eskola inguruko ekintzak, Interneten erabilera, eragileak ez baitira oraindik finkatuak.

Bigarren zerrendan daude erakunde ofizialen gain diren sei egitarauak: euskal ikaskuntzaren garapena, irakasleen formakuntza, irrati eta telebistagintza publikoak, seinaleztapena eta administrazio elebiduna. Beha gaude hitzarmenak zer erranen duen plan kontratutik kanpo diren gai hauetaz. Dakidanagatik, Hezkuntza Nazionalaren kezka nagusia da Seaska eta beste herri eskolei buruzko negoziaketa. Epeak ere finkatu dizkigute. Diru emaileek orain aurrekontuak bozkatzeko dituzte eta hitzarmena zabalduko da berantenez abenduaren 31n, omen. Plan kontratua berriz aztertuko da 2003an eta bururatuko 2006an, lehen zerrendako ekintzentzat.

Balorazio ezberdinak egin dira proiektu honetaz, baikik eta oinarririk gabeko eraikuntza zela euskararen ofizialtasunaren faltaz. Halere, guhaurek antolatu genuen euskalgintza plan orokor bat eskuetan dugu eta lehen aldikotz gauzatzeko baliabide batzuk eskaintzen dizkigute. Gutiz ez utz, erabil ditzagun, jakinez herritarren euskal gogoia dela azkenean etorkizunaren oinarria.

## Kulturgintzaren prospektiba

«Nolako euskal kultura XXI. mendean», hau zen Euskal Kultur Erakundeak (EKE) 1999ko azaroan antolatu zuen mintegiaren atal burua. Hasieran mintzaldi-etzabaida izan zen: nortasuna zaintzen ahal ote da oraino mundializazioaren garaian? Biharamunean 350 parte-hartzaile bildu ziren lau lantaldetan kulturgintzaren geroa asmatzeko



gaurko egoera ikusiz, euskararen ahulezia, hiritartasuna, ekonomiaren globalizazioa, gizartearen aldaketa.

Gogoeta horien ildotik Pantxoa Etxegoin EKEko zuzendariak bospasei norabide finkatu ditu datozen bost urteetarako: euskararen erabilerari lehentasuna, euskal kultura hirian sartzea, formakuntza eta sorkuntza elkarrekin sustatzea, komunikabide berrien arartekotasuna, kulturaren aldeko herri-elkargoa. Gogoetaldiaren gomendio nagusia zen euskara gure kulturaren oinarria dela. Ikusiz herri hizkuntzaren ahulezia boluntarismo bikoitza beharrezkoa da, alde batetik euskara biziberritzeko eta denbora berean kulturgintza erakargarria izan dadin herritar guztientzat. Horretarako euskararen zerbitzua sortu da, erabilera sustatzeko familietan eta gizartean.

Euskal kultura nola koka daiteke hirietan? Orain arte EKEren helburu nagusia zen indar gehiago egitea barnealdean, euskaldunak han baitira eta baliabideak eskas. Gaur egun jendearen % 70 kostaldean bizi da eta herrixkak ere hiriei lotuak dira, lantegi, garraio ala komunikabide. Gainera barneko eta kanpoko jendea hiritan metatzen da. Euskal kultura gutiengoan da orotan, baina gero eta erabiliago da publizitatean, turismoan eta zeinahi salgaitan. Guri da herri kultura agertzea, publikoa dagoen tokietan, auzo zentroetan, ikastetxeetan, kulturguneetan, saltegitan. Ordu da ere euskal guneak sortzeko, bereziki modan dauden «idazki, soinu eta irudi» etxeen moldean.

Beste ideia berria da kulturaren aldeko herri-elkargoa sustatzea. Lehenik Udalarteko euskal sindikatuaz baliatuz, bai eta kultur etxeak elkarri lotuz sare dinamiko batean. Lurraldetasunak kulturgintzari emanen dio indarra eta esanahia. Jadanik *Kantuketan* programak norabide berria hartua du. Alde batetik, eskualdeetako musika aberastasunak biltzen ditu formakuntza guneetara eramateko; bestalde, ikus-entzunezko erakusketa ibiltari batek lehengo eta oraingo musika zabalduko du. Sorkuntza bultzatzeko kulturak gurutzatzen dira hemendik Bordelera, Parisera eta Quebecera, eta kanpotik hona, Georgiatik ala Txetxeniatik. Zer aterako den? Prospektibak bideak irekitzen ditu baina ezin du sorkuntza asmatu. j



## Mikel Bujanda

Nafarroa 2000. Kultura

Nonbaitetik hasi behar begirada orohartzailaren pre-tentsioa mugarrizten eta, beste argi-iturri guztiak itzalirik, *literatura idatziaren* esparrua agerian jarriko digun fokoa piztuko dugu lehenik.

Non hasi eta noraino iritsi zehazteko lagungarri zaigu Nafarroako bi idazleren lan bana jendaurren dataz baliatzea. Horrela, Felipe Riuseren *Polaroid* liburuko irudiak argi bihurtu ziren unerako honako kronika honen iazko edizioa itxia zegoen modu berean, oraingo lerro hauen amaiera erabakia dago Aingeru Epaltzak *Rock'n'Roll* izenekoaren aurkezpena iragarria duenean. Bi aurkezpen saio horien arteko urtebete horretan Nafarroako euskal letretan aipuak izan ditu Castillo Suarez altsasuar gazteak. Egile berrientzako Iruñeko udalaren saria lehendabizi, eta *Ernestina de Chamburcí* deritzana irabazi ondoren, *Mugarri estaliak* liburuan argitara eman ditu bere olerkiak. Enfasia egiteko moduko gertaera dela dirudi: Hego Nafarroako ingurumen sozialaren barnetik sekula emakume batek idatziriko krea-ziozko lehen euskal liburua eman digu 2000 urteak.

Gizasemeek egindako lanen artean gogoan gelditu dira Mikel Tabernaren *Errege eguneko panpina* ipuin sari-tua, Jokin Muñozen *Atlantidara biajia* ibilaldi zelebrea eta ironikoa, edo Alberto Barandiaranek *Hemingway* idazle edantza nobelsaridunaz eginiko biografia.

Literatura funtzionalaz mintzatzerik badago, horixe da antonomasiak Iruñeko festa nagusiez informazioa, hitzez eta irudiz, eskaintzen duen *Sanferminak* liburua, Fermin Erbitik prestatua. Festen hordikeria hitz lerrokadak zuzen idatzi ahal izateko oztopo gaindigaitz delako ziurrenik, Sanferminen inguruko *martxandising*-aren arloan baten hutsune bat, nabarmena, gaiaz libururik ez izatea, tu-

ristendako orri gutxiko argitalpentxoetatik haratago. Hutsune horri antzeman eta taxuzko lan batekin betetzen asmatzea merezimenduzkoa da, behingoz erdal elebakarza-leei aurea harturik, lurralde honetako bi eletan eskaini baitzaie hiriko bizilagun eta bisitariei hainbeste maite dituzten ospakizunen gaineko liburua, zabalkunde handiko esku opari izateko moduan diseinatua.

Promozio sareen bazter batean, Igela argitaletxea literatura ingeleseko perla bitxiak ale-aleka ekartzen ari zaigu aspaldian, builarik gabe, bazka harrigarriro gozoa emanez irakurzaileei. Ford Madox Forden *Historiarik goibelena* da lanmolde emankor horren adibide bat.

Urteak dira *Xalbador* literatur sariketa instituzio publiko axolagabeen utzikeriagatik desagertu zela. Nafarroan izan dugun lehiaketarik ospetsuena izan zen hura. Diru pribatuek hornituko dute orain sona handia izateko bidean jarri duten *Juan Zelaia* saiakera saria. Pamiela etxearen produktua da, euskaldun jendea buruari hazka jarri nahi duena, ile kalpar azpian pentsamendu edo iritzi, analisi edo proposamenik topatzerik bat ote den jakitera emanen diguna.

Gazteleraz emaniko nafar literaturan, lan bereizgarria da Sanchez-Ostizen *La flecha del miedo* nobela mardula. Obsesio pertsonalei behin betiko kitto emateko ariketa da, mendekantza gupidagabea. Beti ere, tamaina txikiagokoa izanagatik interes handiagokoa da agian Sanchez-Ostizen beraren esku artetik atera den beste lan bat. Hiru liburutto ñimiño (12 zm. luze, 10 zm. zabal) dira, hirurak bat eginik, sasi faksimilean argitaratuak. Lan honek ahanzuratik atera digu Gabriel de Biurrun Garmendiaren oroitzapena. Iruñeko idazle, pentsamenduz eta sentimenduz euskaltzale, nazional-faxisten mendeko Iruñean eman zuen argitara bere titulurik ezagunena, *El coqueto Don Sancho Sanchez*. Altxamendu frankistaren garaipen giro hartako Iruñean zebiltzan intelektual falangista gazte ezagun andana ageri da Sanchez-Ostizek prestaturiko *Los barruntos de la botica* azterlanean. Ilustratu bezain doktrinario, horietariko batzuk nafarrak ziren (Angel Maria Pascual, Iribarren, Yzurdiaga apeza...) urrutiagotik etorriak besteak

(Láin Entralgo, Torrente Ballester, Antonio Tovar, Foxá, Cunqueiro, Eugenio d'Ors, García Serrano...), amets egin zuten Iruñea Atenas espainiar bihurtzearekin estatu kolpe beltzari gurutzada sailduaren izena eman ondotik. Haie-tako batzuek frankismotik urruntzen jakin zuten gero. Besteren batek frankista izaten jarraitu du egundaino.

## Historiaren bertasio ofiziala

**E**rrekuperazio historikoaren haria utzi gabe, Josu Txueka-ren tesiaren argitalpenak ilunbeetatik atera ditu Errepublikaren garaian euskal nazionalismoak Nafarroan izan zituen indarrak eta ahuleziak, lorpenak eta hutseginak. Datuak bildu eta horien analisisa eskaini du Txuekak. Liburuaren aurkezpenean, Gregorio Monreal irakasleak erudito eta historiadoreen arteko aldea zein den jakinarazi zigu: datuen bilketatik haratago, interpretazioa egiten duen hura omen da historiadorea.

Horren ondotik historiaren kontuaz hots asaldatuak aditu ziren Madril aldetik. Oihartzun zabala eman zieten Historia Akademiaren esanei hemengo zenbait hedabidek. Euskal ikastoletan Espainiako historia era baldarrean irakasten omen da. Matrikulazio garaia gertu dagoela, euskal irakaskuntzaren hazkundera torpedeatzeko material polita. Nafar Diputazioburuak inspekzioak agindu ditu eta testuliburuaren zentsura iragarri. Inkisizio Sainduari heldu eta garbiketa ideologikoa abiatu da. Besteak beste Nafarroako Historia ofizialaren liburua bidean da. Bertasio ofizial eta bakarra, udazkenerako argia ikusi duena, Roman Felones eta Fermin Miranda irakasleek izenpeturik. Victor Pradera nazionalista espainiarrak hasitako ildoak, Opus Deiren Unibertsitateak gero kanonizatua, aurreiritzi ideologikoz zamatua, egungo antolamendu instituzional administratiboa justifikatzeko eginkizuna duena, Euklide-sen teorema haietan bezala aurrez emaniko hipotesia egiaztatua gelditzen dena. Nahiz eta horretarako gertaeren interpretazio interesatuak eman behar izan, bestelakoak badirela isilduz. Historiak erakusten dituen une eta gertae-

ra eztabaidatuei garaileen komenentzien araberako bertsioa eman eta hori dogma bihurtu. Badakizue, gauzak horrela dira, horrela izatea komeni bada.

Historiografiaren eztabaida honen argigarri da Txepetxen *Lengua y Pueblo* liburu berrargitaratuan irakurria: «Fosilizatzen direnean, egiak egia izateari utzi eta dogma bihurtzen dira. Egiak instituzionalizatu nahi izatea akats sakonki sustraitua da». Eta aurrerago, «Inkisidoreak» deitu epigrafean: «Ezagugarri bat bera dute dogma guztiek: bosterea behar dute. Dogma oro eskluientea da...».

Ez da berria historiaren irakaskuntza doktrina politikoan zerbitzura erabiltzea. Ezta ere dogman oinarriturik inkisidore lanetan ibiltzea ere. Espainiaren historiak erakutsi digu hori.

Geronimo de Ustaritz Institutuak 2000ko azaroan antolaturiko Historia Biltzarrak XX. mende agortuari begirada eman dio. Ataletako bat kulturaren bilakaerari eskaini diote eta horren barrenean, Nafar Institutuaren Politika Kulturala aztertu dute.

## Ezerezetik Faraonismora

**E**raikuntzaren aldia da. Gorantza doa Moneoren Artxibategia; lurpea sakon hustu dute Kongresuen Jauregi eta Auditoriuma izanen direnen zimentarriak sustraitzeko; Oteizaren Museoko lanak aurreratuak bide daude Alzuzan. Asmo hutsean Iruñeko Zitudadela Arte Garaikideen topaleku bihurtzearena. Biblioteka Forala agindu digute, espekulaziorik lotsagabeenaren kutsua duen operazio nahasi batean (Corte Inglesa eraiki ahal izateko, ikastetxe publiko bat sakrifikatzekotan dira).

Urte askotako utzikeria eta atzerapenaz bat-batean ohartu izan balira bezala, agintariek eraikin handi *enblematikoen* lasterraldiari heldu diote. Ondare arkitektonikoan inbertitzeko aldia da, hogeit bat urtetan, gastua unean uneko ekitaldien antolaketan eta kaxet handiko artisten kontratazioan egin ondoren. Beste gisa batez ere esan daiteke: une jakin bateko distira iragankorra baino nahiago dute orain

denboran iraunaraziko dituen egitura. *Halakok agintzen zuen urtean musturik*, irakurri ahal izanen da gero eraikin horietako bakoitzean, mandatari eragileen oroitzapena betikotuz. Eta bide batez, 2000ko Nafarroako Jaialdiak aspaldian ez bezain koherenteak gertatu dira, aurrekontuetan motzago izan arren. Munduaren bazter bateko kulturaren adierazpideei aterpe eta agerlekua eman zaie. Balkanetako kulturetara hurbilpena proposatu dute. Zelofan gutxiagorekin, mami aberatsagoa, aurreko urteekin alderatuta.

Hizkuntzarekin politika

**L**ege berri hobe baten proposamenari aupada emanez hasi zuten urtea Nafarroako euskal jendeek. Ekimena oraindik euskaltzaleen esku. Ez oso luzerako hala ere. Euskal Irakaskuntzaren izen onaren kanpainatxo bat lehenik, historia agintariak nahi bezala ematen ez den aitzakian; matrikulazioan mezu instituzionalik bat ere ez euskarazko ereduaren alde, gero. Kontraerasoa diputazioburuak gidatu du. Erdaldun elebakarren eskubideen bandera harturik, euskararen aldeko *gehiegikeriak* geldiarazi beharraz egin du predikua. Hizkuntza Politikako Zuzendaritza utzi dute kargudunek. Susmopean zeuzkaten, desautorizaturik. Goi agintarien konfiantza guztia duen jauna izendatu dute hizkuntza gauzetan arduradun, Pedro Pejenaute. Ordena jartzera iritsi omen da. Ez du euskara maite. Ez daki euskaraz, ezta jakin nahi ere.

Normalizazioa ez da helburu; promoziorik ez du izaneren euskarak. *Sustapen* hitza, erabiltzen ikasi berria genuena, bat-batean ahaztu behar dugu. Arau berriak datoz, karramarroen moduan atzera egiteko. Urte hasieran inizatiba harturik zebilen euskal jendea ahal bezala ari da defentsa lanean azken hilabeteotan. Erresistentzian eusteko indarrak biltzen. Lehenago bezala gelditzea lortuko bagenu, gaitz erdi.

Aldaketa handia eman da urtebeteen nafar gizartearen dinamikan. Eta egia izanik ere zenbait pentsalari-artikulistak egina zutela euskararen aurkako erauntsiari ko-

bertura ideologikoa emateko lana, euskaltzaleen ahalak egiazki ahuldu dituen faktorea beste alde batean ageri da. Euskaltasunaren izenean joka, hilka, ari dira batzuk. *Eus - kal-* erroa duen guztia kutsatua dago. Nahi ala ez, jarduera horretan ari direnen erroa dira, gara, euskaldunak. Las- tre handia da hori guretzat Nafarroako paraje hauetan. Euskarari ordainarazi nahi diote eta horretan ari dira. Di- simulurik gabe. Joka ari direnak zigortzeko, gu ere zigor- tzen gaituzte. Garbiketa hasia da. j



## Andolin Eguzkitza

Galeusca

**A**urton, hiru urterik behin bezala, Euskal Herriko idazleoi egokitu zaigu Galeusca-biltzarraren antolaketa, eta honez- kero *Jakin*-eko irakurle gehienek ondotxo dakiketen mo- duan urrian egin dugu Bizkaiko itsasaldean, Lekeition, Bermeorainoko egun bateko txangoarekin. Eta lehenengo eta behin, gure ostarien ustekabe polita aipatu behar du- gu, benetako herri euskaldunetan zeudela konturatu bai- tziren. Idazle katalan batek esan zidanez, larunbatean goi- zeko hamarrak inguru Lekeitioko kaleetatik ibilia zen, eta ez ei zuen behin ere erdararik entzun. Eta halako iruzkin bat pozgarria den bezala, adierazgarria da oso Euskal He- rriko bisitariak bertan gure herriotan jasotzen duten zen- tzazioaz, sarritan herririk euskaldunenetan ere erdara gehiago entzuten baitute euskara baino. Bermeorainoko txangoa ere antzekoa izan zen, egun horietako itsasoaren zakarragatik itsasontziz joan ezin izan baginen ere.

Bigarrenez baina, euskaldunon ezusteko ederra ere ai- patu behar dugu, nik neuk Galeusca ezagutzen dudanetik, honako hau izan delako euskal idazle gazte gehien agertu den biltzarra: beren lehenengo liburuak argitaratu berriak,

orain dela gutxi lanbidean sartuak eta oro har esperantzaz beterik dabilen jende mordo, halako bizitasun berezia eman diona biltzarrari, betiko legez idazle honezkero sagaratueta hainbeste agertu ez baitzen. Edozelan ere, geure duintasunari eutsi genion, eta Biarritzen ez bezala, berrogei-berrogeita hamar euskal idazle ibili ginen bisita egin ziguten hamasei galiziar eta hamaika katalanekin batera.

Hirugarrenez ere, euskaldun idazleok aurkeztu zizkiguten txosten ederrak aipatu beharrean nago. Alde batetik Edorta Jimenezen Batxi itsasgizon-idazleari buruzko txosten labur ederra, eta bestetik guztiz gogoangarri gertatu zen Edortak berak, Miren Agurtzane Meabek, Ana Urkizak eta Patxi Iturregik irakurri ziguten 'itsas-hiztegi' laburra. Benetan aipagarriak kontatu zizkiguten pasadizoak, kanta-tu zizkiguten koplak eta egin zizkiguten iruzkin eta berbajoko ederrak. Eta miresgarria batez ere, beren hizkuntzarekiko harrotasun ederraz, bai Miren Agurtzane Meabe lekei-tiarrak eta bai Ana Urkiza ondarrutarrak beren herriez eta bertako bizilagunez irakurri eta adierazi zizkigutenak. Zorionak emateko modukoak laurak, bene-benetan.

Azkenez, ordea, Galeusca berritze bidean jartzea ere aipatu behar dugu nahi eta nahi ez, argitaratzaile islandiar bi etorri baitziren eta eman zizkiguten hitzaldi biekin batera, hainbat ikasgai jarri baitziguten mahai gainean.

Hor ikasi genuen, alde batetik, Islandiako itsas jendea ez dela oso desberdin gure portuetako langileengandik, eta eurei itsasoak ekartzen eta eroaten dizkienak, onak eta txarrak, ez daudela guri ekartzen eta eroaten dizkigunetatik hain urrun. Baina euskara mundura, h.d., gure literatura mundura ateratzeko, hainbat aholku eta ideia eman ziguten, beraiek estatu beregain bat dutelarik —ezelan ere ezin albora daitekeen aldagarria— bihotzez eta esperientziaren jakituriaz eskaini zizkigutenak.

Adibidez, Europako merkatuetan euren eta gurea bezalako hizkuntza ttiketako literaturetarako, merkaturik irekien eta zabalena, Eskandinabiakoarekin batera, Alemaniakoa dela. Erran nahi baita, bertan garaitu eta gero bakarrik eduki genitzakeela «askozaz ere probintzialagoak» diren ingelesezko, frantsesezko eta gaztelaniazkoetan sartze-



ko aukerak. Kanpoaldera goazela, ez joateko inoiz gobernu baten izenean, jendea mesfidatzen delako. Gobernuak la-gunduta bai (itzulpenak ordainduta batez ere), baina gober-nuek zuzenduta ez. Ez agertzeko inoiz 'herri berezi, zahar' eta halako topikoekin, berez nahikoa gatx kentzeko den es-tigma («kultura etnografikoak») are handiagoa bihurtuko baita; edo beste era batera esanda: literaturaren zabalkun-derako folklorerik ez. Beraiek ez dituztela literatur agenteak erabiltzen, herrialde osoko ordezkariak hartzen duen fun-dazio bat baizik (argitaletxeak eurak ere agertzea ez duena kendu zertan egin behar). Eta amaitzeko beste aholku bi: Frankfurten batez ere dabilen literatur argitaratzaileen multzo informalean sartzen ahalegintzeko, inguru horie-tan trenkatzen baitira hainbat eta hainbat erabaki alde ba-tetik, eta bestetik benetan merezi duten liburu-azokak bi direla bakarrik, Frankfurtekoa zalantzarik gabe, eta Lon-dreskoa. Eta azaldu zigutenez, daukaten literatura daukate-larik, 1.500 izenburu urteko 283.000 bizilagunentzat, eta daukaten estatua daukatelarik, hori guzti hori, alegia, onar-tuak izaten hastea, hamabost urte kostatu zaiela. Aurrera egiteko zioskuten, beraiek ere prest zeudela gu laguntzeko.

Laburbilduta, pozik atera gara azkenengo Galeusca-tik. Aipaturikoak ez dira poz hori azaltzeko argudio ba-tzuk baizik. Izan ere, amaitzeko ezin dezaket aipatu gabe utzi, aurton lehen aldikoz Bizkaiko Diputazioak lagundu gaituela, eta egiaren amorez esan behar dut, oparotasun eta eskuzabaltasunez lagundu gaituela. Lorturikoa, hain zuzen ere, ez zatekeen hainbestekoa izan, alde zurretik gastu guztiak estaltzeko behar den besteko laguntza bage-neukala jakin izan ez bagenu. Lizarra-Garaziko egiuneak eta su-etenak badute hor zalantzarik gabe zeresatekorik. Eta horrelako zeharsoloetatik abiatuta, igaro gaitezen ai-patu gura nukeen bigarren gaira!

Eusko legebiltzarra eta euskara

**H**erri honetan inor ez delako gaitzetik jareiten, ni neu ere, Juan Martin Elexpuruk egin zuen bezala, ausartuko naiz guztiz lotsagarria izan zen Joseba Permachen erantzu-

na jasotzera, harrigarria batez ere, 1927an edo 28an funtzionario estalinista batek idatzia izan zitekeela ematen zuelako, eta ez Permachek gehienetan zorionez erabiltzen duen tankerarekin parekagarri. Nazkagarriena azkenengo iruzkin iraingarria zen, hainbeste 'gordinkeria' bota eta gero, berak ere gustura irakurtzen zituela Juan Martinen testuak baitzioen. Dotorezia hori bera ere —halakorik ez gehitzea— falta izan zitzaion harako hartan Permachi. Eta ausartuko naizela diot, autista, lotsagarri, zuzenestezin eta —harrapa ezazue!!— «objektiboki» kaltegarria baiteritzot euskara eta Euskal Herriarentzat Euskal Herritarrok parlamentu-taldeak PSOE, PP eta UAren euskararen kontrako erasoan aurrean hartu duten jarrera abstentzionista.

Ez naiz hemen beste gai batean sartuko, ez delako hau horretarako toki egokia, alegia, Euskal Herritarrok taldeak Ibarretxeren gobernuarekin hartu duen jarrera. Hori, azken batean, borroka politikoaren jokaera bat da, ontzat jo daitekeena edo desegokitzat, baina oraingo arazoan zeharka bakarrik eragiten gaituena. Bai naiz sartuko ordea, Gasteizko legebiltzarrean ordezkaturik dauden alderdi nazionalista espainiarrek hartu duten jokaera irrazional eta beldurgarriari aurre ez egiteko Euskal Herritarrok taldeak erabaki duen joera autistarekin.

Izan ere, den-dena galdera bakun batean labur daiteke: zer egin behar dugu euskaltzaleok erakusteko euskararekiko ezin dezaketela iraultza sozialista lortu arte edo Euskal Herriaren independentziaren konkista arte itxaroten egon? Ez dago inor talde horretan prest ulertzeko, egin ditugun urrats apurrok oraindik ere ez digutela gutienezko segurtasunik eman eta edozelako mugimenduk den-dena kolokan jar dezakeela? Non daude hor Fernando Barrena, Joseba Alvarez edo Karmelo Landa, hiru euskaltzaleren izenak baino ez aipatzearren? Nafarroan «Vascuence»-ren lege ziztrinarekin egin zenuten ziztrinkeria bera errepikatze kotan zaudete? Alegia, azkenengo hamar urteotako lan guztia karelaren gainetik uretara botatzeko prest zaudete? Edo beste era batera formulatuta: arrazionaltasun gutienezko argudio bat sor dezakezue hau eskatzen dugunok —eta sinets nazazue asko gara— erratuta gaudela erakusteko?

Ez dizuet eskatzen —horretan sartuko ez naizela argi utzi baitut— Ibarretxeren gobernuari lagun diezaiozuen, bai ordea hiru (edo zenbat behar dira? 2, 4...) legebiltzarkide bidaltzea «euskararen azpiegiturazkoak» diren bozkete-tan EAJ, EA eta EB/IUrekin boza ematera joan daitezen, hala-koetan gure hizkuntzaren arerioek ezin garai dezaten. Are gehiago, era horretan are nabariago gertatuko litzateke Iba-rettxeren gobernuari egin gura diozuen kritika politikoa.

Amaitzea besterik ez zait geratzen: halako gazi-gozo-tasun batez, baina egia esanda, nahikoa etsita gurasoek eman zigutena salbatzen jakinen ote dugun. j



## Ritxi Lizartza

Hitz bi

**2**000ko kultur tantak aztertze-ko garaian, azken orduko be-riren larritasuna dela eta, egoki-ago deritzot atzetik hasteari. Oro har, euskara eta euskalgintza-ren alorrean garai ilunak dato-zkigula ezin ukatuko dugu. Aurre-ko urtean garbi gera-tu zen Kontseiluaren sorrera eta lana txalogarriak izan dire-la euskaldun guztiontzat, bai motor gisa (orain arte ikusi ez den maila batean, era bateratuan eta ukitu gabeko sekto-reetara iritsita, industria adibidez), bai euskalduntze proze-suan sinesten duten gehienen ahaleginak bildu eta elkar-tzeko ardatz gisa ere. Baina, egungo errealitatea ikusita, itxaropentsu eustea ez da ahuntzaren gauerdiko eztula.

Euskalgintza kinka larrian

**E**z da lortu Ipar Euskal Herrian euskarak eta euskal kultu-rak bizi duten eskusio eta ordezkapen prozesuari muga-rririk jartzea. 2030ean euskaraz komunikatzerik ez dela

izango iragarri zaigu, hizkuntza hila izanen dela. Gaur egun ere gertatzen hasi da hori. Eta hizkuntzaren alorrean muturreko egoeran bizi diren euskaldunen meritua ez da makala, baina hala ere, Frantziako Gobernuak ofizialtasuna onartzen ez duen bitartean, esfortzu horren etekina oso murrizta da. Departamendua bera ere aipatu izan da hizkuntzaren berpizkunderako bide gisa, baina oraingoz politika eta hizkuntza nahasi dituzte departamenduaren aurkako jarrera dutenek eta bidea ez da arantzarik gabe-koa izango. Eta Ipar Euskal Herrian euskararen egoera aztertzen duen *Larrun* aldizkariaren 36. alean Itxaro Bordak salatzen duen moduan, eta Hego Euskal Herrian bide beretik goazela ezin uka, gure hizkuntza abertzaleen artean sinesgarritasuna galtzen ari bada, konponbide zaila izango du galera horrek, eta gainera ezin izango zaio inori errurik leporatu.

Nafarroan eta Araban, PP-UPN alderdiak nagusi diren eremuetan, eskandaluzkoak diren erabakiak hartzen ari dira euskararen erabileraren aurka, berriz ere hizkuntza eta kultura politikagintzaren bidez kriminalizatuz. Hizkuntz Politikako Idazkaritza Nagusia desaktibatu, euskararen alorrean 0 mailako hizkuntz eskakizuna ezartzeko asmoa proposatu, eta euskarazko komunikabideei laguntzak ukatzea eta, oro har, Gasteizko Udalak, Nafarroako Gobernuak eta beste hainbat erakundek hartu dituzten neurrien asmoa hizkuntz komunitate elebakarra sortzea da, espainieraz moldatuko dena. Eta gaur egun ez dute lotsarik hala agertzeko. Horretarako ezinbesteko babesa izan dute erabakiotan, PSE-PSN alderdiarena, sozialisten botoek eta aldizkako isiltasunak bidea erraztu baitiote PPK abiaturiko ez Euskaldundu eta Deseuskalduntzeko Idazkaritza Nagusiari. Historian zehar beti izan dira euskaldunak alderdiontan. Eta Ipar Euskal Herrian bezala, horien guztien gaur egungo isiltasun eta kontzientzia faltak ematen du zer pentsa (abertzaleon ardura bera ere ahaztu gabe). Areago historian zenbait eskualdetan euskal kontzientzia izan duten sozialisten kasuan.

Baina orain arteko azken harribitxia, larriena seguruenik, ezagutu berria dugu. AEKren ondasunen bahimendua

eta erakunde honen hainbat eta hainbat kideren aurkako prozesamenduak ez du, tamalez, ia inor harritu. Aspalditik entzuten ziren Espainiako epaileak horrelakorik egiteko gai zirela zioten zurrumuruak eta bete egin dira. AEKri egin eraso, beraz, iragarritakoa dela esan dezakegu. Ez Garzonek bide horretatik jotzeko arrazoirik edo deliturik aurkitu duelako ordea! Alfabetatze eta Euskalduntze Koordinakundearen bideak bihurtzeko asko izan ditu sortu zenetik. Ia laguntzarik gabe bide luzea egina, era guztietako argudioak erabili izan dira urtetan ia-ia klandestinitatean aritu behar izateko, irakasleen maila, titulazio eta eskarmentu faltatik ikasgaietan —ikastoletan bezalaxe— terrorismoa bultzatzen zela ziurtatzera iritsi arte. Eta oraingoan, urtetako isolamendua gaindituta eta homologazioaren bidez normalizazioa lortuta, Eusko Jaurlaritzarekin akordioa berri eta ikasturte berrirako dirulaguntzak adostu direnean etorri da Garzonen bahimendua.

Egiteko geratzen den galdera, ordea, askoz ere larriagoa da, eta kezka betetzen du herrigintza hizkuntza eta kulturagintzatik bideratu behar dela sinesten dugunon itxaropena. Noraino iritsiko da Espainiako botere faktikoek bat eginda euskara, euskal kultura eta euskal gizartea kriminalizatzeko ahalegina? Zein izango da egingo duten hurrengo urratsa? Joxemi Zumalabe Fundazioa, ABK, AEK... Helburua Espainiako alderdiek Eusko Jaurlaritza bera lortzea izanik, beste asmo askoren artean, erakutsi dutenez, euskalgintza eta, beraz, herrigintza desaktibatze —erakunde pribatu zein publikoetatik hasita—, noraino iritsiko dira Espainiako botere faktikoak euren ahaleginean, areago lehendakaritza iristen ez badute?

AEK kriminalizatzeko asmo horren aurrean, argi-izpirik bada, ordea. Euskal alderdi politikoek, gizarte eragileek eta norbanakoek euskalduntzea helburua duen erakundeari erakutsitako sostengua berebizikoa izan da. Horrelako batasunaren beharra sumatzen zen aspaldian eta, EAJko ordezkariak esan zuten bezala, euskal gizartean denon ahaleginez lorturiko adostasun politikoa eta gizartekoa haustea ezkututzen da Garzonen eta Espainiako botere faktikoen jardunbidearen atzean, betiere euskalgintza eta po-

litika nahastuz, eta euskal gizartearen edozein herrigintza edo kultur mugimendu susmopean jarriz, eta ez bakarrik Espainia mailan, bertako askoren ustean ere bai. Gaur egun dena justifikaturik egotea lortzen ari dira bide horretatik.

Euskal antzerkigintza, sendotzeko bidean

**A**ntzerkigintzaren bidea ez da orain urte batzuetakoa bezain txarra, esan beharrik ez dago. Aurreko urteko joerari jarraiki, badirudi sendotze-prozesua aurrera doala, ez ari-negi, baina bai etengabe. Ez dirudi, beste batzuetan bezala, gehiegi puztu eta lehertzeko arriskurik dagoenik orain-goan. Eta ez dela gertatuko orain urte batzuk bezala, garai hartako talde nagusiak desagertu zirenean, basamortu bihurtzeko prozesua. Gaur egun badira baikor izateko arrazoiak eta sintomak.

Antzerki talde profesionalak, harrokeria handirik gabe eta enpresa egitura sortuta, finkatzea lortzen ari dira. Garrantzi handia du bizibide dituzten antzezlanak arrakastatsu suertatzeak, baina, tamalez, ez da beti hala izaten, eta Sarean bertan sarbidea duten antzezlan batzuek ez dituzte aurreikuspenak betetzen. Era berean, garrantzi handia du erakunde publikoen laguntzak. Nagusia Eusko Jaurlaritzak urtero ematen duena da, Sarea osatuta, dirulaguntzaz gain hainbat antzokitara iritsi ahal izatea bermatzen duena. Eta txalogarria da gero eta proiektu gehiago aurkezten dela ikustea, batetik, eta laguntzak, beraz, garai batean baino banatuago ematea, bestetik.

Baina enpresa-egitura sortuz antzerki taldeek profesio honetan arituta bizi nahi badute, derrigorrezkoa da kanpora ateratzea. Alde batetik oso ona da, beste lekuetako antzerkigintzarekin parekatzeko aukera ematen baitu. Eta ezin ukatuko da euskal taldeen maila bikaina dela, jasotako sariak eta ikusle kopuruari begira, Estatu mailan puntan dagoela. Baina honek badu alde txarrik ere, euskarazkoak gehienetan espainierazkoen bertsio baizik ez izatea, batzuetan laguntzetara iristeko aitzakia baino ez. Arrazoirik bada horretarako, erdarazkoa arrakastatsua denean 300

emanalditik gora lortzen baitira (oraindik ere antzezgai den *Florida...* aparteko kasua izan da) eta euskarazkoak, berriz, 30 lortuz gero goia jo du ordea. Horrek eragin zuzena du antzezlanen aukeratu eta lantzeko garaian, erdarazko muntaiak izaten baitu talde gehienentzat lehentasun osoa. Eta hori prestaketetan eta entsegu kopuruetan nabarmen igartzen da. Bestalde, orain arte Estatu espainiarra zen jomuga bakarra, baina hizkuntza lagun, Hegoamerikara jauzi egiteko esperientzia ere probatzen hasia da zenbait talde. Era berean, gero eta talde gehiagok, gaur egun bizirauteko modu bakarra dela jabetuta, enpresa bihurtzeko ausardia erakutsi izana pozgarria da. Baina egitura hori sortu eta funtzionamendurako eustea oso zaila dela antzematen hasi dira bide honetan aitzindari diren euskal talderik sendoenak.

Fenomeno bitxia ekarri dio talde profesionalen gorakada eta arrakasta honek aktoreen bizimoduari. Denok dakigu aktoreek emanaldiko izaten dutela irabazpidea, eta gehienetan ez dela oso kopuru handia izaten. Egia da talde horiek emanaldi kopuru handi samarra bermatzen dutela gehienetan, baina aktoreak milaka kilometro egiten hasi dira askotan emanaldi bakarra eskaini eta berriz ere bueltan etortzeko. Eta ez dirudi bizimodu horri luze eusteko modurik dagoenik. Are gehiago aktore horiek berak Estatu espainiarreko ikus-entzunezko komunikabideetako dramatikoan gero eta errazagoa dutenean sarbidea.

Oso deigarria izan da Kutzak hartu duen erabakia. Javi Cilleroren lana saritua izan zen 1999ko Donostia Hiria lehiaketan eta antolatzaileak, aurrezki kutxa horrek, ardurara bere gain hartu eta taulara eramatea erabaki zuen, produktore, manager eta saltzaile bihurtuta. Baliabide ugari eskaini zaizkio lan honi eta oso txalotzekoa da ekimen hau, non eta ez den egun bateko lorea. Oso garrantzitsua da zirkulua osatzea lortzen delako: idazteari bidea eman, saritu, gehienetan antzezten ez diren sariketetara aurkezturiko sorkuntzazko lanei antzerkigintza profesionalean leku egin eta salmenta bermatu. Finantza erakundeek, erakunde publikoek eta besteek badute eredurik euskaraz sorturiko antzerkigintza sustatzeko. Ez baita nahikoa gero

eta ugariago diren sorkuntzazko antzezlanak saritzeko lehiaketak antolatu eta lan horiek guztiak ahazturik gertatzea.

Gabeziei begira, antzezlanak prestatuko dituzten idazleentzako eskolarik ez izatea kezkarria da gaur egun. Batetik idazten trebatu eta bestetik hizkuntzaren alde dramatikoa landuko duen eskola hori abiatzea oso garrantzitsua da gaur egun, oraindik ere beste generoetan aritzen diren idazle apurrak baitira dramatikoari heltzeko tentazioa izaten dutenak. Eta sarietan irabazle gertatu arren, oso urrun egoten baitira aktoreek eta zuzendariak eskatzen dituzten baldintzetatik (edo erretorikoegiak, edo erritmorik gabeak, edo hitzaren garrantzian oinarrituta interpretazioari tarterik uzten ez diotenak...).

Euskara hutsezko antzerkigintzak kartelera egonkorra izan beharko luke, gutxienez, Euskal Herriko hiriburuetan, eta aspaldiko behar hau asetzen ez den bitartean oso zaila izango da ikusleengan antzerkia euskaraz ikusteko zaletasun hori piztea.

Bestalde, antzerki amateurrak ez ditu une gozoak bizi. Tradizio handiko talde asko aritzen ziren lanean Euskal Herrian, baina gaur egun oso gutxi dira obra berria prestatzen ausartzen direnak. Horren adibide garbia Azpeitiko Antzerki Jaialdia da, antzerki amateurraren berriazko eremua izana, gaur egun ia testimoniala bihurtu da euren parte-hartzea eta antzerki talde profesionalek osatzen dute ia guztiz kartelera. Arrazoiak ematea ez da zaila. Gero eta gutxiago egiten da. Gero eta zailagoa da horrelako tradizioa duen funtzionamenduari jarraipena ematea. Baina azken batean, hori dena gertatzearen arrazoia, erakunde publikoen babes falta da eta, era berean, halako taldeentzako antzoki sare bat ez antolatzea, prestatzen diren lanak eskaintzeko aukera izateko. Horrekin batera, antzerki talde profesionalek eta ikus-entzunezko komunikabideek herriz herri maila amateurrean aritzen ziren aktoreak, gazteak zein beteranoak, talde hauei zurrupatu izana ere bada lanerako oztopo, jakina baita horregatik ez direla afizionatuaren esparrutik behin betiko ateratzen. Zirkuitu



murritza izaki, gazteen probaleku eta zailtzeko aukera izateari ere uzten ari zaio antzerki amateurra gaur egun.

Ipar Euskal Herriko antzerkigintzan ez da sumatu aurrerapausorik azken urte honetan eta desintegrazioaren bide beretik doala esan daiteke; nahiz eta taldeek kalitatearen errekonozimendua lortu izan duten beti, nahiz eta bertako idazleek behin eta berriro sariak jaso, oso esparru txikian eskaintzen dira euren muntaiak eta kasu honetan muga ez da banaketa administratibo hutsa. Ipar Euskal Herrian emanaldiak eskaintzeaz gain, Hego Euskal Herrira ere iritsi beharko lukete, baina urrats hori egitea ezinezkoa dirudi gaur egun. Ea eurak ere azken mohikanoez mintzatzen hasi diren une honetan bertako antzerkigintzari ateak zabaltzen zaizkion. Erakunde publikoek izan beharko lukete zeresana arlo honetan, batez ere euskaraz idatzi eta egiten dela kontuan harturik.

Antzerki-eskolen egoera hobetzen ari dela ematen du. Egiten duten lanaren errekonozimenduak klandestinitatearen esparrua gainditzen lagundu die eta homologazioa, mailakatzea, bateragarritasuna eta antzerkia unibertsitateko karrera izatea bilatu behar da gaur egun. Talde profesionalak, erakunde publikoak eta ikus-entzunezko komunikabideak jabetuta daude beharrak asetzeko adina aktore prestatzeko duten gaitasunaz eta ez litzateke txarra bide honetatik esfortzuak bateratzea eta, era berean, antzerki amateurri bere esparrua errespetatuta, haien osagarri edo unibertsitate eta antzerki eskolen eremuan zirkuitu propioa izatea.

Herriz herri antolatu eta gehienetan emanaldi bakarreko muntaiak izaten diren herri-antzezlanen kopuruak ere gora egin du. Ehun bat herritarren partaidetza izaten dute eta gero eta herri gehiagok prestatzen dute euren muntaia dramatikoa (umorezkoa, historikoa, musikala...). Bide hori bultzatzea oso garrantzitsua litzateke ikusleak antzerkia ikusten ohitu eta antzokietara hurbil daitezen. j



## Xabier Mendiguren Elizegi

Iragarle kaxkarra

**O**rain dela bi urte ere 1998ko balantze bat idatzi nuen aldizkari honetxetarako; hura gogoratu, berrirakurri eta erdiratu egin zait bihotza: «Burni Aroaren amaiera» izenburuaz hasi nuen komentario hura, tiroen sasoa behin betiko amaitu eta bestelako garai bat zetorrelakoan, ez urrezkoa baina bai desberdina. Iragarle txarra, zalantzarik gabe, baina ez naiz bakarra, ezker abertzalearen barrunbeak nik baino askoz hobeto ezagutzen dituztenak ere sinetsita baitzeuden borroka armatua duintasun apur batez bukatzeko bidea zela hura, politikagintzan aukera berriak zabaltzearekin batera.

Baina ETAK zer nahi duen eta zer pentsatzen duen, ETAK baizik ez daki, eta alfer-alferrik dira haren gogoeta-bidean argi apurrik edo estrategia gauzagarririk hautemateko gure saioak.

Actualidad vasco-española

**D**ebaldekoak analisiak oro, bai, baina hala ere ezin utzi ETA aipatzeari, bere ekintzekin Euskal Herriko gizarte-bizitzaren erdigune bihurtzen baita uneoro. Euskal Herriko esan al dut? Gutxitxo da hori, Espainian ere ez dela besterik gertatzen ematen baitu; hango egunkariak zabaldu, irrtiak entzun edo telebistak ikusi besterik ez dago ohar-tzeko. Kulturalki gero eta espainolago bihurtzen ari garela esana dago aspaldidanik, baina gauzen martxa ikusita ez dakit Espainia osoa euskalduntzen ari ez ote garen, hainbeste *vascos sí* okaztagarri aditu ondoren...

Sinbiosi euskotar-espainiar horren kronika labur bat 2000. urte honetan: udaberri osoan *Gran Hermano* izene-

ko telebista-saio bat izan da audientzietako errege bakar, baita herri koxkor guztiz euskaldunetan ere; astero edo hamabostean behin kale gorrira bidaltzen zuten programako parte-hartzaile bat, eta horixe bihurtzen zen ikuski-zunaren ardatz; gure Anaia Nagusiak ere, modu eta erritmo berean, harrak gobernatzera bidaltzen zuen aldiko norbait, batean militar, bestean politiko edo kazetari, eta huraxe genuen gero albistegietako bazka eta izar.

Gero, berriz, Hego Euskal Herri osoan eta hortik hegoalderagoko erresuman *La bomba* izeneko kantua bat izan dugu udako melodia etengabea; berdin zen non sartzen zinen, horixe entzungo baitzenuen edozein irrati-emisore, taberna-zulo nahiz jaigunetan. Bistakoegia da gure egoerarekiko analogia iruzkinak egiten hasteko, ezta?

Udazkenean, azkenik, Tamara izeneko *freak* santurtziar bat izan da Arzalluzi komunikabideetan lehia egin dion bakarra, eta hark kantatzen duen abestia, berriz, ETak bere *rentrée*, *remake* edo *revival* honetan ereserkitzat har dezakeena: «No cambié, no cambié, no cambié, sigo siendo la misma pero ya no sufro por tu querer...» (inoiz axola izan bazaio).

Gizon txiki, bibotedunak

**F**rancok hil zeneko 25. urteurrenaren ospakizunetan ari naiz lerrook idazten, hedabideetan diktadoreari buruzko erreportaje sorta galanta dagoela. Atertuko du noizbait ere; zaparrada hori baino arriskugarriagoa da, ordea, Espainian egunez egun indartuz doan neofrankismo demokratikoa: euskal usaineko guztiaren demonizazioa, disidentzia orenen jazarpena...

Hau kaleratzen denerako auskalo estatuaren totalitarismoak zer beste urrats egin dituen, beldurtzekoa baita daraman abiada: desobedientzia zibila terrorismoarekin berdintzea, euskal irakaskuntzaren kontrako kanpaina, prentsa abertzalearen satanizazioa, gaztetxoentzako zigorrak areagotzea, kartzelaldiak are gehiago luzatzeko asmoak, ikasketa-planetan ikuspegi espainiarra txertatzea...

Bere txikitasun, hoztasun nahiz erabakitasun tematian beste bibotedun haren antz gero eta handiagoa daukan Aznartxo honek ba ote du, egoskorkeria inperialistatik eta mendeku-nahi pertsonaletik harago, ideia argirik zertan ari den? Duda handiak ditut. ETAk bere jomuga posibleak izugarri ugaltu dituen bezala, gobernu espainiarrak ezker abertzale osora zabaldu du beldurra, eta PNV-EA ere borrokatu beharreko etsaien taldean sartu ditu. Horrek, noski, alderdi, erakunde, gizatalde, komunikabide eta euskaldun jende asko eta askori sortzen dio ezinegona eta larritasuna, jakina, baina ez ETari, honek berretsirik ikusten baititu bere aburuak, hau da, onez onean ezinezkoa dela estatu honekin ezer lortzea, eta gainera bake bidez aurre egitea metraileta erabiltzearen parekotzat jotzen bada... HB edo EH, bitartean, ez autonomiarik ez sinesgarritasunik ez duela, gero eta ezdeusago, etxeko fededunenaretzat ere elizkizun-errito baino askoz gehiago ez den berrikuntza-antzeppen batean sartuta; talde politiko bati gerta dakiokeen gauzarik okerrenera gertatzen zaio ezker abertzaleko atal politikoari: ez dela inorentzat aintzat hartzeko erreferentzia, ez lagunentzat ez etsaiantzat.

Zertan nabil ordea? Ez al nuen kulturaz hitz egin behar? Alde batekoen astakeriak beste aldekoen gehiegikerien isiltzea dakarren dinamika salatzea ere kultura dela esan liteke, eta hau ez da ekilibristaren ekidistantziara jotzea, dena kutsatzeko eta usteltzeko arriskua duen faxismo bikoitz baterako bidean gabiltzanez gero. Kontua ez baita nor den gaiztoago, nor errudunago: aterabideak nahi ditut nik, eta horixe da inondik ere ikusten ez dudana.

Erraldoiaren lana

**M**intza gaitezen literaturaz. Eta, zuen baimenaz, aurten libururik atera ez duen idazle batekin hasiko naiz: Koldo Izagirrekin hain zuzen. Ez duela libururik atera esan dut, 2000. honetan ez baitu berak idatzitako lan berririk plaza-ratu, baina beste alde batetik bat ez baizik hogeitaz liburu kaleratu ditu, XX. Mendeko Poesia Kaierak bildumako erdia,

poeta hauen guztien idazlanen hautaketa bana hain zuzen: Orixe, Atxaga, Borda, Urretabizkaia, Iratzeder, Salvatore Mitxelena, Berrizbeitia, Etxaniz, Aranbarri, Joxe Azurmendi, Lizardi, Zaitegi, Juan Mari Lekuona, Erdozaintzi-Etxart, Aresti, Artze, Otamendi, Montoia, Arregi Diaz de Heredia eta Patziku Perurena. Aspaldi agorturik zeuden poemen berregitaratzea, gure literaturako sorkuntza funtsezko batzuk liburutegietako hauts artetik —egun batzuez bederen— liburu-dendetako itzal-argira ateratzea, gaurko irakurle gazteei atzokoen emaitzak ezagutaraztea... Asko dira bilduma honen dohainak, eta aski gora mintzo dira liburuak eurak beren kalitateaz, baina gure merkatua den bezalakoa da (er-kina, zekena, txikia eta txikiratua) eta laudorioak ez daude beraz lekuz kanpo, kontuan izanda gainera Biblioteka Nazional batentzako moduko lan handi eta ez-komertzial hori argialetxe txiki eta pribatu batek kaleratu duela.

Bildumaz gain bildumagilea ohoratu nahiko nuke nik ordea. Antologia bat egin duenak bakarrik daki zenbateraino den hori lan zail, neketsu eta esker txarrekoa, idazlan batzuk sartuz beste zenbait kanpoan uzten baitira, eta, batez ere, idazle batzuk hautatuz beste asko baztertzen. Horrenbestez, hitz ponpoxoa dirudien arren, maitasun-ekintza handi bat dela esango nuke, Koldo Izagirrek euskararen, poesiaren eta euskal idazleen alde egin duena.

Amodioa doan ematen omen da eta ez beste zerbaiten trukean. Hala eta guztiz, deigarria da —lazgarria ez esateagatik— euskal literaturak Izagirreri eman dion ordaina. 2000. urtean ez duela bere izenpeko libururik kaleratu esan dugu, baina aurreko hiruretan (97, 98 eta 99an), enkarguzko lan txukun baina apalxeagoen ondoan, hiru maisulan plazaratu ditu, hiru harribitxi, literaturaz zerbait dakitenak aho zabalik eta miretsita utzi dituztenak: *Non dago Basques' Harbour*, *Nik ere Germinal! egin gura nuen al-darri* eta *Agirre zaharraren kartzelaldi berriak*. Besoa ez dakit baina atzamar pareta emango luke batek baino gehiagok, bizitza osoan horrelako lan bat badarik idatzi ahal izateagatik. Alabaina, sariak, dominak eta ohoreak erabakitzen diren epaimahaietan guztiz oharkabean geratu dira hiru liburu horiek, urtez urte.

Nork bere gustuak eta iritziak izateko eskubidea du, dudarik gabe, eta liburu on gehiago ere izan dira urte hauetan, sariak eta txapelak merezi zituztenak, dudarik gabe hori ere. Dena dela, neuri —beste askori bezala— bi-degabekeria historikoa iruditzen zaidana aipatu beharra nuen. Amen.

Lan erraldoiak

**D**urangoko azokaren bezperetan ari naiz, lehentxeago esan dizuedan moduan. Egunero ari dira liburu berriak aurkezten, baina horiek denak irakurtzeko astirik ez, oraingoz bederen. Beraz, ezin behar bezalako balantzerik egin; behin-behinekoa egiten jarrita, berriz, bi lan erraldoi aipatuko ditut orain arte irakurri ditudanen artean, bere tamainaz besterik ez balitz ere nabarmendu beharrekoak: bata Joan Mari Irigoienek idatzitako *Lur bat haratago*; beste Aingeru Epaltzaren *Rock'n'Roll*.

Zaila da zeure bizitzako aste osoak eskatu eta eskainitako liburu bat lerro gutxitan definitzen, eta zailagoa oraindik zure balorazioa publizitatetik bereizten baldin eta, nire kasua den bezala, liburu horren editorea bazara. Hala ere, eskua bihotzean esan dezaket *Lur bat haratago*, euskaraz inoiz idatzi den eleberri luzeena izateaz gain, nobela historikoaren generoan punta-puntako lana dela, bikaina bere girotzean eta baita erabilitako hizkeran ere, sakontasun handikoa bai pertsonaien psikologian bai agertzen dituen arazoetan, eta mendeetako jauzia eginez oraindik ere gaurkotasun handiko auziak aurkezten dizkiguna. *Rock'n'Roll*, berriz, nobela beltza litzateke generoen sailkapenari begira, hilketak eta hilketa horien inguruko ikerketa baitira kontakizunaren bizkarrezurra, baina askoz harago doa idazlea: koadrilaren instituzioaren disekzio gordin eta gupidagabe bat dago, belaunaldi eta gizarte oso bati egindako erretratu zorrotzarekin batera; estilo sendo eta indartsu bat dago, umore gaizto batekin umotua, eta askoz elementu gehiago dago, haren irakurketa aldiz krudela aldiz hunkigarria egiten dutenak, gutziz gogoangarria finean.

Halako neurrira iritsi ez arren, edertasun handiko lan gehiago ere irakurri ditut aurten, hala nola Juan Luis Zabalaren *Agur*, *Euzkadi* eta Iban Zalduren *Gezurak*, *gezurak*, *gezurak*, biak ere biribilak, gartsuak, irudimentsuak, ausartak, tarteka barre algaraka tarteka gogoetan jartzen zaituztenak, eta oraindik irakurri ez dituenari biziki gomendatzen dizkiodanak, negu hotzerako aterpe eta abaro.

Jaio dira berriak, eta ez dira berdinak

**E**mandako neurria gainditu dut eta, hortaz, labur-labur, amaitzeko. Urteko gertakarien artean aipa liteke narratzaille-sorta berri baten plazaratzea. Udaberrian bere lehenengo liburua atera zuten hiru kontalarik: Julen Gabiriak *Connemaara gure bihotzetan*, Ana Urkizak *Desira izoztuak* eta Xabier Etxaniz Rojok *Begiak itxi eta kitto*; udazkenean, berriz, Ixiar Rozasek *Edo zu edo ni* kaleratu du eta aurretik poeta gisa ezagutzen genuen Xabier Aldaik *Bazterrekoak*. Poesian ere lehenengo liburua atera dute Miren Agur Meabek (*Azalaren kodea*) eta Castillo Suarezek (*Mugarri estaliak*). Belau-naldi konturik ez dut aipatuko, baina bai konstatatuko hor dagoela idazle berri pila bat, eta ia denek nahiago dutela pertsonen arteko harremanez eta amodio-desamodio kontuez aritu, gure gizarteko gatatzak edo gatatzek baino. Interpretazioak, hurrengorako. j



## Laura Mintegi

### Uniformitatea hautsiz

**H**onelako Kultur Balantzea urtero egitearen abantaila da (oraingo hau zazpigarrena da niretzat), urtez urte aldatuz doazen joeretan aldeak suma daitezkeela. Urtean izandako bizpahiru gertakari nagusi bilatu eta azaldu beharrean (*Jakin-en* enkargua hauxe baita) literaturgintzan «usaindu» ditudan joerak azaltzen ahaleginduko naiz, aurrekoe-tan bezalaxe modu intuitibo eta subjektiboan, eta inolako asmo zientifikorik izan gabe.

Honela bada, eta 2000. urteari dagokiola, hauexek dira aipatu nahi nituzkeen gaiak: uholde berrien anonimotasuna, idazleen manifestuak, emakumeen opakotasuna, barietatea gaietan, kritikaren saio hutsa, eta, amaitzeko, euskal literatura kanporatzeko ahalegina, irakurzaletasunaren arazoa ahaztu gabe.

### Uholde berrien anonimotasuna

**U**rteak zerbait pozgarria ekarri izan badu, idazle gazteen, hasiberrien eta ezezagunen ugaltzea izan da, eta joera hori nabarmen ikusi zen Lekeition urrian burutu zen Galeuscaren edizioan. Deigarria izan zen aspaldidanik elkar ezagutzen (oso aspaldidanik eta oso ezagutzen) dugun idazleen artean, behin eta berriz honelako galdera entzutea: «*eta hori, nor da?*». Han izan ziren 40 idazleetatik, zortzi-hamar bat berriak ziren idazleen bilkuretan, eta berriak ziren liburugintzan ere.

Horietariko askok atera berria (edo ateratzear) dute lehen liburua (Meabe, Etxaniz Rojo, Unzueta, Merino, Estankona, Urrutikoetxea, Gabiria, Suarez, Egaña), baina gazteak izanagatik, ez dira berriak idazgintzan. Batzuek ba-



dute urtetako lana atzean, eta hainbatek, ipuin edo poemak argitaratu dituzte han-hemenka, eta kajoiak bete-betirik dituzte, lan ineditoekin.

Agian azken garaian suma daitekeen joera da idazle berri batek ez duela atxiki behar aurretik sorturiko «kapi-la» batean. Nor bere kabuz abia daiteke literaturgintzan, batzuekin edo besteekin lerrokatu behar izan gabe. Kotoa zabaldu da. Eta fenomenoak osasuntsua izateaz gain, pozgarria ere bada.

Bestalde, eta ugaritasunaren ondorioz, gero eta gehiago begiratzen zaio idazlearen lanari, eta ez bere izenari. «Izenik gabeko» idazle gero eta gehiagoren liburuak dira aipagarri. Gero eta gazte eta ezezagun gehiagok idazten dituzte kalitatezko lanak, freskotasun handiaz idatzi ere, eta betiko «behi sakratuek» literatura ona egin beharko dute, maila mantendu nahi izanez gero.

Hala ere, eta honekin batera esan behar da, «betiko izenek» ere erronkari eutsi diotela (Izagirre, Urretabizkaia, Lertxundi, Irigoien, Txiliku, Igerabide). Pozgarria da ikus-tea orain 20, 25 eta 30 urte hasi ziren haiek zer-nolako lan interesgarriak ari diren argitaratzen.

Idazleek sinaturiko manifestuak

**I**dazle berrien, anonimoen eta talderik gabekoen joerarekin batera, joera zaharrak ere mantendu dira aldi berean.

Jakin bagenekien (orri hauetan esana genuen) aurreko urteetako *bonanza*-k ez zuela luze iraungo, eta halaxe konfirmatu da, urte honetan manifestuen inguruan sortu den iskanbilak agerian utzi duen bezala.

Lizarra-Garazi jaio aurretik ere, euskal kulturaren «adiskidetze» prozesua izan zen: gatazkak leuntzeko eta elkarrengana hurbiltzeko saio txikia ezagutu genuen. Baina bertan bizi dugun egoera politikoak agerian utzi ditu kulturen arteko ezberdintasunak. Bakealdian azaltzen ez den hori, gordin-gordin azaltzen da gatazkaldian. Gizartean muturreko egoerak bizi ditugu, eta idazleak (beste guztiak bezalaxe) interpelatuta izaten gara txitean-pitean.

Zaramaga taldeak *Bakea, elkarriketa eta baretzearen alde* izenaz atera zuen manifestua, eta egun beretsuetan 140 idazlek beste bat atera zuten, *Isiltasuna ez da aterpe* izenpean. Egia bada ere dozena bat idazlek batean zein bestean jarri zutela beren izena, ez dago enoratzerik bi manifestuen mezu politikoa guztiz alderantzikoa zela. Zalantzarik ez dut guzti-guztien desira sakonena Euskal Herria bakean bizi ahal izatea dela, baina begi-bistakoa da *bakea* hitzaren atzean gauza ezberdinak ulertzen direla idazleen artean.

Agiri baten sinatzaileei egindako kritikak, eta kritikei emandako erantzunak giroa garrastu dutela pentsa liteke, eta garrastasuna ez dela ona. Baina nik ez dut uste txarra denik. Mingarria bai, baina argigarria ere bai. Denok ez gara berdinak. Jakin dezagun non gauden, errespetatu dezagun elkar, eta bilguneak dauden heinean bilduko gara, eta bestela ez. Ez dugu denak zertan adiskideak izan behar.

## Emakumeen opakotasuna

**H**arrigarria bada ere, euskal literaturgintzan aurten gauza positibo gehiago ikusi dut aurreko urteetan baino. Orain arte esandakoari, emakumeen literatura gehitu behar diogu. Euskal literaturaren historian inoiz ez da hainbeste emakume izan, ezta emakumeek idatzitako hainbeste lan argitaratu ere. Areago. Elkarren artean egindako liburua plazaratu dute urtearen hondarrean, *Gutziak* izenekoa, non 29 emakumek hartu duten parte.

Denetik hoberena da berriak atera arren (Arrieta, Meabe, Urkiza, Osoro, Rozas, Unamuno, Oñederra, Goenaga, Kaltzada, Unzueta, Eloseggi, Suarez, Egaña...), «zaharrak» ez direla desagertu (Urretabizkaia, Lasa, Irastortza, Landa, Borda). Orain ia 20 urte zebiltzan haiek, jardunean ari dira oraindik ere. Lehenengoz, belaunaldiez mintza daiteke idazle emakumeen artean. Garai bateko ale solteak, gaur egun, kolektibo izan daitezke.

Kolektibo batez mintza daitekeen arren, ordea, ez dugu homogeneizazioaren arriskuan jausi behar. Idazle hauen artean, idazle guztien artean dauden alde berak daude. Se-

xua, beraz, sailkapenerako lotura bat gehiago izan daiteke, adina, lurraldetasuna, euskalkia edo ideologia izan daitekeen neurri berean, ez gehiago ez gutxiago. Okerra litzateke emakume guztiak saku berean sartzea, gizon guztiak saku berean sartzea bezain okerra alegia.

Edonola ere, garaia izan daiteke, azkenik, emakume idazle bat plazaratzen den bakoitzean normaltasunez hartzeko. Ez enoratu (emakumeak «gardenak» izan gara une batzuetan) eta ez nabarmendu, formolean gorde behar den ale bitxia bailitzan. Espero dezagun egun batean emakume idazleek erantzun behar ez izatea beren sexuari buruzko galderei, lan bat plazaratzen duten bakoitzean.

## Gaien barietatea

**A**rtikulu honen hasierako titulua «uniformitatea hautsiz» da, eta hori berori literaturgintzaren gaitan ere nabari daiteke. Askotarikoak dira idazleek aukeraturiko gaiak. Iraganak eta historiak presentzia handia dute oraindik ere, eta baita, nolabait, herrian bizi dugun egoera politikoak ere (askotan zeharka azaldua). Gaiak, ordea, dibertsifikatuz doaz, idazleen jatorria, adina eta erreferente kulturala ugalduz doazen neurri berean.

Sexuak, esaterako, protagonismoa irabazi du gazteagoen artean. Hiriak ere presentzia handiagoa du euskal literaturan. Idazleak kaletarrak dira, laikoak, gizon eta emakumeak, unibertsitarioak, eleanizdunak, eta munduan zehar askotxo ibilitakoak. Harrigarria litzateke ez nabarmentzea. Bestalde, euskaraz idaztea ez da traumatikoa. Ikastolakumeak dira 30-35 urtetik beherako gehienak. Agian hori da berritasun handiena aurreko belaunaldieta-koekin konparatuta.

## Kritikaren saio hutsa

**U**garitasuna bai, barietatea ere bai, kopuru gero eta handiagoak, baina non dago kritika? Zeinek lagunduko dio

irakurleari lanen baliotasuna neurtzen? Kantitateak alde ona du, baina garaua eta lastoa bereizteko tresna gutxi du irakurleak. Non daude kritikoak?

Inoiz baino unibertsitate gehiago dago Euskal Herrian, hiru publiko eta hiru pribatu, eta bertan egiten den literatur kritikak ez du asmatu gune akademikotik kanporako produktu bat egiten, irakurleari baliagarria izango litzaiokeen produktu duina alegia.

Dibortzioa sumatzen da sortzaileen eta ikertzaileen artean. Egia da euskal literaturaz arduratzen den prentsa apurrean, plazaratzen diren liburuen berri eman egiten dela, baina askotan kontrazalean datorren (eta editoreak gehiago saltzeko idatzi duen) aipua izaten da. Beste askotan, ordea, hiru egunetan eta enkarguz kolaboratzaileak idatzi behar izan duen azalpen laburra eskaintzen da. Non daude ofizioz literaturaren azterketa egunez egun egin behar dutenak? Zer irakasten da unibertsitateetan, eta nola?

Garai batean prentsako kritika gupidagabeak gosaltzen genituen goizean. Orain artikulu presatuak jasotzen ditugu, gosea kendu ere egiten ez digutenak. Ez dakit zer den hobe.

Euskal literatura kanporatzeko ahalegina

**K**ritika gutxi eta eskasa izan arren, guztion buruan dago euskaraz egindako literaturak gero eta gehiago merezi duela, eta kanporatu beharra dagoela. Aurreko urteetako zurrumurrua oihu bihurtzen ari da: planifikazio sistematikoa behar da bertako lanak kanpoan ezagutuak izan daitezen.

Idazle eta editoreen eskaerari erantzun dio, azkenik, Jaurlaritzak, 3 milioi (HIRU!) emanek liburua itzultzeko. Hasiera batean, gainera, Baskongadetako idazleenak itzultzeko eskaini du dirua, baina kritika jaso ondoren atzera egin behar izan du: Nafarroako idazleenak ere itzul daitezke, kopurua mantenduz (beraz, hiru milioiok gehiagoren artean banatu behar!).

Beste arlo askotan bezalaxe (euskalduntzea, ikastolak, euskal prentsa...) honetan ere argi dago ez dagoela zain

egoterik erakundeek zer erabakitzen duten ikusi arte. Idazleek, editoreek eta enpresa pribatuak asmatu beharko dute bidea. Dagoeneko ibiltzeari ekin diote eta, hasteko, kanpokoen esperientziak biltzen ari dira, Islandiakoena esaterako. Ferietara joanez, katalogoak eskainiz, han-hemenka galdetuz eta kontaktuak eginez itzulpengintzari ateak zabaltzeko ahalegintzen ari dira.


Edonola ere, kanpora jotzeko formula hoberena lan onak egitea da, eta hori ez dago ez editoreen ez erakundeen esku. Idazleen lana, lan garrantzitsuena.

## Irakurzaletasuna piztu

**A**rtikulutxo honetan aipatu nahi nukeen azken puntua, aurrekoari estuki loturik dago: irakurzaletasunaren gaia, hain zuzen.

Azken urteetan erakundeen eta editoreen aldetik irakurzaletasuna pizteko formula ahalegintzen ari dira bilatzen (eta gauzatzen). Baina prentsaren iragarkiak baino areago, literatura eta idazleak eskoletara eta auzoetara eramatea baino efektiboagoa, idazlan onak eskaintzea da. Ez dago formula hoberik hori baino. Liburu onak beti aurkitzen ditu irakurleak.

Jakina, adi binomio faltsuekin. Irakurriena ez da beti liburu onena, eta gutxi irakurtzen den guztia ez da txarra. Komertzialtasuna eta merkatua tartean dauden bitartean, literaturaren kalitatea ezin da neurtu *best seller* zerrendaren arabera. Baina gorago esandakoak balio du hala ere: irakurzaletasuna pizteko biderik hoberena, irakurleari kalitatezko lanak eskaintzea da, arloa edozein dela ere. j



## Allande Sokarros

Gure esku ez den instituzionalizazioaren zepoa

**Z**uberoako Ûhaitza kultur etxearen inguruko gorabeherak direla eta, ohartu naiz, beste aldi batez gehiago, zelako hautemate ezberdintasun handiak izaten ahal diren Ipar eta Hego Euskal Herriko bizilagunen artean, baita euskal kultura alorrean jardule edo aditu direnen artean ere. Orain dela 22 urte, Herriko Hitzarmena deitutako go-goeta lan zabal eta sakon batetik sortu zen Ûhaitza, Zuberoan euskal kulturari bultzada bat emateko helburuarekin. Sortu zen garai haietan eta ondorengo 10-15 urteetan, nekezia eta traba ugariren artetik, eginkizun honi, nola edo hala, eutsi ziola erran daiteke. Euskal Kultur As-teak prestatzea, euskarazko antzerkilarak Zuberoan ikusgai ematea, kantaldiak antolatzea, argitalpenak aurrera eramatea, tresnak eta zerbitzuak kultur elkarteen esku ezartzea, koordinazio lana egitea... Ûhaitzak hainbat urteetan egindako lana ez da makala izan. Orduan bai, zalan-tzarik gabe, euskal kultur etxe bat zen.

Gerora, tamalez baina, etorriko ziren beste garaiak, itxura eta erreallitatea bereiztu egingo zituztenak, euskal kultur etxe izen horretatik, euskal adjektiboa desagertarazi egingo zutenak. Garai haiek hasiko ziren kultura lana profesionaltzearrekin eta instituzioen menean jartzearekin. Makurra iritzi diodan bilakaera horretan erantzukizun handia dauka, nire ustez, Euskal Kultur Erakundeak. Honek hazi egin du euskal kultura lan onik, «kalitatezko-rik», beste kulturen parekorik ez zitekeela izan, profesionalizatzerik gabe. Profesionalizazioak, berez, diru ahalak behartzen ditu eta hauek nork dauzka eskuetan... fran-ziar Estatuko erakundeez aparte?

Horrela, arian-arian, eta beharbada bere arduradunak gehiegi ohartu gabe ere, Ûhaitza eguneroko euskal kultu-

raren xendetatik desbideratu egin zen, diruz nasai asko lagundutako «kultura unibertsalaren» bideetan ibiltzeko. Kultura unibertsal deritzoten horretan, euskal sorkuntzako obrek ere euren lekua daukatela iritzi diotenik izango da, seguraz ere. Alabaina, zein dira Ûhaitzak jasotako instituzioen dirutik lortu duten euskal kulturako obrak... asko eta asko kostatu dutenak ez badira izan... PRO-FE-SIO-NA-LAK, alo? Nire ikuspuntu hau karikaturazkoa dela pentsatuko dutenei, galdera sinple bat egingo nieke. Zergatik, bada, uste dute Zuberoan euskal kultur alorrean jardule diren elkarteak eta jendeak, Ûhaitzaren ingurutik alde egin dutela, azken 10 urteotan? Niretzat erantzuna argi da: kultura instituzionalizatu, profesionalizatu honetan ez baitzuten euren euskaltzale asmoen gauzatzerik ikusten.

Erreka txikietatik haziko da ùhaitza

**B**adago, gainerat, beste kontu bat Ûhaitzaren desbideratze honetan nahiko larria antzematen dudana. Hau da, bultzatu dituen euskal kulturako lan ugari turismo jardueraren eskuko ezarri dituela, gure kultura «hobeki ezagutarazteko» aitzakiapean, Zuberoako Turismo Ekintzetxearekiko elkarlanaren bitartez. Gure kultura besteenganatzea oso egitasmo ona dela deritzot, baina geuk, euskal kultura hazten eta biziarazten dutenek aukeratutako jokabideak izan behar du eta ez, ia-ia baliapen soil honetarako asmatuta dauden «prestigiozko» obra zenbaiten sortzeko jokae-ra hutsala. Hau ez da nor bere harresietan gerizatzea; hau da euskal kultura bizidun baten jardulea izatea burutik buru. Hau da gure kultura aukeren jabe izatea eta ez, ordea, kultura hau diruaren legepean ezartzea, are gehiago diru emaileak euskal kulturari arrotz izanda.

Gauzak argi dira: kultura alorrean, beste sail orotan bezala, gure kontuak geuk behar ditugu eskuetan hartu. Horretarako, nahitaezkoa da gure eskuetan izango diren instituzioez jabetzea, hauek baitira, argi denez, egokienak izango gure beharrei, gure premiei, gure helburuei erantzuteko. Hori guztia lortzea borroka politiko bat da eta badakigu oraindik luzea eta zaila izango dela. Anartean, eus-

kal kultura hazi egin behar dugu eta, nire ustean behintzat, elkarrekiko gogoetatzearen eta aukerak egitearen bitartean berriro ibiltzen ikasi behar dugu. Hori da, behar bada, Zuberoan berbultzatzen hasia dena, Ûhaitza errekaratzera zihoala ohartuta, euskal kultur munduko elkarte arduradunek biltzeari ekin diotelarik, galdera xume baina hain funtsezko honi erantzun bat emateko xedez: «Euskal kultura nola bermatu Zuberoan?». Irudi batekin kontu honi amaiera bat ematearren, errango nuke erreka txiekietako urek dutela ùhaitz oparo bat hazten eta ez gure itozeko asmoan gain horietatik botatako diruoldeek.

Aitzina... *Pika!*

*Jakin* honen arduradunek euskal kultur balantzearen zenbaki berezi honentzako jarritako arauak hautsi egingo ditut —agian ez didate gaizki hartuko?—, pasa den urtean jazotako gertakari bat aipatzeko orde... izatekoa den gertakizun baten berri emango baitut! Lerro hauek irakurlearen begi aurrean izango direnerako, lau haizetara jakiterat emango da *Pika* izeneko euskarazko hilabetekari bat plaza-ratu egingo dela Ipar Euskal Herrian. Haurrentzako —zehazki 8 eta 12 urte bitartekoentzat— hilabetekari bat izango da, hain zuzen ere, *Pika*, eta Zuberoa izango du sorgune. Haurrentzako aldizkari bat sortu, oraindik denen gogoan delarik *Xirrista*-ren porrot egitearen oroitzapen samina? Erotuta al dira zuberotar horiek, ala?

Ez, ez, lasai... *Xirrista*-ren tamalezko esperientziak zerbaitentzako balio izan du eta *Pika* proiektuari lagunduko lioke hutsegite berdinetatik saihesteko. Ezen, *Pika*-ren kontzeptua erabat ezberdina da. Haurrentzako *euskarazko* hilabetekari bat izango da eta ez haurrentzako *euskal* aldizkari bat. Hitz ezberdintasun hauek ñabardurak direnik ez pentsa. Ezen, argi erraiteko, *Pika* ez da Ipar Euskal Herrian eta Ipar Euskal Herriarentzako soilik asmatutako produktu bat eta bai, ordea, frantses Estatuan nahitaez sartuta gauden herri zenbaiten arteko elkarlana. Zehazki, Biarnoko okzitaniarrek burututako asmo bat da honen guztiaren abiapuntu, hauek, orain dela jada 5 urteotan,



*Plumalhon* (Lumatxoa) izeneko haurrentzako hilabetekaria argitaratu ematen baitute, gaskoinerako eta proventzalerako bi bertsiotan.

Iragan ekainaz geroztik, Britainiako *Louarnig* (Azeria) hilabetekaria argitaratzen da, bertakoek moldatua, noski, baina... Okzitaniako *Plumalhon*-en eduki berdina berdin berdinarekin. Bide honetatik ibiliko dira Korsikako *Aio* (Aupa!) eta Euskal Herriko *Pika*, hots, haurrentzako hilabetekari hauek guztiak eduki berdina izango dute baina hizkuntza ezberdinetan agertuko dira. Kontzeptu honek bideragarritasunik izan dezan, barrukoak behar du guztiontzako interesik izan eta guztion ekarpenez moldatuta izan. Hala izan nahi du, behintzat, egitasmoak, eta partaide bakoitzari tokatzen zaio errealitate bihurtu dadin.

Bakoitzaren ekarpenaz haziko den lan bateratua

**A**dibide batekin nire hitz hauek argitzearren, 2000ko azaroko *Plumalhon* eta *Louarnig*-en salgaitako zenbakiak, *Aio*-ren 0 zenbakiak eta *Pika*-ren 00 zenbakiak honelaxe mamituta zeuden: Okzitaniakoek egina zen komikietatik bata eta bretoiek bigarrena, Henri Dunant Gurutze Goriaren sortzailearen aipamen zehatza *Plumalhon*-eko taldeak egina zuen eta Muga Gabeko Medikuek erakundeaz moldatutako erreportaia *Louarnig*-ekoen lana izan zen. Antzeko banaketa hautematen zen hilabetekariko beste gaietan: abereen eta basapiztien argazki hartzaile baten lanaren kontakizuna, baserri gune bateko mediku baten egunerokoaz ipuin bat eta bi joko. Pentsatzekoa da, eta espero izatekoa ere, *Aio* eta *Pika* proiektu honen bidelagun izango direlarik, lanaren banaketa zabalagoa izango dela eta eduki bateratuari bakoitzaren ekarpen aberats eta oparoagoa gongo dela.

Proiektu honen bultzatzaile ezberdinen arteko harremanerako hizkuntza zein ere lanerakoa frantsesa izango da. Ez al da ordain ederra izango, bretoien, korsikarren, okzitaniarren eta euskaldunen kultur nortasunak eta herri-izaerak berak deusezteko xedeetan bortxaren bortxaz

sakatu ziguten frantses hizkuntza hori bilakatu egin da-  
din, nahitaez, gure kulturen arteko elkarlanaren bitarte-  
ko? Bakan batzuk egongo dira, noski, zinkurin egile, hori  
ez dela «euskal naziotasuna» kontuan hartzen duen egi-  
tasmu bat, frantses Estatuaren markoan bideratutako  
proiektu bat dela, eta nik dakita zer oraino... Ametsetarik  
lukainka egile hauei errango nieke, nire partetik inporta  
zaidana dela Euskal Herriko haurrek aukerarik izan deza-  
ten euskaraz irakurgai izango diren jakitate gai interesga-  
rriez haziak izateko.


Xiberoko Botzak eraiki beza... bere egoitza

**E**raikia izanen da, hain zuzen ere, lerro hauek irakurgai  
izango direnerako Xiberoko Botza Zuberoako euskal irra-  
tiaren egoitza berria. Hobeki esatearren, Mauleko kale na-  
gusian, Victor Hugo karrikan kokatuta den etxe baten le-  
hen solairuko barne zaharberrietan jarria izango da urte  
honen azken egunetarako. Beraz, gertakizun bat dizuet  
berri ere aipatuko. Xiberoko Botzaren lantoki berriak eta  
orain artekoak ezer gutxi daukate antzekorik. Posta albo-  
ko leku hertsitik eremuz bikoiztutako lantokietara aldatu-  
ko dira irratiko langile eta arduradunak. Etxe horretan  
bertan gainerat *Zinka* taberna badago jadanik eta beste el-  
karteren batek edo bestek babeslekurik izan dezake.

Lan baldintza nabarmen hobetuetan, Xiberoko Botzak  
jarraikiko dio, beraz, bere sorreratik bultzatutako lan esker-  
gari: Zuberoa bizidun baten oihartzuna zabaltzen. Bera ere  
bizitasun honetan partaide da eta ez gutxi. Bere egoitza be-  
rriaren lanen ordainketaren diru bilketako kanpaina bera  
ere izan da euskal kultur ekimen askoren aitzakia, kantaldi  
bat zela han, apairu bat hemen, edo antzerki bat, edo ber-  
tso saio bat, Ipar Euskal Herrian nahiz hegoaldean zehar.  
Antolakuntza hauek guztiak boluntario andana baten emai-  
tzak izan dira eta beste behin gehiago erakusterat eman du-  
te elkartasuna ez dela hutsezko hitza eta izaera euskal gizar-  
tean eta bereziko euskaltasunaren munduan.

Xiberoko Botzaren laguntzaileen artean, besteek gaiz-  
ki hartu gabe, aipamen berezi bat egin beharra balitz,

Muskildiko gazteak laudorioztatuko nituzke. Benetan, alimaleko lana egin dute, bai egoitzako eraberritze lanetan, bai kanpainako jardueretan eta hau guztia dohaintasun osoz, jakina. Bere euskaltasunari zentzu bat ematen dion gazteria bat da, zinez, Muskildikoa, eta Xiberoko Botzaren egonleku berria ikuskatzerat etorriko zaretenok, muskildiar gazte horien esku-hartze oso handiaz gogoratuko zaretelakoan nago. Bisitaldi horretan erakutsiko dizuete, ziur aski, emanaldiak jendaurrean egiteko gela handia. Hau izango da Xiberoko Botzaren egoitza berriaren ekarpen handienetatik bat, saioak jende aurrean egingo diren gela honek lotura are sendoagoa egingo baitu irriaren eta haren entzuleen artean. Entzuleak baino gehiago, azken finean, jarduleak, parte-hartzaileak nahi eta merezi baititu Xiberoko Botza bezalako irri batek.;



## Andres Urrutia

*Alferkeriarekin, oro nekhe dira; lanarekin oro erretch dira.* Esaldi biribila —esan nuen nire bostean—, egitekoak eta eginak ondo bereizten dituena. Mahai gainean zegoen liburuak halakoxea zuen azaleko goiburua. Liburua —edo hobeto esanda, liburutxoa—, kanpoaldean behinik behin, horixka zen, aspalditik ihartuta dagoenaren erakusle. Bazter batean ere, ageri-agerian, jarraikoa: *Sos batean saltzen da bakarra.* Erdi-erdian eta letra larrietan, *Almanaka*; hizki txikiagoetan, *berria*. Apartekorik ez, *Euskarazko egunaria* esamoldea. Urtea, dena den, ezin goitik edo behetik nabarmendu, ezta albotik gaineratu ere. Beharbada, aspaldiko urteetan idatzia zen hura, eta norbaitek, ahazturik edo, liburu-denda hartako zoko batean utzia.

Edukiak, beraz, bazekarren bere garramuratxoa. Menturaz, argitalpen harrigarriren bat ere tartean izan zitekeen,

titulu handi-mandi baten azpian hutsik eta deus gabe orri zuriak ematen dituzten horietakoa. Agian, gaztelaniaz ezagutu genuen *Calendario Zaragozano* hura ere, urrundik baino, hur-hurretik zuen gure eskuarteko horrek.

Jakin-minak eraginda, liburu-denda hartako bazterrik aproposenean jesarri naiz, hain zuzen ere, *Irakurgunea* izentazioa duen esparru zabalean. Nabarikoa, haren moduko liburu-denda zahar batean. Nahitaezkoa, liburu-sal-toki garaikideotan. Hantxe sumatu ditut irakurle asperrezi-nak, idatzi batetik bestera etengabe igarota. Han ere, liburu eta komikietan barna, paperezko abentura eta joan-eto-rietako pertaide sutsu eta ipurdikarak.

Esku artean dudan horrek, hala ere, ez dit horrenbes-terako abagunerik eskaintzen. Izan ere, entzuna nuen al-manakek kontu-arrazoiak ematen zituztela, itsasgorak eta itsasbeherak, eguratsaren nondik norakoak eta eguneko santuen izenak. Osokoenak ere, ez edozelakoak. Ilargiaren neke-lor eta aldaketak, aholku praktikoak eta irakurtza egokienak ere, tarteka-marteka igarri behar, testu luzetxo-a-goien atari eta sarrarazle.

Liburuxka hark ez zuen eite horren aztarnarik. Inon ere ez irakurgarri euri nahiz eguzki, haize zein lehortearen norabiderik, harako *eguzki distiratsuaren egunetan ere, euria gertagarri* edota *trumoién artean, beti argi-ilunak*. Esaldi ai-patu hura ere, *goizean hotz, arratsean bero eta harrabots*, ja-so gabe eta hutsune.

Almanaka horretan, beraz, ez zen horrelakorik, lauz-pabost testu luze-labur baino, merkataritzako iragarkiak tropelka barneratu aurretik. Azala bata; mamia, bestea. Badaezpada, giharrekoa eta barrukoa emango dizkizut, irakurle, gure gaurko honi, beteen egokitzen zaizkionak horiexek direla hala iritzita.

### *Euskaldunon Egunkaria: Bizkaia* gehigarria

**B**ehin batean, bazen herrialde lurrintsua eta berde sama-rra, euskara «ez ohizko» batez hitz egiten zuena. Sasoi ba-tean ere, handik etorri ziren Euskal Herria berpizteko go-goak eta grinak. Hiriburua zuen handi-zabal eta langintsua.

Hara biltzen ziren kea, burdina, erreka eta itsasoa. Euskara bera ere, aspaldikoa, bertakoen aho zein idatzietan.

Hasi dira hangoak, bat-batean, euren buruari Mendebaldekoak esaten, mendebaldetik sarri-sarri datorren erreka-haize hori eragile bizia nahi dutelako. Mendebaldea bera, hortaz, mugalde luzea. Halakoak dira horiek, euskararen mugariari gogor eta sendo eusten diotenak.

Muga-herria, Bizkai herria. Horren adierazle eta mezulari, *Euskaldunon Egunkaria*-k Bizkaiko Foru Aldundia-  
ren laguntzarekin asmatu digun *Bizkaia* gehigarria. Modan ei dago Bizkaia. Askoren ustez, moda-bolada hori ez doa Benito Lertxundiren abesti sonatutik harantzago, Bizkaiaren euskal exotikotasuna lau bertsotan laburtzerik izango bagenu bezalaxe. Bizkaia, jakina, hori baino gehiago bada. Hasteko, eta besterik gabe, euskalgintza bera ulertzeko modua ere badugu Bizkaia, ziur asko, hamaikak txo «aurreraturena» baino bestelakoa, osterantzekoagoa.

Bizkaia beti egon da hor, entzungai, Euskal Herri osoari adi-adi. Beste euskal lurraldeekin bat egiteko beti prest, euskarari eta euskal nortasunari dagokienez. Bat-egite horrek, edozelan ere, ez dakar inori men egitea, inoren morroi ez baita Bizkaia. Begirunea zor zaio Bizkaiari, begirune osoa. Begirunea zor du Bizkaiak, horretarako aukera ahalbideratzen bazaio.

*Bizkaia* dugu orain bidegintza horretarako tresna, as-teartetik igandera esku-eskura, zortzi orrialdetan egunero-ko albisteak eta bertako ingurumariak erakusten dituenak. *Hori ondo!*, esango du norbaitek. Esatetik egintzara, alabaina, bada tartekorik. Eroapena eskatu behar, nonbait, egun zurrun eta estutxo irizten duguna bihar-etzi nasai eta malgu dastatzeko aukera izan dezagun.

Oro har, ekimen erakargarria. Ments du horrek bizkaiera literarioaren tradizioan gehiago errotzea. Falta du, beharbada, testuen aldetik arreta zorrotzagoa. Sobera ditu euskalkikeria batzuk. Onak ditu asmoak, gogoak eta ekin-tzak, batez ere, denboraren harian astinaldi sakona ekar-tzen badio Bizkaiari, euskal herrialde horrek, inolako lotsarik gabe, bereak dituenak kanpora ditzan. Badatoz horretarako zantzuak, gero eta bistaragokoak.

Bada, beraz, zeregin franko bizkaigintzan. Begitazioaren garaia baino, ereintza-sasoia dugu honako hau Bizkaiko euskalgintzaren alorrean.

Frai Bartolome eta Frai Mateo Zabala gure artean

**G**rizon iratzarria zela Frai Bartolome Santa Teresakoa, edonork daki. Urtetan ibili zen euskal idazle eta sermolarri. Haren lanak ere, antzinatik ziren argitaratu gabeak, *Ica-siquizunac* batik bat. Ez, horratio, euskaldunen ahoetan ez deduzko eta ahaztuta, bizi-bizirik eta oroigarri baino. Filologia kontuetan maisu dabilzanetatik hainbatek ere jaurtia zuten epaia, bizkaieraren jaiotze-aldian umotu zen fraide karmeldarraren gainean.

Bizkaiak bere seme euskaltzale bati zor ziona bete du, Frai Bartolomerena berrituz gure eskuetan jarritz. Urkiza eta Baraiazarra euskaltzaleen adoreari eskertu behar diogu hori. Tartean, beste behin ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza.

Ez da horretan agortu bizkaieraren emaitzarik, aurten ere, albo-albotik egin baitio oles gure Frai Bartolomek Frai Mateo Zabala bere geroko hurbilaren idazlekideari. Azken horren testuak ere, eskuragai eta irakurgarri, Aita Villasanteren babespean. Zabalaren sermoi trinko horien artean, galburu ederretan, hamaika pasadizo, kontakizun, esamolde jator eta jarraibide zehatz.

*Prosa behar dugu!* —aldarrikatu zen behin batean euskal baratzearen erdian. *Poesia ere bai!* —erantzun zuten beste batzuek, oiuhu bortitzagoa eginez. Asaldatu ziren orduan saiakeraren esparrukoak, hizkuntzaren ederra jendilaje horien eskuetan jausiko zelakoan. *Biba klasikoak!*, esango luke beste horrek —ni ere taldeko, jakina—. Kezka-buru, bide beretik ere, euskal klasikotasuna aipatzerakoan maiz-sarri sumatzen den irizpiderik eza.

Klasikotasun horren izenean, esana dut eta berresango dut: ondo etorri, Frai Bartolome eta Frai Mateo Zabala horiek, XXI. mendeko euskal eremura. Zuen berba-lauko

jarioa behar dugu, premiazko zaigu hainbat eta hainbat eremutan. Hizkuntzaren ederrak eta hizkeraren bizitasunak —egokitasuna ere ahanzteke— bene-benetan eskertuko dizuete eta.

Euskaltzaindia. Euskara batuaren lehen itzulia

**E**dozein Akademiarentzat garrantzitsu izan ohi da hizkuntzaren hiztegia ontzea. Bere-berea du Euskaltzaindiak euskararena eta horri ekin dio, buru-belarri, azken urteotan. Askorentzat luzeegi joan doana, beste batzuentzat labur-arin etorri dator, hizkeraren biziraupenari bagagozkio bederen.

Lehen itzulia amaitu berri du Euskaltzaindiak, eta bigarrenak eta hirugarrenak ere aurki izango ditu aztergai. Irizpideak irizpide, badakigu horiek ere eztabaidagarri izan daitezkeela, ez baitira erraz lotzen gizartearen ibilerak eskatzen duena eta hizkuntzak eskabide horri aurre egiteko behar duena.

Bi-biok erkagarri badira ere, apustua zeren alde egin behar den horretan argi dago, nire ustez, erdietsi beharrekoa: euskararen hiztegi zabala eta eguneratua, egungo premiei ihardesteko gai dena, aspaldiko tradizioan errota eta zimendatua.

Aurreko horien arteko oreka ez da, inondik ere, aise lortzeko modukoa. Asmatuko al du gure Akademiak horretan? Auskalo.

Nolanahi ere, garai berri baten aurrean gaude, eta hurrengo urteotako euskalgintza-eredua zehazten doa ezari-ezarian.

Langintza horretan Euskaltzaindiak izan behar duen zeregina, horra hor gogoeta sakon baten pean jarri behar dena. Horri buruzko ahotsak nonahi entzun ohi dira. Urliak hauxe, sandiak horixe eta berendiak huraxe. Gehienetan, hala ere, ohar egileak ura bere erre kara eraman nahian. Euskalgintzak, historian lehendabizikoz behintzat, dirua omen dakar eta merkataritzako mundua, ondotxo dakigunez, ez doa barne-barnetik estekaturik hizkuntzaren kalitate eta duintasunarekin.

Bi horien izenean maiz eskaintzen zaigun euskal «kultura» horren aurrean, zerbait egiteko premia larria inon bada, Euskaltzaindian da. Hor izan beharko luke zinezko —eta ez itxurazko— habia eta egonlekua euskal kultura anitz eta zabalak, aukera bakarrekoa baino, euskarari berari bide desberdinak eskain diezazkiokiena. Horretarako, alabaina, Euskaltzaindiak bereganatu behar ditu hizkeraren neurria emateko ardura eta kezka, historiatik, tradizioetik eta lanetik datorkionari eutsita.

Euskarazko kultura berriak, bistan da, ezin euskararen aje horiei sendabelar hutsak eman; gaitza, zoritxarrez, aspaldikoagoa eta trinkoagoa da euskararen baitan. Erradiografiak beharrezko, eta terapia egokiak, are beharrezkoagoak. Jokoan dago euskararen geroa eta euskarari aukera zabala ziurtatu beharrean gaude, petrikilo desegokien eskuetan utzi gabe.

Su-etenik ez; erasorik, bai

**J**oan zaigu bakea, dardarapean bizi gara eta ezinegonak bete gaitu. Su-eten nahiz bake, isilik genituen izkiluak, ber-bertan eta berriro entzungai ditugunak.

Bortizkeria aitzakia delarik, erasoan ekin eta ekin, Euskal Herriko ezaugarriak sakonki harrotzeko asmotan.

Ez dakit kultura den, ez dakit urte honi dagokion. Badakit, ostera, urte luzeetan euskararen alde jardun duten norbanako franko susmopean direla, laster batean erruztaturik ikusiko dugun euskarazko kultura oso baten aitzindari gisa.

Hogeita bost urte luze —oso luze!— joanak dira erregimen politiko berria dugunetik. Badirudi hogeita bost urte hauetan ez dugula desberdinak izaten ikasi, ezta desberdintasunetik abiatu eta elkarrekin bizitzen ere.

Gero eta ozenago dator deiadarra, gaztelania santu horren aldamenen bestelakorik egongo ez bailitzan. Euskaraz ez omen da zilegi eta legezko, folklore hutsezko kontuetan ez bada. Unibertsitateko curriculumak, ogibide-alorrekoak... oro dira deusezak erdaraz gauzatu ez badira. *Itxu-rakeria hutsa!*



Halakoak bitartean, euskal kultura, zalantzarik gabe, duda-mudazkoa eta oinarri gabekoa, dirulaguntzak gorabehera.

Su-etenik ez, bakea urratua. Etorkizun baldintzatu, oro har, euskal kultura ganorazko batentzat. j



## Iñaki Zabaleta Urkiola

Azaletik eta azpitik

2000. urtea (ikusle gutxi ohi dituen) antzerkia eginez hasi zen euskarazko kulturarentzat, eta *Mari Sorgin* deituriko lan berria taularatu zuen Taupada taldeak Elgoibarren. Ezin zitzaion egokiago eman hasiera milurtekoari, ezen, metafora arrunt bat paratuz, antzerki, errepresentazio, edo itxuratzea baita maiz gure kulturako jendearen izanaren ezkutune eta babestoki. Bigarren kultur ekitaldia bertso-laritzaren bidetik joan zen Zumaian, omenaldia ongi merezita zuen euskaltzale bati bertso-aste osoa eskainiz, bazkaria barne. Hirugarrena, Eusko Jaurlaritzak *Ikusgela* telebista-programak ekoizteko arautu zuen dirulaguntza izan zen; sei mila euro saio bakoitzeko.

Nire iritziz, aurreko adibideok franko ongi adierazten dituzte euskarazko kulturaren ezaugarri batzuk. Begiratu arina egiten badugu, nabarmena da gipuzkoarren eman eta ekarri oparoa, bertso-laritzaren pisua, eta Eusko Jaurlaritzaren sos-banatzaille funtzioa, hiritar guztiongandik bildutako zergak *laguntza* deituraz gizarteratuz.

Datu hauek eskuratu ahal izateko ez dut hemerotekara oinez joan beharrik izan, aski izan dut *Argia*-k eskaintzen duen *Euskal kulturaren hari@* izeneko internet-zerbitzua ikuskatzea nire mac-ean. Zorionak, oso albiste-laburpen baliagarria egiten dute. Eta *Argia*-koen antzera, beste hainbat enpresa eta talde ilusioz ari dira ziberespazioko

azoka eta zerbitzuak euskaraz sortzen: bilatzaileak, atariak, webguneak, ziber-hedabideak, eta abar. Baten batzuk bereiztekotan, hauexek bakanduko nituzke, gainerik: Eibarko <www.aurki.com> aurkitzailea, <www.jalgi.com> eta *Euskaldunon Egunkaria*-ren <www.egunkaria.com> webguneak, eta orain berriro Jabi Zabala adiskideak abian jarri duen <www.irratia.com> ziberirratia. Internet inguruko alorrean euskarazko kulturak lan txukuna egin du aurtan.

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak ere aurreraurrats aipagarriak eman ditu. Otsailaren 25ean *Bai Euskarari* Akordioaren bigarren sinaketa egin zuen Iparraldean, Miarritzen, eta 201 gizarte-eragile bildu ziren Akordiora, euskararen normalizazioaren aldeko gogoetan parte hartuko duten hitza emanez. Gero, maiatzean, Plan Estrategikoa abian jarri zuen Iparraldean.

Enpresa-munduko teknikez baliatuz, Kontseiluak, Plan Estrategikoan proposaturiko normalizazio-neurri minimoak hartzeagatik, *Bai Euskarari Ziurtagiria* eman zien 426 gizarte-eragileri, Donostiako Miramon Teknologia-Elkartegian egindako ekitaldi batean. Ziurtagiri honen balio sinboliko eta identifikatzailea ez da oraindik behar bezala aprobeztatu, ez eta gizartean ezagutzera eman. Eraitza hobek eman ditzake euskararentzat eta gizarte-eragileen-tzat, nire aburuz.

Kontseiluak lana ongi egin baldin badu, ez du makalago egin Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak, bere *Euskara Biziberritzeko Plana*, gehienbat EAera mugatuta egon arren, errealitatera eramateko ahaleginean. Bi alderdi hauen arteko elkarlan eta osagarritasuna oinarritzakoak dira.

Aurreko lerro guztietako eduki laburra, dena den, azalekoa da, kulturaren analisia gertakizun eta ekintza kuantitatiboetan oinarritua, «azpiko uholdeak» kontuan hartzen ez dituen. Eta azpiko ur-joan horietaz zerbait esan nahi dut, apal baina argi, adiskidetsuki eta lasai.

Gertakizun garrantzitsu bat jazo da euskarazko kulturaren alorrean aurtan, ene idurikoz. Irailaren 21ean, Euskal Herriko komunikabideetan, 140 kulturgilek «Isiltasuna ez da aterpe» agiria sinatu eta eman zuten ezagutzera

(*Euskaldunon Egunkaria*, 2000-9-21, 12. or.). Kritikoa naiz edukiarekiko, baina zinez pozik nago euskal kulturaren barrengo heterogeneotasuna agerian jarri delako<sup>1</sup>.

Euskal kulturaren arrotz denak, edo urrunduak, pentsa zezakeen euskal kulturgileak (idazle, irakasle, itzultzaile, kazetari...), oro har, bloke trinko samarra zirela oinarrizko ideia eta ikuskera batzuen inguruan; izan ere, horren us-tea zabaldu baitute maiz erdal hedabide, politikari, eta kultur eragileek. Baina ez, hori ez da egia, inondik ere, eta hori aldarrikatu genuen *Euskararen Unibertsoa* izeneko mugimendu eta jardunaldietan, 1996an hasirik: ideologia, kultura eta jatorri desberdineko euskaldunetz osatutako «unibertsoa» ginela, «komunitate» kontzeptuaren zantzuz eta konnotazio uniformeetatik haratago. Eta zoriondu dezagun horregatik elkar. Niretzat, uste horren aldeko frogaz izan da «Isiltasuna ez da aterpe» agiria.

Gainera, osotara bat nator ezin garela isiltasunaren morroi izan, libre izan behar dugula gura duguna adierazteko, eta hor ez dut mugarik jartzen. Iaz, Eibarren emandako hitzaldi batean esan nuen, adierazpen-askatasuna euskararen aurretik zegoela niretzat eta —errealitate parekagarriak ez diren arren— noizbait, bien artean ezinbesteko aukera egitera behartuta banengo, adierazpen-askatasuna hautatuko nuela lehenik. Kasu hipotetiko eta gertaezina da, seguruenik, baina horretarainoko balioa du adierazpen-askatasunak niretzat.

(Bide batez, aspaldi esateko gogoz neukana esan nahi dut orain eta hemen: Imanol kantaria oso abeslari fin, on eta errespetatua da niretzat. Gure ideien desberdintasunaren gainetik, direnak direla, dago nire berenagako estimua. 1979-80. urteetan, bere disko baten prestaketaren inguruan izandako solasaldiak gogoan ditut oraindik... eta *Es mayo* kantua *a capella* zoragarria da. Bilbon, etxean afaltzera gonbidatuta zaude, Imanol).

Agiriak hiru puntu ditu: lehenbiziko biek, zehaztasunez mugarriz, ados nago funtsean; ez ordea, hirugarrenarekin. Edukiaren aldetik, berriz, bi esparru jorratzen dira bertan, nire ustez: ETArekin aurkako salaketa sendoa batetik, eta diskurtso politiko kontestugabe eta kontserbadorea bestetik.

Lehenbizikoan dio: «gizarte zibilean datza, eta ez beste inon, nolako oraina eta nolako geroa nahi dituen erabakitzeke ahalmen osoa. Ezin dugu onartu, beraz, ETAk, indarkeriaren bidez, euskal gizartearen dinamika demokratikoa ordezkatu nahi izatea (...)». Bai, egia da, ados naiz, baina zoritxarrez ere, ezin dugu ekidin, oraingoz.

Bigarrenean dio: «Balizko hobebherrak edota proiektuen alorreko nahiak ezin ezar daitezke, ez indarrez ez bestela ere, gure gizartearen gehiengoak, une bakoitzean, bere egiten duen adostasun mailaren gaintetik». Bai, euskal gizartearen gehiengoaren onespina behar da edozein proiektu politiko ezartzeko, baina, zenbateko, nolako, eta nongo gehiengo maila? Halaber, argi da ezin dela indarrez ezarri, baina, zer esan nahi du 'ez bestela ere' horrek? Oso autoritarioa da esaldi hori niretzat; pentsamendu bakarraren eragina ikusten dut hor. Testuak jarraitzen du: «(...) Salatu egiten dugu, beraz, ETAREN eta bere inguruaren mehatxu etengabea, (...)». Bat nator ETAREN jokabide eta ekintzak salatzearekin, baina 'bere ingurua' izeneko kontzeptu zabal, zabar eta ez-intelektual horri arrisku handiak ikusten dizkiot. Ez baitu mugarri zehatzik, eta estrategia politiko hutsarengatik, 'inguru' horretan sar lezakete edozein pertsona libre, giza eskubide zibil eta gizatiarren erabiltzaile eta babesle izanda ere, baldin eta abertzale erradikal modura pentsatu, mintzatu, idatzi edo jokatzeko badu. Honelako eremu anbiguoak uztea, eta izatea, oso gogoko dute munduan izan diren erregimen politiko agintekeriazkoek, demokratikoak diren edo ez. Espainiako gobernuko oraingo buruak, Garzon moduko epaile politikoki telezuzenduak, eta komunikabide espainiarzaleak gogor ari dira 'inguru' horiek zabalagotzen eta kriminalizatzen. Agiria argitara eman ondoren atxilotu zituen Garzon epaileak J. Zumalabe Fundaziokoak ere, «ingurukotzat» hartuz. Oraindik barruan daude. Jakina, inori ez zaigu burutik pasatzen ere, hori egiteko *karta berdea* agiriaren edukiak eman zionik. Horregatik da hain garrantzitsua inguruak ongi mugarritzea, zehaztasunekin zedarritzea. EAJ eta EA ere, ETAREN «ingurukoak» baino areago, kide eta laguntzailatzat jo dituzte espainiar demokraziaren ordezkariak. Ez dut uste 140

sinatzaileak azken bi alderdi hauetaz ari zirenik «ingurua» aipatzean, baina dauden lasai, horiengana ere esfortzurik gabe hel daiteke espainiar hiztegi-gileen definizioa, jokabide demokratiko eta askatasun-zalearen izenean beti. Zer zen bada, urriaren 28an, Desobedientziaren aldeko Donostiako manifestaldia, espainiar estatuko lege eta ordenamendu juridikoa interpretatzen dutenen jokabide sektario eta pentsamendu bakar-zalearen aurkako oihu bat baino?

Agiriaren bigarren puntu honen azken zatiak dio: «Era berean salatzen ditugu mehatxu hori zeharka zein zuzenean babesten duten diskurtsoak». Bai, indarkeriaren aldeko mehatxuak eta diskurtso babesleak salatu egin behar ditugu, eta aldi berean, adierazpen-askatasuna defenditu beti, baina berriz ere anbiguotasun autoritario eta neoliberalala leiho zabaletik sartu da agirian '*zeharka zein zuzenean*' aditzondo eta adizlagun orohartzaileak idatziz. Noiz da diskurtso bat *zeharka* indarkeriaren aldekoa? Nor dira hori egiten dutenak? Zer metodoz identifika ditzakegu diskurtso horiek eta diskurtsogileak? Akusazio anbiguoak egitea erraza da, horrek sor dezakeen adarra kontrolaezina, maiz. Horregatik kezkatzen nau era arduragabean egindako deskalifikazio diskurtsibo anbiguoak, '*zeharka*'-ren kasuan bezala.

Hirugarren puntuaren lehen zatiak honela dio: «Legea eta ordenamendu juridikoa dira, berez kritikagarri eta aldagarri direlako hain zuzen, gizartearen garapen etikoaren isla eta, aldi berean, iturburu ezinbestekoa, haiek soilik babes baitezakete gizakia —eta gizartea bera— agintarien, norbakoaren eta talde antolatuen jokabide arbitrarioetatik».

Bai, legea eta ordenamendu juridikoa gizartearen garapenaren isla eta iturburu dira, baina garapen hori ez da beti etikoa izaten, alegia, justiziazkoa, gehienetan legislatibo-juridikoa soilik baizik, etiko izateko nahi-bidean. Ados nago horrela izan beharko lukeela, baina '*ez dira*', testuak dioen ez bezala. Kasurako, emakumeen, homosexualen eta etorkinen eskubideak, demokrazia askotan, ez daude oraindik berdintasunean garatuta.

Dena den, aurreko kritika txiki horrekin lotuta, niretzat larriena beste zerbait da: «[Legea eta ordenamendu


juridikoa] haiek soilik babes baitezakete gizakia —eta gizartea bera— agintarien, norbanakoen eta talde antolatuen jokabide arbitrarioetatik». Ez dut uste haiek *'soilik'* babesa eman dezaketenik, ez eta inongo eta inoizko gizaki eta gizartek lege eta ordenamendu juridikotik soilik babesa hartu dutenik. Oso pentsamendu politiko, juridiko, eta batez ere sozial, antzugarria da horixe. Baieztapen horrek izugarritzko zama kontserbadorea du; neoliberal hutsa dirudi. Legea eta ordenamendu juridikoa gizartearen atzetik baitoaz ia beti, eta gizabanakoaren eta gizartearen jokabide anitz legea baino haratago joaten dira, hautsi egiten dute hura, eta gero, noizbait, ordenamendu juridikoak jasotzen du gizartean indarrean dagoena, baina lege-urraketa modura hasi zena. Zer gertatu da, bada, soldadutzaren aurkako mugimenduarekin? Zer homosexualen eskubide ezarekin? Zer lehenago emakumeen boto-eskubide ezarekin (XX. mendean, kostata, eta orain urte gutxi, lortua)? Sektore horietako talde eta gizaki askok ez zeukan inongo, inolako, babesik beren herrialde demokratikoetako lege eta ordenamendu juridikoetan eta azken hauek urratu eta hautsi egin zituzten. Beraz, agiriaren puntu hau oso atzerakoia da nire ustez.

Agiriaren inguruan arrazoi eta iritzia hauek emanda, zer diot sinatzaileei buruz? Beraiek dioten modura, denetatik daude, eta egiaz libre dira berriz ere iritzia sendotasunez emateko, beharrezko ikusten dutenean. Gure, euskaldunon, unibertsoarentzat osasungarri eta aberasgarri baita. Eta ez da «azaleko berba», egiaz sinesten dudana baizik (lehenago ere abertzaleek jipoitu ninduten frankista baten adierazpen-askatasuna defendatzeagatik). Dena den, harritu egin nau nire adiskide batzuen sinadurak horren testu bortitzean ikustea, baina, ezagutzen ditudan neurrian, irizten dut beren pentsamendu eta nortasuna askoz ere zabalago, malguago, progresistago eta irekiagoak direla. Agian, deus ez dakidan arren, testua horrela idatzi du norbaitek, eta idatzitakoari sinadura atxikitzea (edo ez) baino ez dute egin. Beste batzuen kasuan, lantokiaren edo inguruaren presio ikustezinak zerikusiren bat izan zezakeen. Baina deus ez dakit eta ez du merezi elukubrazioetan ibiltzea.

Gauza da, guk guztiok nortasun poliedrikoa dugula, jokatibide askotarikoa, batzuetan zabal besteetan idor. Azkenik, baten baten sinadura oso logikoa iruditu zait, lehen ere ez baita bake-gizon izan eta ez baitu adierazpen-askatasuna errespetatu. Onerako edo txarrerako, amaitu zitzaion agintaldia (hura behintzat) eta atzerrian ibili da. j

- 
1. «Isiltasuna ez da aterpe» agiria argitara eman ondoren, eztabaida sortu zen hainbat hedabidetan. Nik jaso ditudan erreferentziak hauek dira:  
Pernando Barrena, «140 sinadura konponbideari bizkar ematen», *Euskaldunon Egunkaria*, 2000-9-26, 5. or.  
Gaizka Aranguren, «Legea eta ordenua», *Euskaldunon Egunkaria*, 2000-9-28, 2. or.  
Mikel Asurmendi, «Gaizka Arangureni», *Euskaldunon Egunkaria*, 2000-10-1, 4. or.  
Joserra Garzia, «Pernandoren egia gezurrezkoetan barrena», *Euskaldunon Egunkaria*, 2000-10-3, 5. or.  
Gaizka Aranguren, «Legalitate printzipioa eta etika», *Euskaldunon Egunkaria*, 2000-10-4, 4. or.  
Markos Zapiain <markos@jet.es>, «Literatura sariez», *euskaraz@egroups.com*, 2000-10-25.  
Markos Zapiain <markos@jet.es>, «Sariez berriro», *euskaraz@egroups.com*, 2000-10-26.  
Mosen Etxepare, «Isiltasuna ez da aterpe», *Herria 2000 Eliza*, 170. zenbakia, 2000, 4. or.

*Gatak*



XABIER KINTANA  
**Unamuno eta euskara**

*65*

*f*

GOTZON GARATE  
**Euskal Herria elebidun**

*81*

*f*

KOLDO IZAGIRRE  
**Gure poeten malkoa**

*103<sub>f</sub>*





---

# Unamuno eta euskara

b

X A B I E R   K I N T A N A

b

*i* zenburuak berak dioenez, Migel Unamunok bere bizitzan zehar euskararekiko izan zuen, edo, hobeki esan, izan zituen jarrerak jorratzeko asmotan natorkizue. Zer esanik ez, honi buruz lehen ere asko esan eta idatzi da, baina oraindik bazterretan entzun eta irakurri behar izaten ditugunak gogoan izanik, ez dut uste gaizki etorriko zaigunik Bilboko idazle eta filosofo handiak gure hizkuntzaz adierazi zituenak berriz maiseatzea, haiek testuinguru egokian hobeki ulertzeko.

Arazo honen hasiera, publikoki bederen, 1901.eko Agorrilaren 29an izan zela esan genezake, Bilboko Lore-Jo-koetan, hain zuzen, han, ordurako Salamankako Unibertsitateko errektore zena, Bilbok bere seme ospetsuaren merezimenduei ezagutza egin nahirik, mantentzaile izendatua baitzuen. Migel jaunaren izaera pitxia eta tenperamentu zuzengaitza harrezkero aski ezagunak ziren, baina zentzu oneko inori ezin burura zekizkioken izendapen hark ekarriko zituen ondorenak. Filme ezagunaren izenburua eskuratuz, «harekin eskandalua heldu zela» esan genezake guk ere, nolabait.

Unamunok eginiko hitzaldian bere herkideei, bere anfitrioiei, belarriondoko ederra eman zien; eta beren etxean bertan. Sabino Aranak esango zuen bezala: «bere jendeari giharrik sentiberenean min emanetz», haien nor-

---

W Xabier Kintana euskaltzaina eta EHUko Euskararako Kabinete Teknikoko zuzendaria da.

tasuna bera mespreziatuz: «Joan zoazen herria zara. Gizarte unibertsalaren bizitzari traba egiten diozu, alde egin behar duzu, hil behar duzu, gelditzen zaizun bizia zapaltzen eta inbaditzen zaituen herriari emanetz». Horri gutxi iritziz, nonbait, azken gehigarri zaratatsu gisa, jai hartako erregina iraintzeko ausartzia barkaezina ere izan zuen, hari, lotsagabeki, ezjakina zela aurpegiratuz: «harribitxiz beterik zaude, baina pinpirina zara eta ez dakizu horiek behar bezala eramaten: izan ere, dirua sobera daukazu baina kultura falta duzu», eta hori guztiori lege zaharreko gizarte probintzial hartan plazaratu zuen, emakumeari zor zitzaion errespetua ezin eztabaida zitekeen deduzko puntutzat zeukatenen artean. Jakina, espero izatekoa zenez, mintzaldi hark purga batek baino eragin lazgarriagoak ekarri zituen eta berehala askok bilbotar alditsu haren jarrera kritikatu zuten haserrez, horien artean, gorago aipatu dugun Sabino Aranak berak<sup>1</sup>.

Bistan da Unamunok alde aurretik pentsatuak zituela bere hitzaldi mergatzaren ondorioak, baina horretarako izan zitzakeen arrazioen azterketa geroagoko utzirik, gatozen euskararen aurkako esaldien mamira. Hitz gutxitan, Salamankako errektoreak euskarak gaurrengungo kultura adierazteko ez zuela balio esan zuen, eta gainera, ezgaitasun hori hizkuntzarena berarena zela, hau da, ez zetorkiola kanpoko laguntzarik edo ofizialtasunik ez izatetik, artzain, baserritar, olagizon, marinel eta apaiz ilustraturen batzuen ahoetan oraindik kontserbatzen zen mintzaira zahar horri bere baitako egiturazko akatsek premia historiko berrietara egokitzen uzten ez ziotelako baizik, eta bi ziaren aldeko borrokak dinosauoak lurraren gainetik ezabatu zituen bezala, euskarak ere modu berean iraungi beharko zuela.

Unamunok euskarari era askotako oztopoak aurkitzen zizkion. Alde batetik, latindar edo indoeuropar jatorrizkoa ez zenez gero, uste zuen —horretan behintzat Azkue eta Sabino Aranarekin bat etorriz— horrek euskarari galarazi egiten ziola Europako kultur hizkuntza guztiek darabilten goi mailako terminologia greko-latindarraz baliatzeko aukera. Bestaldetik, horien ordez neologismoak asmatu eta

erabiltzeko eskubiderik ere ez zion ematen, hau da, euskal erroz eta elementuz osaturiko hitz berriak — Larramendik, Aranak eta Azkuek, adibidez, horien alde egin arren—, baina Unamunok, berba berriak eratzeko prozedurari badaezpada dako zeritzolako, asmakari guztiak gaitzetsi eta *termina-cho*-tzat arbuiatzen zituen.

Geroago Koldo Mitxelenak umorez esango zuen bezala, bazirudien munduko hizkuntza guztiak beren lexicoa aberasteko dituzten bide biak Unamuno euskarari galarazten tematurik zebilela, ez baitzion utzi nahi inoren hitzak mailegatzen ez eta haien ordezkioak ere sortzen. Funanbulu bati, desarrazoi-lasterketa batean, gero eta baldintza gogorragoak jartzeko jokoa bezalako zerbait: lehenik eskuak lotzea, gero oinak, geroago pertika kentzea eta azkenik ezker-eskuinetara mugitzen galaraztea, horrela gizaixoa nahitaez goitik sare gabeko leizera amilduko zela frogatzeko. Arazoa baina, honetan datza: ez dela garbi ikusten zer arrazoiz galarazi behar zaion herri edo hizkuntza bati gainerako guztiak darabiltzaten baliabideak eskuratzea.

Edonola ere, arrazoiz edo arrazoirik gabe, eta haren ikuspegitik euskarak hiltzeko zauria zuelakoan, euskaldunei honela ziotsen:

Zuk egiten duzun hizkuntza hori, jende euskalduna, euskara hori zurekin batera galtzen ari da: ez du ardura, zure antzera, hark ere galdu beharra duelako; beraz, hil ezazu bera lehenbailehen eta ehorts ezazu ohorez; mintza zaitenez espainieraz!<sup>2</sup>

Proposamen honek, daitekeenik gogorrena izanik ere, xeheki aztertzea merezi du.

Logikaz, hasierako premisa egiazkoa balitz, hau da, euskara euskaldunen kultur aurrerapenerako benetako oztopo izanez gero, Unamunok uste zuenez, begien bistan dago haren gomendioa, ikaragarri eta bortitza izanik ere, erabat zuzena zela. Zuzenago eta zintzoagoa, nolana ere den, Pío Barojarena baino, beronek, bilbotarrak bezala, euskaldun eskolatuei euskara alde batera uzteko deia egin arren, ez baitzuen nahi gure hizkuntza baserritarren eta

maila apaleko jendeen ezpainenatik gal zedin, horrela herri kantak, bertsoak eta folklorea bederen gorde zitezen. Beraz, Barojak hiritar multzo bi proposatzen zuen Euskal Herrirako: batetik euskal herritar eskolatu eta erdaldunena, eta euskaldun ezjakinena bestetik. Honetan, Unamunok, berdintzaleago izanik —Sabino Aranak berak bezala<sup>3</sup>— euskal herritar guztiek kultur maila goren berbera lortzeko eskubidearen alde egiten zuen, eta horregatik euskararen aurka jartzen zen, berau paria ezjakin batzuen mintzaira izan zitekeelakoan. Eta, azken buruan, hori hizkuntzaganako maitasun eta duintasun-zentzuagatik egiten zuela uste dut, hots, euskara hilik ikusi nahiago zuelako, guztien irrigarri izan baino.

Kontuan har dezagun, Unamunok, 1864.ean Bilboko Zazpi Kaleetako Erronda kalean jaioak, haurtzaroan euskararen gainbehera ezagutu zuela bere inguruan. Izatez, etxeko giroan gaztelania hizkuntza nagusia izana zuen, baina halere, bere herriaren mintzaira zaharra bereganatu nahirik, euskara ikasten saiatu zen. Eta jakitera heldu ere bai. Gainera, euskaraz artikulua eta poema batzuk idatzi zituen, *Migel Unamunoko*<sup>4</sup> gisa sinaturik argitaratuak. Aski da, ordea, horiek gaingiroki irakurtzea, hor morfologia eta sintaxi arloko akats ugari somatzeko, gaurko eskolameek ere egingo ez lituzketenak. Bestela esan, Unamunok ez zekien euskara behar bezain ongi. Baina haren akatsak eta hutsuneak ez ziren larriagoak, adibidez, Sabino Aranarenak baino, beronek euskaraz idatzi zituen lantxo urriak irakurri dituenak aitor dezakeenez.

Nolanahi ere den, autore biok batera aurkeztu ziren Bizkaiko Diputazioak 1888.eko ekainaren 8an euskara irakasteko atera zuen katedra hornitzeko oposiziora, baina hau geroago Euskaltzaindiaren sortzaile eta aurren lehendakaria izango zen Resurrección Maria de Azkuek irabazi zuen. Postu horretarako hautatua ez izanak ez zion Eusko Alderdi Jeltzalearen fundatzaileari galarazi hizkuntzaren alde borrokatzen segitzea, baina dirudienez, gertakari horrek biziki nahigabetu zuen Unamuno, ordurako Bilboko Institutuan latin-irakasle zena, izaeraz aski harroa izanik.

Kontua da harrezkero euskararekiko jarrera askoz ere kritikoago eta urrunduagoa izan zuela. Ordura arte euskararen maitale sutsua izandakoa, geroztik haren azterlari hotz bilakatzen hasi zen, hura ikerketa zientifikorako gai hutstzat harturik, hizkuntza bizi gisa izan zezakeen patuaz arduratu gabe. Garai hartan euskara ondo ikasteko zailtasunak, eskuliburu, gramatika onik eta irakasle egokirik eza kontuan hartu gabe, Unamunok, antza, pentsatu zuen berak hura behar bezala menderatu ez bazuen, ez zela hartarako gaitasunik edo bitarteko didaktiko aproposik ez zeukalako, hizkuntza zail eta madarikatu hura ezin ikasizkoa zelako baizik, eta are okerrago, bere gogoetak behar bezain argi adierazteko, euskaraz ezin baliatzea ez zela berak hura behar bezain ongi ez jakitearen ondorio, hizkuntzak berak kulturarako bide izateko balio ez zuelako baizik.

Unamunok, Madrilén Filosofia-Letretan lizentziatu ondoan, Antonio Sánchez Moguel jaunaren zuzendaritzapean doktorego tesia egin zuen, hots, *Crítica del problema sobre el origen y prehistoria de la raza vasca*. Hartan nolabait agertzen zituen geroago, Bilbon, 1901.eko Lore-Jokoetan aski desegokiro plazaratuko zituen iritziak. Funtsean Herbert Spencer-en tesietan oinarritzen zen, urte batzuk lehenago Darwinek azalduriko eboluzionismoa soziologiaren eremura aplikatu nahirik. Izan ere, ingeles filosofo hark gizakiaren aurrerapidean elkarren ondoko hiru fase bereizten zituen gizartean: *horda*, *gizarte militarra* eta *gizarte industrial*a. Antzeko sailkapena erabili zuen, halaber, Lewis H. Morgan soziologoaren eskemari jarraikiz, Friedrich Engelsek, historiaz zeukan kontzeptzio marxista oinarritzeko, hor, hain ezagunak diren etapak jarritz, hau da, gizarte basati-esklabista, gizarte barbaro-feudala eta zibilizatu burgesa, berau, ezinbestean, gizarte komunistara heldu beharrekoa izanik<sup>5</sup>.

Bere tesian Unamunok gizarte etapa horien gainean Schleicher alemanaren hizkuntz eskema aplikatu nahi izan zuen. Honek munduko hizkuntza guztiak tipologia aldetik hiru taldetan sailkatzen zituen: *silababakarrak* (txinera edo vietnamera, adibidez), *eranskariak* (esaterako,

euskara, hungariera, georgiera edo kitxua) eta *malgukariak* (indoeuroparrak eta semitarrak). Garai honetan uste zen, tolesgabeki, hiru mota hauek mintzamenaren aurrerabidearen hiru mailari zegozkiola, hau da, aipaturiko talde horien artean bazela behetik gorako eskala bat, silababakarrak atzeratuenak eta malgukariak garatuenak eta osamaituenak izanik.

Gaur egun, August Schleicher-en hirutariko sailkapen hark bere balioa galdu ez duen arren, harez gainera, badakigu hizkuntza guztiek, gutxi edo asko, beste taldekoen ezaugarri batzuk ere edukitzen dituztela. Hau da, funtsean tipo horietako batekoak izan arren, bestetarikoen bereizgarri batzuk ere aurki daitezkeela haietan. Beste aldetik, joan den mendean uste zen gorabidea ez du gaur inork aintzat hartzen. Izan ere, orain dakigunez, txinera, gaur hizkuntza silababakarren eredia, aurreko garaietan malgukaria izan zen, eta beraz, ustezko igobide itzulezin hura oinarririk gabeko aurriritzi hutsa besterik ez zen. Beste muturrera joanik, autore batzuek diotenez, gaurko ingelesak, jatorriz malgukaria izanda, gero eta joera handiagoa dauka silababakartasunera.

Era berean, hirugarren munduko herri indigenen hizkuntzek, hango bizimodua apala eta gutxi garatua izaten delako, gramatika eta lexiko aldetik oso sinple izan behar zutelako uste okerra ere guztiz bazterturik dago gaur egun, Afrikako, Asiako, Amerikako, eta Ozeaniako herri jatorren mintzaira gehienek daukaten aberastasun eta garapen-maila harrigarrien argitan. Hortaz, ezerk ez digu esaten mota honetako edo hartako hizkuntza bat gainerakoak baino hobea denik; aitzitik, guztiak tresna ezin egokiagoak izan daitezke giza komunikaziorako.

Praktikak, bestalde, ongi erakusten digu, botere publikoak alde ez dituenen, edozein hizkuntzak, malgukaria izan edo ez, bere lehenagoko feudoan eremua galtzen duela, babesa dutenak, aldiz, haren kaltean hedatzen diren bitartean. Independentzia lortu duten behialako kolonien kasuak aski argigarriak ditugu. Indian hindierak ingelesa eta portugesa baztertu ditu; frantsesa zokoan utzi dute arabierak eta vietnamerak; Israelen hebreera yiddish,

aleman eta polonieraren gainean jarri da, Filipinetan tagalogak espainiarari lekua kendu dion bezala. Eta azken informazioen arabera, gure egunotan Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna ezereztu zenetik, Kaukaso aldean errusierak atzera egiten du, inondik ere malgukariak ez diren georgiera, txetxeniera edo Azerbaijango turkieraren bultzadapean. Beraz, dakusagunez, errealitatea, azkenean, espekulazioaren eta aurriritzien gainetik ageri zaigu<sup>6</sup>.

Jadanik gairituak diren baina haren garaian eskuarki onartzen ziren gertakari horietan oinarriturik, gizarte mota ezberdinen eta horietako bakoitzari zegokiokeen hizkuntza tipologiaren arteko korrelazioa ezarri nahi zuen Unamunok: hortik atera zuen hordak hizkuntza silababakarez mintzo zirela, gizarte militarrek hizkuntza eransakariak zerabiltzatela eta, azkenean, industria garaiko gizarterik aurreratuenek hizkuntza malgukariez hitz egin behar zutela. Eta horren kariaz, euskara bigarren tipokoa denez gero, logika horrekin espero izateko ondorioa ateratzen zuen: gure hizkuntzak ez zuela balio Euskal Herrian jadanik jaiotzen ari zen hirugarren mailako gizarte mota honetarako, eta horrexek zekarkiola, hain zuzen, bere noraezeko beherakada<sup>7</sup>.

Beste ikuspuntu batetik, lehen mailako, bigarren mailako eta hirugarren mailako hizkuntzak bazirela esatean, bereizkeriazko teoria hau ezin hobeki zetorkien europarren eta iparramerikarren politika kolonialei. Izan ere, hauek, Asiako, Amerikako eta Afrikako herri jatorren gaineko zapalketa eta lapurreta lotsagarria justifikatzeko, haiek behe mailako arrazatzat jotzen zituzten, psikikoki eta hizkuntzaz ere atzeratutzat, horrela haien nortasuna, kultura eta hizkuntza desegiteko eta asimilatzeke ahalegina, ezjakintasunaren eta basakeriaren aurkako gurutzada berria balitz bezala aurkeztuz. Ezjakin bezain harro, mendealdeko pentsalari horiek gizateria osoaren epaile bihurtzen zuten beren burua, beren kultura industrialetik beren hizkuntza propioak gehiegi goretsiz, munduko gainerako herrien kultur emaitza nabarmenak eta hizkuntz aberastasunak itsuki gutxiesten zituzten bitartean, zaku ilun horretan txinera, japoniera, arabiera, persiera, hin-



dia, swahilia, kitxua, nawatla, tagaloga, suomiera, bretoiara, galesera, katalana, galegoa<sup>8</sup>, eta zer esanik ez, gure euskara ere sarturik.

Honen guztionen isla oraintsura arte izan dugu irakaskuntza ofizialean ere, espainol konkistatzaileek Amerikan zapalduko herri autoktonoei «nuestra lengua» irakasten zitelako, poz-pozik agertuz, horrekin ezkutatu nahirik, antza, aztekek, maiek edo inkek, europar jendeekin harremanik izan baino askoz lehenago, ezin hobeki zekitela mintzatzeko, eta kultura original eta zibilizazio miressagarria garrantuak zituztela, zeinek bere hizkuntzan adieraziak.

Gaur egun ere muntaketa sasizientifiko eta xenofobo honen aztarrenak gelditzen dira. Baina oraingoan zenbaitzuek abusu horiek xuritzeko, «kultur mestizajea» moduko eufemismoak erabiltzen dituzte, dirudienetik noranzko bakarreko prozesu xelebrea berau, hor, besteek gurea hartzea aberastetzat jotzen den arren, guk, aurriritzi europozentrista zaharkituen eraginez, kanpokoengandik ezer hartu nahi ez dugun bitartean. Aski da gogoratzea, diogunaren adibide, Espainiako unibertsitateetan ez dagoela bat ere katedrarik Afrikako edo Amerikako kolonia izandako herri indigenen hizkuntzak ikasteko.

Zoritzarrez, norbere doktrinaren postulatuak edo ideologiaren aurriritziak jakintza arlora eramateko tentazioak behin eta berriro errepikatu dira historian zehar. Hortxe ditugu, alde batetik, Galileoren astronomi aurkikuntzen eliz kondena biribila —oraintsu, lauhun urte geroago, Vatikanoko, eskuzabaltasun handia erakutsiz, hura amnistiatu digun arren— edo Darwinen eboluzio-teoriaren gaitzespena, arrazoi bertsuengatik gertatua. Ezagunak dira, halaber, zer nolako hondamen-kalteak ekarri zituzten SESBaren ekonomiari Trofim D. Lysenkok nekazaritzan eta abel hazkuntzan eskala handitan eginiko esperimenduek, mitxurismoaren urratsei jarraikiz, marxismoaren postulatuak biologiari aplikatuz hobekuntza genetikoak erdietsi nahi izan zituenean. Eta ez dira ahanztekoak, halaber, gure egunotan emakumeek herri askotan fundamentalismo erlijiosoaren ideologiagatik oraindik pairatzen dituzten legezko bereizkeria lotsagarriak.

Gertakari hauek gogoeta eragin eta geure izpiritu kritikoak zorroztu beharko ligukete, ongi baino hobeki salatzen baitute zer nolako harreman arriskugarria ezar daitekeen zientzien —batez ere giza zientzien— eta talde nagusien interes ekonomiko-politikoen artean, zientzi ikerketen objektotasunaren eta legeen berdintasunaren kaltean.

Beraz, ez da hain harrigarria gure artean luzaro, bai teoriarik eta bai praktikan ere, gizarteari behin eta berriro azaldu beharra euskara, beste edozein hizkuntza bezala, kulturaren adierazpide egokia izan zitekeela, hau Estatutuen goiko mailetan, bai eta unibertsitateko irakasleen artean ere oso eztabaidagarria izaten baitzen, haren aurkako zapalkuntza justifikatu eta harekin aurrera segitzeko aitzakiatzat.

Honi buruz, utziko didazue kontatzen, diodanaren argiari, pasadizo bat, duela hogeita bat urte, Kaukasoa lehen aldiz izan nintzenean, Tbilisiko Unibertsitateko katedradun batek, Leo Gabunia paleontologoak, azaldu zidana. Urte batzuk lehenago, bere arloko kongresu baterako, aipatu irakasle hori Madrileko unibertsitate batera etorri zen. Bere alaba Salomek, orain dela urte batzuk Euskaltzaindiaren kide urgazle izendatuak, eskatua zion, Espainiako hiriburura egiten zuen bisitaz baliatuz, euskal gramatikaren bat eros ziezaiola, hark gure hizkuntza ikasteko gogoak baitzuen, tipologian haienarekin, georgierarekin alegia, antz handia du eta. Sinposioan zehar Gabunia jaunak unibertsitate hartako errektorea agurtzera hurbildu eta, paradaz baliatuz, galde egin zion ea Madrilen zein liburu-dendatan eros zezakeen euskal gramatika bat. Espainiako Unibertsitatearen ordezkari goren haren hitzek —eta haren hitzak errepikatu besterik ez dut egiten— «Baina dialekto horrek ba al dauka gramatikalik ala?» aho zabalik utzi zuten georgiar irakaslea, eta aitortzen hau egin zidan: «Orduan ezin hobeki ulertu nuen euskaldunok zergatik borroka egiten zenuten».

Eta informazio eta ulerpenik ez horrek oraindik ere bere horretan dirau. Hirurogeita hamarren bukaeran oihartzun handia eragin zuten prentsan Adolfo Suarez Espainiako orduko lehendakariaren esanek, hots, irrigarria iruditzen zitzaizkion, ezinezkoa baitzen, fisika euskaraz ira-

katsi nahi izatea. Horrek halako eskandalu txikia sorrarazi zuen, eta berehala erantzun zioten gure unibertsitateko irakasle batzuek, irakasgai hori euskaraz aspaldian ematen zihardutenek. Bide berean, duela bi urte, Madrilen, Kultura Ministerioan nengoela, mahai gainean nuen *Euskaldunon Egunkaria* ikustean, espainol idazle ezagun batek kortesiaz galdetu zidan —nolabaiteko lotsa aitortuz baina— ea egiazki euskara jadanik informazio-bide egokia izateko egoeran aurkitzen ote zen. Ageri denez, Unamunoren behialako iritzi haiek atzetik segizio luzea utzi dute, gainditzeko aski zaila.

Halere, aurrera egin baino lehenago, uste dut zenbait gogoeta egin behar dugula Unamunoren jarreraz, gauzak, xehekiago begiraturaz gero, beti korapilatsuagoak izaten dira eta. Hortaz, edozein giza hizkuntzak bere baitan garatzeko eta goi kulturako mintzaira bilakatzeko ahalmenak dauzkala onetsirik ere, gogoan izan behar dugu, aldi berean, hori ez dela berez lortzen.

Guztiok dakigu gaurko kultura-hizkuntza nagusiak, hots, txinera, ingelesa, espainiera, alemana, frantsesa, errusiera, arabiera, hindi edo japoniera, Erdi Aroan, batez ere, abeltzainen, nekazarien eta eskulangileen berbetak izan zirela, eta mendeetan zehar, monasterioetan, gortee-tan, kantzelaritzetan eta eskola-unibertsitateetan izandako lantze literario, administratibo eta zientifikoari esker heldu direla gaur aitortzen diegun zientzi eta kultur tresna egoki izateko maila horretara. Kasu hauetan guztiotan baina, mende asko iragan dira hizkuntza horiek beren literatur batasuna eta estandarizazioa eskuratu eta orain zientzi arloan daukaten terminologia zehatza lortu arte.

Halere, egoera oso bestelakoa izan da status horretara oraintsu heldu diren mintzairen kasuan. Horietan, aurrekoen mendez mendeko egokitze-bilakaera patxadazkoaren lekuan, gaur egungo mundu moderno honen beharri-zanetara lehenbailehen moldatzeko premiak akuilaturik, presakako plangintza ageri da, epeak lasterka gainditzeko sukarra, beti aurrerapenaren trenan galtzeko beldurpean. Horixe izan da, adibidez, katalanaren kasua, finlandiera-rena, txekiera, georgiera, hebreera, indonesiera edo swahi-

liarena, adibide jakin batzuk aipatzearren, eta, jakina, euskaldunon egoera ere bai.

Eguneratze-jarduera hau, noski, errazagoa izan da hizkuntz familia ezagunetako mintzairen kasuan, antzeko beste hizkuntza batzuekin kidetasun argiak zituztelako —adibidez, katalanak aldamenean latina, gaztelania, frantsesa eta italiera izan ditu; txekierak ondoan poloniera eta gainerako hizkuntza eslaviarrak; hebreerak arabiera izan du auzoan—, baina egokitzapena nekezagoa gertatu zaie ahaide-tasun hurbilik gabeko hizkuntzei, esaterako, finlandierari, turkierari edo euskarari.

Bestalde, hizkuntza guztiotan, batasunaren<sup>9</sup> nahitazeko aurrepausoaz gainera, tentazio bikoitza izan da: alde batetik garbizaletasunerako joera, hizkuntzaren beraren erro zaharretatik kultur eta zientzi terminologia propioa sortu nahi duena, eta, bestetik, aukera populista, erraztasunaren kariatz, ordura arteko hizkuntza ofizialaren edozein hitz onartzeko prest dagoena. Euskararen kasuan, gainerako gehientsuetan bezalaxe, pragmatismoak erdibideko irizpide eklektikoa atera du garaile: alde batetik, lexiko internazional greko-latindarra onartzea, berau gure hizkuntzaren morfologia eta ortografiara egokituz, eta, aldi berean, nazioarteko irizpide argirik ez dagoenean, euskarak hitz elkar-tu eta eratorri berriak eratzeko dauzkan baliabideak garatzea, euskal erroko zientzi eta kultur hitz ugari sortzeko<sup>10</sup>.

Hau guztiau, ordea, gure artean, batez ere 1968. urte-tik aurrera hasi zen mamitzen. Beraz, giro hori erabat urrun zegoen Unamunok, bizi zenean, inguruan zuen gizarte egoeratik, eta horregatik oso ondo eduki behar dugu hori kontuan bilbotarrak euskara alde batera uzteko izan zuen jarrera epaitzeko orduan.

Migelek zekien euskara dialekto askotan zatituriko hizkuntza zen, literatur eredu bakarrik gabea. Garai hartan pil-pilean ari ziren oraindik ortografiari buruzko eztabaidak, eta orduko idazleen artean nagusi azaltzen zen garbizalekeriak gure hizkuntza antzutasunaren irteera gabeko zulora zeraman noraezean. Hitz batez, idazle orok behar duen komunikazio-tresna ez zen oraindik sortua. Alde horretatik, bidezkoa da, agian, Unamuno —eta Baro-

ja ere bai— kritikatzera literatur euskara batu horren proiektuaren alde saiatu ere egin ez zirelako. Eta behar bada arrazoirik ez dugu faltako. Halere, haien garaiko beste euskaltzaleek, Broussainek, Campionek, Aranak edo Azkuek adibidez, izan zuten arrakasta urria ikusteak, nolabait, Unamuno gramatikari zorakilo haien itsasontzian sartzeko erreparoa justifika lezake, seguraski untzi hura inoiz portura helduko ez zelakoan.

Edonola ere, porrot haren funtsezko arrazoia begien bistan dugu. Unamuno, Arana eta Azkueren garaian, euskara kultura idatzitik urrun xamar bizi zen herri xeheak zerabilen gehienbat, eta are urrunago aurkitzen zen oraindik hezkuntzaren maila gorenetatik. Baziren, hori bai, jakintsu dozena batzuk, euskara dotoreago eta landuxeagoa erabil zezaketenak, era horretan beren emaitza zientifiko edo ideologikoak idatziz. Baina taldetxo hori urriegia zen hizkuntzaren batasunaren arazoa helburu egiaz sentitu eta orokorra izan zedin. Gizarteak, egia esan, ez zuen halakorik eskatzen. Ordea, hori ez zen gertatzen euskaldunen erru soilagatik. Estatuaren gainegitura politikoak, euskara zapaltzen eta baztertzen jardun beharrean, hura bere administrazioan onartu eta irakaskuntzan bultzatu balu, berehalaxe agertuko zatekeen hizkuntza estandarizatzeko premia. Baina euskaraz diogunez, *joanak joan eta balizko oleak burdinarik egin ez daroa*, gauzak ez ziren horrela izan, eta, beraz, alferrik da orain izan balizko horiekin burua nekatzea.

Hortaz, bere garaiko gizarte egoera ikusita, Unamunok —Barojak, Sabino Aranak eta beste anitzen antzera— bere obretan espainiera erabili nahiago izan zuen, hots, hizkuntza jadanik batua eta aurrekoek egokitua, eta ama-hizkuntza zuen aldetik, euskara baino hobeki zerabilena, literatur euskara batua sortzen aritu baino. Gaztelaniaren aldeko aukera honek, gainera, irakurle askoz gehiagorengana heltzeko era eskaintzen zien, ezagutza eta ospe handiagoarekin batera, bai eta, kasu batzuetan, ekonomian eta politikan etekin hobeak lortzeko parada ere.

Eta berriro nator hasieran etenik utzi dudana puntura, hau da, Migel jaunaren sakoneko motibazioetara, ez baiti-

rudi oso zuzena, Unamuno, 1901.eko Lore-Jokoetan, besterik gabe probokatzaile agertu zela pentsatzeak. Aranek berak ere, haren hitzak gogorki kritikatzeko egin zuen artikuluan, hartarako arrazoi oportunistaren bat izan zuela iradokitzen zuen, nolabait madrildarren belarriak balakartzeko<sup>11</sup>. Ni, ordea, ezezkoan nago. Unamuno sasoi hartan Salamankako Unibertsitateko greziera-katedraduna eta bertako errektorea zen, hots, jadanik bere ibilbide profesionalaren goren puntuan zegoen. Ez zuen, hortaz, inoren uzkia musukatzen ibili beharrik. Bestaldetik, diplomaziarako trebetasuna ez zen On Migelen bertuterik nabarmenena, eta horrek maiz orduko botere faktiko nagusien etsaigoak erakarri zizkion, horien artean Primo de Rivera jeneralarena edo Espainiako erregearena berarena. Beraz ez zait bidezkoa iruditzen Unamunori «eguzkia nora zapiak hara» delako etiketa leporatu nahi izatea.

Zentzuzkoagoa litzateke gertakari haiek bestela ulertzea, hots, nabarmentzeko ohi zuen bide *épatant* harekin, kritika horien bidez Unamunok, sibilak bezain maltzurki, bere herritarrei erronka egiten ziela pentsatzea, euskararen aurkako erasoekin min emanaz, hala, haserrez eta kontrakarrean, haiek, eginekin, euskara zientziaren zehaztasuna eta filosofi mintzabidearen xehetasunak oro adierazteko egiazki gai zela frogatzen ahalegin zitezen, bera oker zegoela erakutsi arte. Izan ere, Salvatore Mitxelenak berak ongi aurpegiratu zionez, euskara baztertzeko zergati nagusia, logika hotzaren arrazoa bazen, ironiaz Unamunoren beraren argudioak erabiliz, horri euskaldunek erraz kontrajar ziezaioketen sentimenduaren logika beroa. Beraz, hark hain gustuko zituen paradoxetako bat erabiliz, itxurazko kolpe latz harekin, azken buruan mesedea egin digu nolabait.

Begien bistan dago, gainera, hori bete-betean lortu zuela. Izan ere, Unamunoren ondoko euskal idazle guztiek, nola edo hala, haren hitzen akuilu zorrotza izan dute gogoan. Batzuek, Kirikiñok, Lizardik, Mitxelena biak, Txillardegik edo Martin Ugaldek bereziki aipatu dute Unamuno, haren aurka egiteko edo harekin literatur elkarriketan aritzeko. Beste batzuek, mugimenduaren froga-

rik onena ibiltzea bera izaten dela jakinik, Unamunoren hitzek sakonean zeukaten egia ezagaturik, lanean jardun dute kartsuki, behialako larreko hizkuntza hura gaurko aro berriko kultur mintzaira bilaka dadin, herenegun aitzin hil zitzaigun pentsalari eta euskaltzainak, Federiko Krutwigek praktikan egin zuen bezala.

Denboraren joan-etorrian, politika abagune faborgarriagoak heldu zitzaizkigun, demografi hazkuntzarekin batera. Jendea, bestalde, baseritik hirietaratzen hasi zen, ikastolak sortu eta gizarteak gure herriko kultura eta balioez sentiberatasun handiagoa hartu izan du. Horrek euskara batua ekarri digu, irakaskuntzan, komunikabideetan eta, gaur egun, administrazioan ere gero eta sentitzenago den premiari erantzun nahirik. Eta beharrian objektibo horiexetan datza oraingo saioak izan duen arrakasta.

Salvatore Mitxelenak irudimenez egin zion elkarrizketa zirraragarri hartan, Unamunok beste mundutik euskara berpizten ikusten zuen atseginez. Nik ere uste dut bilbotar argia, edonon delarik ere, pozik dagokeela bere obretarik bi berak bere gaztaroan bultzatu zuen hizkuntzan argitaraturik<sup>12</sup> eta UPV/Euskal Herriko Unibertsitatean honezkero enborreko irakasgaien % 50 euskaraz ematen direla ikustean, mintzaira hori, bere kritika zorrotzei esker, hirugarren milurtekoaren hasieran, jakite-hegoek igoa, jadanik kultur hizkuntza izateraino heldurik. Horrela bete da, gainera, lehen euskal idazleak, Bernard Etxeparek, 1545.ean profetikoki aldarrikatu zigun nahi zaharra: *heuskara, habil mundu guzira*.

Guztiori eskerrik asko<sup>13</sup>.j

1. Pasadizo honetarako S. Aranaren «Los juegos florales de Bilbao» artikulua irakur daiteke, haren *Obras completas*, Ed. Sabindiar batza, Buenos Aires, 1965, 1987-1992. or.
2. S. Arana, *op. cit.*, 1990. or.
3. «El euzkera (sic) hoy de nada vale. Al contrario, es un obstáculo, un estorbo para todo: para educarse, para estudiar, para el comercio, para la vida. Los ricos y los ilustrados habéis llegado a esa posición hablando español. ¿Por qué del aldeano queréis exigir que no lo aprenda, o al menos que no lo hable? ¿Es que no queréis que se iguale a vosotros en riqueza y en conocimientos?». S. Arana, «Conócete a tí mismo», *op. cit.*, 1998. or.
4. Unamunok bere gaztaroan euskara maite zuela zalantzarik ez dago. Santi Onaindiak argitaraturiko euskal poesiaren antologian haren gabon-kanta bat jarri zuen eta han bertso hau irakur daiteke: «Geure euskera baño / berba ederrago / ez da gauza ain aundi / zelebratuko». *Milla euskal olerki eder*, Itxaropena Arg., Zarautz, 1954, 676. or. Unamunoren euskararen beste erakusgai bat, halaber, «Agur arbola bedeinkatube» artikuluan dugu, 1888.ean *Euskal Erria* aldizkarian argitaratua, 299-230. or.
5. Ikus Friedrich Engels-en obra: *El origen de la familia, la propiedad privada y el estado*<sup>3</sup>, Ed. Fundamentos, Madrid, 1996.
6. Sabino Aranak, pragmatikoa izanik, argi ulertu zuen euskararen gainbeheraren arrazoiak ez zeuzkala hizkuntzak bere baitan, inguruko egoera bereziak baizik, hots, ofizialtasunik ezetik zetozkiola. Horregatik, bere planteamendu politikoetan ez zuen ahan-tzi hizkuntza baliabide politikoz hornitzea, horrela suspertu eta aurrera egin zezan: «Haced que el euzkera (sic) sea necesario en su patria, y entonces, no lo dudéis, ningún hijo del pueblo lo ha de olvidar. Haced que sirva para educarse, para prosperar, para vivir, para ilustrarse, y entonces el que lo posee, hallará razonable conservarlo, y el que no lo habla podrá moverse a aprenderlo». «Conócete a tí mismo», *op. cit.*, 1998. or.
7. Interesgarria da, era berean, bere kontutik eta marxismo bidean abiatuz, Niko Marr hizkuntzalari georgiarra ere antzeko ondorioetara heldu zela jakitea, hau da, estadalismo famatura, luzaro, alderdi komunistaren laguntzarekin, SESBean ofizialki indarrean izan zen teoriara. Harik eta beste georgiar batek, Arnold Txikobavak, estadalismoak sobietar hizkuntz ikerketei zekarzkien ondorio negargarriak eta mendebaldeko ikerlariengandik gero eta al-denduagorik zebiltzala ikusita, Stalini elukubrazio horiek gaitzes-teko baimena eskatu eta lortu arte bederen.
8. Galegoaren kasua oso argigarria da. Berez, portugaleria eta galiziera hizkuntza beraren bi dialekto hurbil izan arren, —elkarrengandik hagitzez hurbilagoak, esaterako, bizkaiera eta gipuzkera baino—, bistan da lehenengoari aspaldiko ofizialtasunak zer no-lako prestigio eta garapen kulturala ekarri dion, bigarrenak



oraintsu arteko lege-babesik ezagatik, bazterkeria nabarmena pairatu behar izan duen bitartean.

9. Ikus L. Villasante-ren *Hacia la lengua literaria común*, Ed. Franciscana de Aránzazu, 1970. Euskarari buruz argibide gehiago lor daitezke Euskaltzaindiak argitaraturiko obra honetan: *El Libro Blanco del Euskara*, Euskaltzaindia, Bilbao, 1977. Irakurtzekoa da, halaber, Joseba Intxaustiren *Euskara, euskaldunon hizkuntza*, Eusko Jaurlaritzak 1990.ean argitara emana (badira espainieraz eta frantsesez eginiko edizioak ere), zeinetan euskararen inguruko gai askori buruz bibliografia ugaria eskaintzen den.
10. Euskal hitz elkartu eta eratorriei buruz Luis Villasante-ren *Palabras vascas compuestas y derivadas* liburua irakur daiteke (Ed. Franciscana de Aránzazu, 1974); berrikiago, Miren Azkarate irakaslearen doktorego tesi bikaina argitaratu da: *Hitz elkartuak euskaraz*, Deustuko Unibertsitatea, Donostia, 1990. Nazioarteko hitzen euskal transkribaketaz hor da Euskaltzaindiaren *Maileguzko hitz berriei buruz Euskaltzaindiaren erabakiak*, Bilbao, 1986.
11. «No es, pues, que en el Nuevo Teatro dijera lo que siente, ni aún que sintiera lo que dijo: es que le convino decirlo y lo dijo. Porque el señor Unamuno, a sus aficiones de filósofo y literato, une el temperamento de bilbaino: positivista para elegir el fin, práctico para excogitar los medios». S. Arana, *op. cit.*, 1992. or.
12. Klasikoak fundazioak, giza zientzietako autore nabarmenen pentsaera eta zientzi lanak euskaraz argitaratzeko xedeari jarraituz, 1994.ean Unamunoren *Del sentimiento trágico de la vida* liburua eman zuen argitara *Bizitzaren sentimendu tragikoaz* izenburua rekin. Bestaldetik, Elkar editorialak 1996.ean autore beraren beste obra bat argitaratu zuen, *Kristautasunaren agonía*, alegia.
13. Donostian, 1998.eko Hazilaren 18an Koldo Mitxelena Kulturunean eginiko hitzaldia.

---

# Euskal Herria elebidun

b

G O T Z O N   G A R A T E

b

## Elebitasunaz zer esaten den

Sarri askotxotan Euskal Herriak elebitasunari eutsi behar diola entzuten dugu. Euskaldunok elebidun izan behar dugula.

Euskaldunok euskaraz bakarrik egitea oso kaltegarri izango omen litzateke. Euskara hutsak ez omen du etorkizunik.

Honatx zer zekarren *El Diario Vasco*-k (1998.V.21), adibidez, aurreneko orrian hizki larrietan: «El Gobierno Vasco prevé que en diez años los jóvenes hablen tres idiomas».

Eta ia berehalaxe hauxe gaineratzen zuen:

La consejera de Cultura del Gobierno Vasco, Mari Carmen Garmendia, prevé que los jóvenes vascos hablarán tres idiomas en la próxima década, dado el progresivo interés que muestran los padres para que sus hijos sean plurilingües.

Eta geroxeago:

Tras la reunión del Consejo Asesor del Euskera, Mari Carmen Garmendia consideró que el porvenir del euskera «está ligado al pluralismo lingüístico».

Eta *El Correo Español*-ek (1998.X.18) hilabete batzuk geroago:

---

W Gotzon Garate idazlea eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea da.

La consejera vasca de Cultura, Mari Carmen Garmendia, afirmó ayer en declaraciones a Europa Press, que «pretender el monolingüismo euskaldun sería la muerte para el euskera».

La consejera sostiene que la pervivencia del euskera como patrimonio de las futuras generaciones requiere «no sólo apostar por el bilingüismo, sino incluso por el plurilingüismo».

Bernardo Atxaga idazlea ere behin baino gehiagotan elebitasunaren alde agertu da.

Beraz, euskaldunok hegoaldean gutxienez espainolez eta euskaraz egin beharko omen dugu. Eta ingelesez ere bai, nonbait. Iparraldeaz ez du Mari Karmen Garmendiak gauza handirik esaten. Han, dena den, uste honen arabera, guttienez frantsesez eta euskaraz egin beharko lukete.

Eta espainolek ere bi edo hiru hizkuntzez jakin beharko al dute? Eta frantsesek frantsesez gainera ingelesez edo alemanez jakin beharko al dute? Ez dakit. Espainolek bi hizkuntzez mintzatu behar dutenik ez dugu sekula entzuten.

Euskal Herrian baserritarrek ere hiru hizkuntzez jakin beharko al dute euskarak iraun dezan?

## Herria elebidun ezin izan

Usteok erabat oker dira. Herri batek ezin du bi hizkuntzez ongi hitz egin. Ez da sekula izan eta orain ere ez da munduan bi hizkuntzez mintzo den herririk. Euskaldunok herri berezia garelara eta bi edo hiru hizkuntzez egin dezakegula pentsatzea amets hutsa da.

Ez da horrelako herririk izan. Bi hizkuntzez mintzo ziren herrietan bata besteari nagusitu egin zaio eta azpikoia galdu egin da.

Egungo egunean ere gauza bera gertatzen da. Ni lau kontinentetan ibili naiz. Ez dut inon bi hizkuntzez mintzo den herririk ikusi.

Batzuek Suitza ipintzen dute elebitasunaren eredu. Ni bi urtez hantxe bizi izan nintzen. Ez dago holakorik.

Suitzan frantsesez mintzo direnetarik oso gutxik dakite alemanez. Has zaitez Genevan alemanez egiten. Berehala ikusiko duzu ia inork ez dizula ulertzen.

Eta alemanez mintzo diren gehienek ez dakite frantsesez edo italianoaz. Jende arruntak aleman batuaz beraz ere ez daki. Ni batez ere Solothur kantoian bizi izan nintzen. Gure etxean lan egiten zuten langile batzuek *Schwizerdütsch*-ez bakarrik zekiten, bertako euskalkiaz.

Ziur egon gaitezke: Euskal Herrian euskara nagusituko da ala erdara. Biek elkarren ondoan irautea ezinezkoa da.

Euskal Herria batera euskaldun eta erdaldun izatea zentauro bat bezala izatea da. Zentauroak mitologian bakarrik izan dira. Gizaburua eta zaldigorputza zuten izaki horiek ez dira sekula izan. Euskaraz eta erdaraz ari den Euskal Herria zentaurokeria hutsa da.

Pertsona batek espainolez ala euskaraz pentsatuko du. Espainolez pentsatzen duenak espainol burua du. Eta espainol burua duena espainola da. Aitzitik, egiazko euskalduna, eguzki eguzki euskaraz pentsatzen duena da.

Botila batean zenbat eta ur gehiago sartu, ardoarentzat toki guttiago geldituko da. Euskal Herrian ere gauza bera: erdara sartuago, euskara baztertuago.

Pertsona bati ezin bi buru ipini, birekin hobeto pentsatuko duelakoan. Herriari ere lepo gainean bi hizkuntza erantsi nahi izatea, hiltzeko operazioa egitea da.

Euskal Herria elebidun izan behar den ustea oso gogarakoa dute espainolek. Badakite azkenean euskaldunek erdaraz soilki egingo dutela. Otsoen grina eta irrika horixe da: ardiekin batera bizitzea. Espainolek ere badakite euskara erraz itoko dutela. 300 milioi baino gehiago dira bi milioiren kontra. Borroka irabazia dute.

## Elebitasunean ez: diglosian bizi gara Euskal Herrian

Garbi esan dezagun: *euskara galtzori gorrian dago elebitasuna dela kausa. Diglosia galgarrian bizi gara.*

Hasteko eta bat: euskaraz gutti egiten da. Gero eta jende gehiagok dakite euskaraz. Erdara nagusi da, ordea, Eus-

kal Herri osoan. Ez bakarrik Bilbon, Donostian, Iruñean, Gasteizen, Baionan...

Zoaz Tolosara, Beasainera, Eibarrera, Bermeora, Arrasatera... ia ez duzu euskararik entzungo. Jendea parra-parra erdaraz ari da. Soziologoek esaten dutenez Euskal Herrian egunero egiten den euskara ez da % 10era iristen. % 90 erdaraz egiten da.

Euskaldun talde handia egonik ere, espainol bat baldin badago, guztiak espainolez hasten dira.

Espainol konstituzioak euskara heriotara galtzen du, euskaldunok gazteleraz ikasteko *obligazioa* dugula esanez.

Diglosia egoera larri honen lekuko Euskal Herriko kazetak dira. *El Correo Español*, Euskal Herrian gehien irakurria den kazetak egunero 80 bat orrialde ekartzen ditu. Euskaraz ia bat ere ez.

*El Diario Vasco*-k egunero aspalditik orri bat ekartzen du euskaraz, Felix Ibargutxiri esker. Lehenago berorrek as-teazkenetan hiruzpalau orrialde ematen zizkigun. Kendu zuten hori ere.

*Gara* hobekixeago dabil. Motz dabil oraindik ere, ordea.

*Deia*-k deus gutti ekartzen du. 1999.IV.20koan, adibidez, 120 orrialdetik bat eta heren bat (1 eta 1/3) bakarrik zegoen euskaraz idatzirik. Beste den-dena espainolez.

Ez da kazeten errua. Kazetek eskaera-eskaintzen arabera jokutzen dute. Euskaldunok erdaraz irakurtzea nahia-go badugu, kazetek erdaraz emango dizkigute berri-irakurgaiak.

Euskal Gobernuan ere ez dugu jokabide pozgarririk ikusten. Entzun zer zioen *El País*-ek (1998.X.22):

El Gobierno (Vasco) incumple la ley del euskera al traducir apenas el 16 % de sus documentos.

La lengua empleada para la redacción de la mayor parte de la documentación administrativa es el castellano y sólo se traduce cerca del 16 % de lo escrito. Estas son algunas de las principales críticas contenidas en un informe realizado por el Instituto Vasco de Administración Pública (IVAP) sobre la utilización de la lengua vasca por parte del Ejecutivo de Vitoria en su producción escrita tanto para el exterior como para la comunicación interna.

El diagnóstico de la situación resulta demoledor para el Gabinete de José Antonio Ardanza.

La Consejería de Cultura no ha respondido a la encuesta del IVAP.

Egiaren ohoretan hauxe gaineratu behar da: Patxi Ormazabal en sailak % 100 euskaratzen dituela agiri guztiak. Txalogarria!

Euskara gainbehera doa. Gipuzkoan gizaldi honen hasieran % 85 euskaraz *egiten* zuten eguzkiz eguzki. Eta ongi hitz *egin* ere. Egun % 40k baldin badakite, % 20k ez *dute euskaraz egiten*.

Egungo egunean Gipuzkoako herrietan erdara da jabe. Euskaraz dakitenek ere, ez guttik, espainolez hitz egiten dute lasai asko.

## Euskara gero eta kaxkarrago

Ez dago hor bakarrik, ordea, kezkabidea. Egiten den euskara gero eta kaxkarrago eta urriago egiten da. Gero eta txepelago eta erdal usaintsuago.

Egunero ikusten dugu. Geure gurasoen euskararen eta egungo eguneko euskararen artean, leize handia dago. Gure gurasoen euskara zaulia, bikaina, noranahikoa, aberatsa zen. Lexikoan erdal hitzak sartzen zituzten. Ongi sartuak. Hizkuntza ez baita lexiko berria hartu duelako alferrik galtzen, lehengo aberastasuna galdu eta batez ere egitura aldrebestu egiten delako baizik.

Alde ederra Auspoa-n irakurtzen dugun lehengo euskara bikainaren eta egungo egunean maiz idazten den euskararen artean.

Euskara ahuldu, sogortu eta gaixotasunak hartua dago. Anitzek esaten duten bezala, maiz *plastikozko* euskaraz egiten da. Tradizioa eten egiten da.

Hogeitaz urtean Euskal Filologia irakasle izan naiz. Ikastaro guztietan nire ikasleek, bizpahiru kenduta, euskaraz baino espainolez hobeki dakite. Idazterakoan, euskaraz erdaraz baino huts gehiago egiten dituzte. Ingeleseaz ere ez dakite ongi. Ondo espainolez dakite.

Beste kasu bat azter dezagun. Euskaltzaindikoa. Euskaltzain bati entzun nion: «Euskaltzaindiko batzuk euskaraz baino hobeto dakite espainolez».

Egia denentz ez dakit. Egia balitz: zer esango genuke Frantziako Académie Française-koek frantsesez baino espainolez hobeki balekitez? Edo Espainiako La Real Academia-koek espainolez baino frantsesez hobeki balekitez?

Eta egungo idazleez ere gauza bertsua esan dezakegu. Bat baino gehiago nahiko moteltxo ikusten dugu. Ez dut nehor mindu nahi. Aitzitik, ahal duena egiten duenak txaloak besterik ez ditu merezi.

Bertsolari gazteak ere ez dabilta denak maila berean. Guztiek lan bikaina egiten dute. Batzuen euskara, ordea, Txirritarena bezain zaulia ote da?

Gazteleraren eragina izugarria da. Euskara alor askotan erdararen itzulpen hutsa da.

Berriz esan behar da: diglosian bizi gara.

Hortxe dago kontua. Euskaraz gero eta gehiagok jakin arren, zenbait tokitan gero eta gutxiago eta gaizkiago egiten dela. Hizkuntzak zenbat eta gutxiago erabili txepelago, herdoilduago eta deus guttirako bihurtzen dira.

Baserrietan bertan ere izugarrizko aldaketa ikusten ari gara. Oraingo biloben euskara eta aiton-amonen euskara oso bana dira. Ni hogeita hamar urtean zazpi probintzietako baserrietan nabil. Aldi honetan baserrietan ere egin den beherakada!

## Euskaldunok erdaraz egiten dugu geure artean. Zergatik?

Maiz esaten da euskaldun askok elkarrekin erdaraz egiten dutela. Zergatik, baina, ez da esaten. Komeni zaion botika emateko, ordea, gaitza nondik heldu den jakin behar da.

Arrazoia garbia da. Euskaldunek euskaraz baino erdaraz hobeki dakitelako. Hobeki eta errazago egiten dute espainolez.

Pelotari bat eskubi baldin bada, eskubiz jokatuko du, ahal duen guztietan. Pilota baztertu egiten zaionean, eta ezinbestean joko du ezkerrez.

Jauzilariari, 1.90 metro jauzi ahal badezake, ez eskatu beti 1.50 metro baizik jauzi egiteko. Bere ahalmen osoa eman nahi izango du.

Erdaraz hobeto dakienak ere eskuarki erdaraz egingo du. Ezinbestean baizik ez du euskaraz egingo. Ez dago erdaraz hobeto dakienari euskaraz egiteko eskatzerik. Bere burua hetsi, murriztu eta eskasteko eskatzea da. Izan ere hizkuntza da gizonaren betea eta ahalmena ematen dituen.

Eta euskaldunek zergatik dakite espainolez hobeki? Maila handiko ikasketak erdaraz egin dituztelako. Euskal Herriko gazteek beren unibertsitateko eta goi eskolako ikasketak espainolez egiten dituzte eta betiko espainol egiten dira.

Euskal Herriko gazte askok unibertsitatera joan arte euskaraz egiten dute. Unibertsitatean erabat erdalduntzen dira.

Har dezagun, adibidez, Deustu Unibertsitatea.

Deustu Unibertsitatean asigaturetatik % 5 bakarrik irakasten dira euskaraz. % 100 espainolez. Urtero-urtero unibertsitate horretatik 3.000 bat ikasle ateratzen dira erabat espainoldurik. Horiek beren bizitza guztian espainolez egingo dute eta ondoan dituztenak ere espainolez egitera behartuko dituzte. Horiei euskara gehienez etxean haurrekin eta animaliekin mintzatzeko balioko zaie.

Hau da, euskaldunik gehienek erdaraz baliatzen dira garrantzi handiko kontuak burutzeko. Espainolez hobeki dakitelako.

Estudianteek unibertsitateetan eta goi eskoletan espainolez ikasten duten bitartean, euskara bigarren mailako hizkuntza izango da. Erdipurdiko hizkuntza izango da. Eta nori atsegin zaio erdipurdiko hizkuntza erabiltzea? Berriro esan dezagun: erdipurdiko hizkuntza erabiltzea, erdipurdiko gizona izatea da.

## Elebitasun adibideak: ingelesa eta espainola

Elebitasuna gertatzen den tokietan azpian dagoen hizkuntza kaxkarra da. Horixe gertatzen da, adibidez,



New Yorkeen espainolarekin. *Spanglish* deitu ohi dute. *Chicano* ere bai.

30 bat urtean uda New Yorkeen eman izan dut. Hona hemen han entzungo duzuen espainola:

No bromas, plis. Yo sé quién tú eres. Si aplican una aseguranza (seguro), favor de escribir claramente. Okei, iré con los marchin txus (marching shoes, botas), a chequear la boila (caldera) y las paipas (tuberías). El rufo (terraza) está liqueando (tiene goteras) pero es desusual (no es frecuente) y el silin (techo) cayó causando cinco decesos (muertes). El robo se cometió contra la joyería. El draiver (conductor) vestido con una suera (jersey) se trasportaba en una troca (conducía un camión). En la policía se reportaron las llamadas de un camerógrafo (fotógrafo) y de un vocero donde fue requerida una ayuda de urgencia. Decenas de muertos deja el terremoto. Los oficiales (funcionarios) se rehusaron a formular compleins (quejas) al tiempo (al mismo tiempo) en la corte (juzgado). Luego de su visita a New York se bebió un borel (botella) de uora (agua). Están en la búsqueda de una exitosa droga contra el EIDS (AIDS: SIDA). Yu nou (tú sabes), le darán un presente a realizarse en enero. Eskius mi (perdona), voy a vacunar la carpeta (limpiar la alfombra con la aspiradora). Usualmente (generalmente) antes de lonchear (comer) están pucheando (empujando) el carro (automóvil) en la yarda (patio). Tómallo con teik irisi (tranquilidad, take it easy). Eniuei (de todas formas) estás supuesto a taipear (escribir a máquina) las nuevas del turnamento (campeonato). El ordena patatas en todas sus comidas (He orders potatoes...). Artículo por (by: de) John Thomas Weeney. Clinton paralizó por un día sus vacaciones. Los corazones le pertenecían a sus fanáticas. Es una campaña de mercadeo (a marketing campaing). Los problemas estaban fuera del centro de escena (the problems were still there just off center stage). Esto ayuda a apuntar a un hecho de vida político (That helps point to a future political fact of life). El fue pronunciado muerto en la escena (He was pronounced dead at the scene: murió en el acto). La elección fue suficiente para levantar una ceja de extrañeza (the election was enough to raise a quizzical eyebrow). ¡Qué infiernos significa eso! (What the hell is that about?). La muerte de cualquier ser

humano me disminuye (any man's death diminishes me). El antisemítico odia a los judíos (the anti-Semitic hates...: el antisemita). He pedido solicitud por los pobres (I have pleaded concern for the poor). El llamado a la vocación política (su vocación política) se hizo irresistible. La estadía (estancia) en Rethfarnham fue momentánea. Mientras miraba televisión (while I watched television). Está esperado a vivir (He is expected to survive: Se espera que sobreviva). Hay que educarnos en controlar voluntad humana. Parecería que todo consistiría en la educación. Viola los derechos a sus semejantes. Tiene que enfrentar un clima de miedo. Puede suceder, donde sea que poblaciones son reconstruidas. Ha sido detenido por supuestamente haber herido a un policía. Festejan el que consideraran una hazaña del tenis femenino. Ahora está bisi (ocupado). Es muy nais (simpático). Comencé a paniquear al publicitar el libro. Está lloviendo perros y gatos (It's raining cats and dogs: a cántaros). Le mataron por ninguna razón (for no reason: sin razón alguna). John Wilson, pasado presidente de la universidad (past president: ex-presidente). Cuídese (Take care). Bai (Adiós).

Honatx egunkarietan irakurtzen diren tituluak. Ingeles tituluak kopia dira.

Presidente enfrenta crisis - Revista invadió privacidad de ex Beatle - McGwire impone marca de jonrones (bate la marca) - Añaden nombres de asaltantes - Ratifica Supremo acto de detención - Repulsión contra violencia - Concierto en vivo: Live concert - Problemas en la arena política (...in the political arena) - El insulto personal en la cara (in-your-face, personal insult) - Eventos comunitarios (Community events) - Cercamiento del presidente a la gente.

Entzun zer dioen Margot Arce-k Puerto Ricoko espainolaz:

Dieciocho años de quehacer diario con el español nuestro y de atención intensa a lo nacional nos han convencido de que esa influencia (la del inglés) nos afecta mucho más allá de las superficies del vocabulario o de la sintaxis. La expresión oral y escrita se ha empobrecido y entorpecido mucho, la sensibilidad para percibir matices de significación se ha debilitado: escuchamos a nuestro alre-

dedor una lengua monótona, sin viveza, casi estereotipada (*Impresiones. Notas puertoriquenas*, 1950, 139-140 or.).

Eta Samuel Gili Gaya-k bere aldetik:

Reiteradamente hemos dicho que la adopción de cierto número de vocablos extrajeros no afecta a la estructura de las lenguas. El léxico es movedizo por naturaleza, y las palabras que entran y salen sin cesar del uso común no dejan, en general, huella duradera en la forma interior del idioma. No podemos decir lo mismo del barbarismo gramatical, porque, si se generaliza, acaba por atacar la raíz del pensamiento lingüístico (*Nuestra lengua materna*, 1966, 45 or.).

Rafael Lapesaren ustea ere jakingarria da:

(...) la mediatización del «vernáculo» se manifiesta no sólo en la abundantísima entrada de vocablos y giros expresivos anglo-americanos, sino, lo que es más grave, en el calco de estructuras sintácticas (*Transculturación e interferencia lingüística en el Puerto Rico contemporáneo (1898-1968)*, 9 or.).

Ingelesaren eragina gramatikaren alor askotan suma liteke.

## Adjektiboen alorreko eragina

Gili Gayak ingelesak Puerto Ricoko espainolaren baitan izan duen eragina aztertzean, hauxe salatzen du: «el empleo anómalo y redundante de los adjetivos posesivos» (Samuel Gili Gaya, *Nuestra lengua materna*, 1966, 101 or.).

- El se lavó sus manos.
- Me duele mi cabeza.
- Metió su mano en su bolsillo y sacó su pañuelo (He put his hand into his pocket and took out his handkerchief: Metió la mano en el bolsillo y sacó el pañuelo).

## Izenordekoen alorreko eragina

- La consecuencia que de esto se deriva es una muy importante (...is a very important one: La consecuencia que de esto se deriva es muy importante).

- El plan aprobado parecía uno demasiado costoso (...seemed to be a very expensive one: El plan aprobado parecía demasiado costoso).
- La situación es una de suma importancia (...a very important one: La situación es de suma importancia).
- Yo ya sé tú quién eres, ¿Cómo tú te llamas?, ¿Dónde tú vas? ¿Qué tú piensas?

## Aditz sintagma alorreko eragina

Sarritan entzungo dituzu horrelakoak: dició (dijo), tradució (tradujo), hubieron muchos hombres, hacen años que murió, habrán discusiones. Mi salario compara con el de Estados Unidos (My salary compares with...: Mi salario es similar al que se paga en los Estados Unidos). El está supuesto a venir (He is supposed to come). Esto hace sentido (it makes sense: esto tiene sentido).

Beste adibideak:

- Esto hace una diferencia en mis planes (That makes a difference in my planes: Esto cambia mis planes).
- Te estás creciendo el bigote (You are growing your mustache: Te estás dejando el bigote).
- Hay que darle pensamiento a eso (We have to give it some thought: Hay que estudiar el problema).
- Hay que darle seguimiento a su petición (...to follow up: Hay que tramitar su petición).
- El desarrolló un asma (to develop an illness: Sufrió de asma).
- El comunicado emitido por el Señor Montaner lee como sigue (reads as follows: El comunicado del señor Montaner dice lo siguiente).
- Alberto es 20 años viejo (...is 20 years old: tiene 20 años).
- Nadando es buen deporte (Swimming is a good sport: Nadar es un buen deporte, la natación es un buen deporte).
- Le envió una caja conteniendo libros (...a box containing books: una caja de libros o que contenía libros).
- Se quedó allí haciendo nada (...doing nothing: Se quedó allí sin hacer nada).

- Es un profesor haciendo 10.000 dólares (...a profesor making 10.000: ganando...).
- Tiempo bueno con algunos aguaceros ocurriendo en la noche (...some showers occurring...: ...con algunos aguaceros por la noche).
  - ¿Qué pasó? (What happened?: ¿Qué ha pasado?).
  - El problema es presentado (The problem is presented: Se presenta el problema).
  - Le estamos incluyendo (We are enclosing: Le incluimos).
  - La asamblea estaba siendo clausurada ayer (The assembly was being dismissed yesterday: ...se clausuraba ayer).
  - Está al llegar (He is about to arrive: Está por llegar).
  - Para conocimiento de las personas concernidas (To whom it may concern: A quien corresponda).
  - Debería usarse por todos (It should be used by everyone: Todos deberían usarlo).

## Adberbioen alorreko eragina

Espainolez adberbioa eskuarki aditzaren atzean ipintzen da. Spanglishek okertu egiten du berezkotasun hori.

- Los invitados habían pronto llegado (...had promptly arrived).
- Les habían cortesmente invitado (...had courteously invited them).
- Si hubieran rápidamente salido (If they had quickly left).
- El ha cordialmente invitado a su amigo (He has cordially invited his friend).
- ¿Cómo te gustó la película? (How did you like the film?: ¿Te gustó la película?).

## Idazleen kasua

Ez da sekula ongi idatzi duen elebidun idazlerik izan. Eta idazle *bat* elebidun izatea zail bada, herri osoa ezinezkoa.

Lau idazle dira arlo honetan aipa litezkeenak. Nola-bait ere *elebidunak* izan ziren: Conrad, Navokov, Beckett eta Koestler. Idazleotan guztiotan hauxe ikusten dugu: beren haur denborako hizkuntza edo lehengo hizkuntza utzi zutenean, beste bat hartu zutela eta horretaz gailendu egin zirela. Ez zuten bi hizkuntzez denbora berean idatzi.

Teodor Josef Konrad Korzeniowski (1857-1924) Ukrainiako poloniarra zen. 20 urtera arte ia ez zekien hitz bat ingelesez. Gero, ordea, ingeles itsasontzietan harat-honat ibili zen eta ingelesez idatzi zituen bere eleberri ospetsuak, *Lord Jim*, *Typhoon*, *Nostromo*...

Nabokov, Vladimir (1898-1977). San Petersburgon sortu zen. 1918an alde egin zuen Errusiatik eta Europako zenbait naziotan bizi izan zen. Hasieran errusieraz idazten zuen. 1940an EEBBetara aldatu zen, baina, eta ordudanik ingelesez bakarrik idatzi zuen. *Lolita*-k (1955), batez ere, oso entzutetsu egin zuen.

Samuel Beckett (1906-1989) Dublinen jaio zen. Aurreneko literatura lanak ingelesez idatzi zituen. 1938an Frantzia gelditu zen eta 1953tik aurrera frantsesez idatzi zuen. Beraren *En attendant Godot*-ek munduko literaturan goiko maila iritsi izan du.

Arthur Koestler (1905-). Judu hau Budapesten jaioa zen. Bitan aldatu zuen hizkuntza: hungariarez idazten zuen hasieran. Gero alemana erabili zuen eta azkenean ingelesa. Bere libururik arrakastatsuena, *Darkness at Noon* (1941), ingelesez idatzi zuen eta handik aurrera Shakespeareren hizkuntza erabili zuen.

Berriz esan behar dugu. Ez dugu ezagutzen bi hizkuntzez idatzi izan duen idazle handirik. Nahiko lan ematen du hizkuntza batez ongi idazteak.

Ez dugu batera ziklista eta futbolista puntakorik izan den pertsonarik ezagutu. Ez eta aldi berean bi hizkuntzez estilistikan goi mailara igo denik.

## Diglosia euskal idazleetan: Bernardo Atxaga

Erdararen eragina euskaraz entzutetsu diren idazleengan ere suma liteke. Guztiok maite eta aintzakotzat dugu

Bernardo Atxaga: azter dezagun gaingiroki beraren lan txiki bat:

*Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*

5 or. «bi egunetako tartearekin»: «bi eguneko» esan dute beti gure gurasoek Gipuzkoan eta Bizkaian.

- «city amerikano honetan»: amerikano city honetan. Zazpi probintzietan jentilizioa substantiboaren aurrean ipintzen dute: israeldar gizona (Leizarraga), azpeitiar gizona (edo Azpeitiko gizona), zeanuritar gizona, xiberotar gizona. Txirritak: «Frantses euskalduna». Izen propioekin bakarrik erabiltzen dute baserritarrek atzean: Pedro azpeitiarra.

- «dolar bat eman nion sari bezala»: dolar bat eman nion sari edo saritzat. Erdararen eragina: «*como* recompensa».

6 or. «galdetu zidan (...) english dotorean»: english dotorez. Paradigma zuzena «euskaraz hitz egin» da, ez euskaran. Horrela zioen Leizarragak eta egungo eguneko baserritarrek. Leizarraga: «Apostoluak lenguaie arrotzez mintzo», «lengoage propiaz mintzatzen», «gure lengoagez mintzatzen» (*Apostoluen eginak II*).

- «english kaskarrea»: english kaskarrez.

- «*oraindik* baneukala»: *artean* baneukala. Horrela esaten dugu giputzok eta bizkaitarrek ere bai. *Oraindik*, ordea, oraindirako bakarrik erabiltzen dugu: oraindik badaukat.

8 or. «artzai guztiak urtean behin egiten genuen festara»: «guztiok» hobeto.

- «Horixe gara artzai *guztiak*»: hobeki «guztiok».

- «hasiera batetan»: espainolaren itzulpena: en *un* comienzo. Gure gurasoek (*h*)*asieran* (Errezil eta Goierriko zenbait baserrian (*h*)*aseran* eta sortaldean haspentan, hastapenetik, hastetik...).

9 or. «*nire* semeak koskortuz zihoazen»: *gure* semeak. Horrela esaten zuten gure gurasoek.

- «*Ene* herrian bizi izan nintzen *artean*»: *Geure* herrian.

- «hortxe dauzkat *nire* mimosak eta *nire* arrosak»: hortxe dauzkat *neure* mimosak eta *neure* arrosak. Erreflexiboak horrela esan ohi dira. Horrela Leizarragak eta Axula-

rrek beti. Horrela egungo egunean toki askotan, eta bizkaieraz mintzo den eskualde guztietan.

12 or. «larogei urtetara ailegatzeak»: urtera (Gipuzkoa osoan eta Bizkaia osoan).

14 or. «nire errain irlandarraren izena»: nire irlandar (1) errainaren (2) izena. Horrela esaten dute zazpi probintzietan.

- «Ez dudala ezer kontatu nahi *nire* bizitzaz»: *neure* bizitzaz.

- «handik haur *bezala* atera zelarik»: erdarazko *como*: handik artean haur zela atera zelarik; edo handik haurtzaroan atera zelarik.

17 or. «Bere aita bedeinkatua»: Beraren aita... Bizkaieraz eta mugaz bestaldean ongi bereizten dute: «Amak *bere* semea maite du. *Beraren* (*haren*) ahizpak ez».

- «Old Martin *andregaitu* egin al zaigu edo zer?»: gizona *andregaitu* egin al liteke? «Andregaia egin, andregaia bilatu, andre hartu du» esaten dute euskaldunek.

18 or. «english kaskarrean *defenditu* egiten naiz»: english kaskarrez. Euskaldunek, zein tokitan den, horrela esaten dute: «erderia ere lardaskatzen du, murduskatzen du, saltsatzen du, erdaraz bar-barka egiten du...».

- «Zergatik ez dun ekartzen *hire* ahizpa hori»: *heure*.

- «Nola ez dit hori kontatzen —galdetu *nintzen*»: galdetu nion *neure* buruari edo egin nuen *neure* baitan...

- «Lana elkarrekin egiten genuen, mendian, basamutil *bezala*»: erdararen kalkoa: *como*: ...mendian, *basamutil*. Maisu dago Idiazabalen. Goizuetan mediku dago.

24 or. «hamabost pauso *ematen* genituen»: ongi dago. Iparraldekoek oso ongi: hamabost *urrats* egiten genituen.

- «Ba akaso hori esango luke, baina bai ederki *okertu* ere»: «equivocarse» esateko non esaten da *okertu*? «Oker ibili», «oker egon», «oker pentsatu» entzuten da baserrietan.

25 or. «*Nire* aita zenak»: *Gure*.

29 or. «Ez zuen batere balio nesketarako, nik baino gutxiago *oraindik*»: nik baino *are* gutxiago. Giputzok eta bizkaitarrek espainolezko «*todavía*» hiru modutara esaten dugu: 1. «Oraindik» oraindirako: *Oraindik* gaztea da. 2.



«Artean» iraganerako eta etorkizunerako: Gure ama hil zenean, ni *artean* ume koskorra nintzen. Zu ezkontzen zarenean, ni *artean* ume koskorra izango naiz. 3. Are, areago: Ni ona naiz; zu *areago*. Petra jatorra da, Olatz *are* jatorrago.

30 or. «Nik uste *apaiza* berak ere beldurra ziola»: *apai-zak* berak. Euskarak, gaztelerak bezala, ongi bereizten ditu «*él mismo*» y «*el mismo*»; «*él mismo*» denean, biok eraman behar dute ergatiboa.

40 or. «*nire* familian andreak beti izan dira egoskorrak»: *gure* familian.

• «askotan esan ohi diot *nire* semeari»: neure; ongien «geure» semeari. Erreflexiboa eta komunikatiboa.

41 or. «Boisera jaitsi eta bi urtetara»: bi urtera, giputzok eta bizkaitarrek.

• «nik fumatu egiten nuen, Iharrak berriz, *dantza*»: «dantzan» sarriago entzuten da.

42 or. «basoak tiraka eta horrela ibiltzen ginelako»: *el - karri* tiraka.

• «Eskatuz gero, azkar asko ematen zuten dantza»: baietz esaten zuten.

49 or. «neskei zuzendu zitzaien»: Se dirigió a las chicas. Erdararen itzulpena. Neskei mintzatu zitzaien.

50 or. «Hitz pare bat». Tokirik gehienetan horrelaxe esaten dute. Bizkaian hobeto: pare bat hitz. Bizkaian eta Gipuzkoan paradigma berean: dozena bat hitz, dozena bat berba.

56 or. «Izerdia *sortu* zitzaidan niri»: «izerdia atera, hasi, bota», entzuten da usuago. Goizuetako baserrietan «izerdia sartu» ere erabiltzen dute. Eta Baztanen «izerdia le(he)rtu zai» entzuten diet baserritarrei.

• «Iharrak ere egin zuen zerbait, bera zen *serioarekin*». Erdararen itzulpena dirudi: con lo serio que era él: «horen serioa izanagatik, izan arren, izanik ere».

• «Moztuta gelditu nintzen»: espainolaren itzulpena. «Quedé cortado». Iparraldean «Maturik gelditu nintzen» entzuten dut. Gure artean baserritarrek: «Zer esan ez nekiela gelditu nintzen», «Hitzik gabe gelditu nintzen».

57 or. «aitona hura *su batean* jarri zen»: sutan, sututa.

- «Inork ez ziola minik *egingo*»: minik emango. «Min hartu/min eman», esan dugu guk beti. Egia da Iparraldean «min egin» esaten dutela. Frantsesez, ordea, espainolez bezala, «faire du mal» (hacer daño) da.

58 or. «bere inguruan bildu ziren»: haren, beraren inguruan bildu ziren.

60 or. «amenazua *azaldu* behar izan zuen»: amenazua egin, amenazatu egin zuen.

- «jateko nahi nituen pudding txokolatego guztiak»: jateko nahi nituen txokolatego pudding guztiak.

62 or. «etsai amorratua zela oso aspaldi *batetik*»: oso aspalditik, aspaldidanik.

- «nire aldetik ibili nintzen»: neure aldetik ibili nintzen.

- «preparadore *bezala* hartu zuen gizona». Erdararen eragina: *como*: preparadore hartu zuen gizona.

64 or. «*kolpetik edade bat hartu* izan balute bezala»: derrepente, bat-batean, egun batetik bestera, kolpera zahartu izan balira bezala. Baserritarrei haxe entzuten diet: «Kolpera gaixotu zen: bat-batean» eta «Kolpetik (kolpea zela kausa) gaixotu zen eta sekula ez zen sendatu».

- «Beraiekin egon nintzen aurreneko berrogei bat *egunetan*»: *egunean*.

- «Eta askotan neroni izaten nintzen zurrumuruak bidean *jartzen zituena*»: *nituena*. Espainolaren kalkoa. «Yo era *el que ponía*». Paradigma zuzena euskaraz: *Ni* naiz hori egin *dudana*, *zu* zara hori egin *duzuna*, *bera* da egin *duena*, *gu* gara hori egin *duguna*...

\* Komeniko litzateke Iparraldean bezala, jarri/ezarri edo ipini bereiztea. Jarri pasiboetan ongi da. «Ezarri eta ipini» aktiboetan hobeki. Egia da Gipuzkoan ez dugula bereizten.

66 or. «udazkena hasieretan zegoen»: en los comienzos: udazkenaren hasiera zen, udazkena hasipenean zen...

68 or. «Sartzen da orduan Jimmy»: erdararen itzulpena. Baserritarrek: sartu da Jimmy, sartu zen Jimmy.

- «Nahiz eta frigorifikoan (...) egon»: *Nahiz eta* molderik espainolena da. Euskaraz konjuntzioak, atzizkiak... azkenean hobeto daude: ...egon arren, egonagatik.

72 or. «bost *minututan* hemeretzi (...) jasotzen zuela (harria)»: bost minutun.

• «Irabaztuna *aseguratua* [=tenía un seguro] zegoela pentsatzen zuten denek». Irabazlea nor izango zen jakin-ean zegoela..., nork irabaziko zuen bistan zegoela pentsatzen...

73 or. «*nire* semea»: hemen *nire* sobran dago. Esateko-tan: *gure* semea.

74 or. «Halere ez nion *nire* zelata egiteari utzi»: *Nire* sobran dago. Eta ipintzekotan, *neure*. Sarriago entzuten da «zelatan egon». Halere zelatan egotetik ez nintzen gelditu. Eskolatik gelditu da. Etxera joatetik gelditu da.

76 or. «Aitonaren pikardiak ukatzen zidan Iharraren marka jakitea»: ...galarazten zidan Iharraren marka jakitea. Aitonaren pikardiak zirela eta, ezin nuen Iharraren marka jakin. Aitonaren pikardiak zirela kausa...

77 or. «hire aita irlandar»: hire irlandar aita.

82 or. «builaka hasteko gogo izugarri *bat* neukan»: gogo izugarria.

86 or. «min haundia ematen diala hire bi lagunak hola ikustea»: ikusteak.

88 or. «Aberatsenak aukeratu nituen kontrario *beza - la*»: aukeratu nituen kontrario.

89 or. «nik *nire* irribarrearekin esan nahi izan niona: *neure*.

• «Iharrak aurreneko txandako *berdinak* egiten zitu-  
en»: txandako *berak*. Egungo egunean maiz nahasten  
dira *berdinak* (parecidos) eta *berak* (los mismos). Ikus Txi-  
llardegiren gramatika bikainak gai honetaz dioena.

## Bernardo Atxaga: ondorioa

Ikusten dugunez, Atxagaren lan bikain honetan ere batzuetan espainolaren eragina nabari liteke.

Honekin ez nioke Atxagari inongo meriturik kendu nahi. Artista da eta euskararen alde egin duen lan txaloga-  
rriarengatik euskaldun guztion onginahia ongi irabazia du.

Hauxe esan nahi dut. Erdarak alderdi askotarik ingu-  
ratzen gaitu. Diglosia gorrian bizi gara.

Eta ez da izan eta ez da sekula izango bi hizkuntzez ondo mintzatuko den herririk.

Euskal Herriaren hizkuntza euskara izango da ala espainola edo frantsesa. Eta aurrerakoan ere orain arteko bi-detik joanez gero, seguru baino seguruago azken biok bakarrik geldituko dira bizirik Euskal Herrian.

## Hizkuntzalariek elebitasuna gaitzesten

Miguel de Unamunok euskarari buruz batzuetan pellokeriak esan zituen. Jakin ere, gixajoak euskaraz erdipur-dika zekien. Hizkuntza modernoez ere gauza handirik ote zekien galde liteke. Alemanez bazekiela esaten zuen aho betean. Alemanekin elkartu, ordea, eta ez zen alemanez lau hitz elkar josteko gauza. Honatx euskararen kontrako beraren oinarrizko ustea: «(...) El vascuence, por su índole misma, no puede acomodarse a la vida moderna (...)».

Euskararen problema ez da beraren ezina edo mundu modernoan sartzeko dituen aldapak eta trabak. Euskararen problema euskaldunok gutxi izatea da. Gu, euskaldunok, txinoak bezala mila milioi bagina, euskara ez litzateke galduko.

Unamunok, baina, txepelkerien artean, egia borobilak ere esan zituen.

Eta egia borobilon artean hemen bat:

(...) El vascuence y el castellano son incompatibles, dígame lo que se quiera, y si caben individuos no caben pueblos bilingües; es éste de la bilingüidad un estado transitorio (...).

Honetan Unamuno zuzen-zuzen zebilen.

1998ko uztailaren seian Madrilen «XIII Congreso Internacional de Hispanistas» hasi zen. Kongresu horretan 1.000ren bat filologo, hizkuntzalari, kritikari, kultura gizon eta historialari elkartu ziren.

Hispanista horiek bigarren egunean Sorian batzartu ziren. Egun horretan atera zuten ondorioa *El País*-ek hizki larriz ekarri zuen (1998.VII.8): «Los hispanistas ven el bilingüismo como el mayor peligro para el idioma».

Asociación Internacional de Hispanistas-eko buru zen Agustín Redondok, La Sorbonne Nouvelle-ko irakasleak, garbi azaldu zuen kongresuaren asmoa:

enseñar y defender un idioma que representa a 400 millones de personas.

En estos momentos, anadió el presidente de los hispanistas, *el peligro más importante con el que se enfrenta el español es la situación del bilingüismo que se da en muchos lugares, ya que puede llegar a ser dominado por la otra lengua* (italikoz neuk idatzia).

Euskal Herrian elebitasuna erdaldun herrian sartzeko zubia da. Zubi horretan gaude orain: *diglosian*. Hurrengo urratsa denok espainolez hitz egitea izango da eta Iparraldean frantsesez.

Geure buruok engainatzen ari gara elebitasuna aldarrikatuz. Euskal Herrian espainola ala euskara garaile aterako dira. Biak garaile ateratzea ezinezkoa da.

Hona Katalunian UNESCOko Zuzendari den Félix Martí-k 1994an esaten zuena:

Sería deseable que el catalán fuera la única lengua oficial de Cataluña, porque *el bilingüismo es una forma de condenar a muerte a la cultura débil* (italikoz neuk idatzia, *El Diario Vasco*, 1994.VI.10).

Elebitasuna dela eta, espainolak eta katalanak kezkatuta badaude, guk nola egon behar dugu? Atera kontuak!

Euskaldunon jokabideak hauxe izan behar du: euskaraz egin behar dugu eta *ahal izanez gero ingelesez ikasi*, estranjeroekin (espainolekin eta frantsesekin, adibidez) berba egiteko. Hau egiten ez badugu, gureak egin du.¡

## Bibliografia

- Arce, Margot: *Impresiones. Notas puertorriqueñas*, 1950, 139-140 or.
- Ariztimuño, Jose de: *La democracia en Euzkadi. Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa*, Donostia, Erein, 1986.
- Baetens Beardsmore, Hugo: *Bilingualism: basic principles*, Clevedon, England, Tieto, 1982.
- Beaujour, Elizabeth Klosty: *Alien tongues: bilingual Russian writers of the «first» emigration*, Ithaca, Cornell University Press, 1989.
- Fernandez Rodriguez, Mauro A.: *Diglossia: a comprehensive bibliography*, 1960-1990 and supplements, Amsterdam (etc.), John Benjamins, 1999.
- Garate, Gotzon: *Erdarakadak*, Bilbo, Mensajero, 1988.
- Gili Gaya, Samuel: *Nuestra lengua materna*, 1966.
- Guamani, Roberto: *Saggi sull'interferenza linguistica*, Florentzia, Casa editrice Le lettere, 1981.
- Haugen, Einar Ingvald: *Problems of Bilingualism*, 1950.
- Instituto Caro y Cuervo (ed.): *Los semihablantes bilingües: habilidad e interacción comunicativas*, Bogota, Instituto Caro y Cuervo, 1996.
- Lapesa, Rafael: *Transculturación e interferencia lingüística en el Puerto Rico contemporáneo (1898-1968)*.
- Lehiste, Ilse: *Lectures on language contact*, Cambridge, Mass., MIT Press, 1988.
- Mackey, William Francis: *Bilinguisme et contact des langues*, Paris, Klincksieck, 1976.
- Overbeke, Maurits van: *Introduction au problème du bilinguisme*, Brussels, Labor, 1972.
- Pedraza, Pedro: *Rethinking diglossia*, New York, Language Policy Task Force, Centro de Estudios Puertorriqueños, CUNY, 1980.
- Pérez Sala, Paulino: *Interferencia lingüística del inglés en el español hablado en Puerto Rico*, Hato Rey, Puerto Rico, Inter American University Press, 1973.
- Roca, Ana; Lipski, John H.: *Spanish in the United States: Linguistic Contact and Diversity*, Berlin, Mouton de Gruyter, 1993.
- Sarasola, Ibon: *Euskara batuaren ajeak*, Irun, Alberdania, 1997.
- Silva-Corvalán, Carmen: *Language contact and change: Spanish in Los Angeles*, Oxford, Clarendon, 1994.
- Silva-Corvalán, Carmen: *Spanish in Four Continents: Studies in Language Contact and Bilingualism*, Washington, Georgetown University Press, 1995.
- Williams, James Dale; Snipper, Grace Capizzi: *Literacy and Bilingualism*, New York, Longman, 1990.
- Zentella, Ana Celia: *Growing Up Bilingual: Puerto Rican Children in New York*, Malden, Massachusetts, Blackwell, 1997.



---

# Gure poeten malkoa

b

K O L D O I Z A G I R R E

b

**S**entimentalkeria oso gaitz zabaldua da, eta ez nuke esanen —literaturzaleok haserretuko bazarete ere— osasungarria ez denik<sup>1</sup>. Negar egitea edo negarraren lekuko izatea nardagarria da maiz, egia da, baina uste dut artistaren kongruentzia nardagarri bat ere badela. Edo nahiago baduzue, patu barregarria. «E pois que cada tempo ten seu tempo / iste é o tempo de chorar», esan zuen Celso Emilio Ferreirok. Beti da negar-aroa ordea, poeta-rentzat. Arantzak egiten du eder larrosa. A, edertasunaren bila urratuaren odol tanta hori! Ez ote, funtsean, malurezko malko bat? Inoiz lorez betea egon ohi zen otartxo hutsa jasotzean, malkoa isurtzen zaio poetari, eta honelaxe aitortzen du: «Ari dut negarra». Ez du nolana hikoia, beraz, artista mota honek minberatasuna.

Lizardik malko poetiko asko isuri zituen, eta onartu beharko dugu noski denak ez zirela «ari dut negarra» esan beharrerainoko faltsuak izan. Maitearen heriotza, esaterako, gai «poetiko» izanagatik, semearenean ez bezala esperientzia errealean oinarririk ez zeukana, oso trataera desberdinez aurkezten digu «Mattasunaren illetea»-n edo «Etxeko kea»-n; amonarena lantzen duenean berriz, alde handia dago «Amona» izeneko hartatik «Biotzean min dut» ezagunera:

---

<sup>1</sup> Koldo Izagirre idazlea da. XX. Mendeko Poesia Kaierak bildumaren prestatzailea da.



Amonatxo bat bakarra daukat  
iñoiz ez lukena il bihar...  
Itzaltzen, baña, baidakust eta  
barrenak dagidat negar  
(...)  
Au neke latza!... Zergatik ete  
biyotzak dagidat negar?...  
Amonatxo bat bakarra daukat...  
Ene!... eta berak... il bihar!

Hasperen hori posea da, lantu artifiziala, sentimen-  
dua zinezkoa izan litekeen arren. Poesiaren gehiegiak,  
izan ere, kalte egiten baitio poesiari, eta poema hau ne-  
gartia da, malkoa ezkututzen du desmasiak. Poeta lanbi-  
dea ikasten ari da, 1925ekoa zen poema. Modu errealista-  
goan landu zuen gai bera bost urte geroago:

Ol bat yaso ta ikusi  
dut musu ximela:  
parre-antxa, bizirik  
balirau bezela:

(Ots!

Ots!

ler adi, biotz!)

ordun, ixar bat biztu  
du nere gau beltzak.  
Begioi malko ixil bat  
dardarka darite.  
Noizbait itxaro-kabi  
biur dan biotzak:

(Ots!

Ots!

yauzika, biotz!)

«Agur! (oiuka dio)  
gorputz ximur maite!  
Agur, amonatxoa!  
Egun Aundirarte!...»

\* \* \*

Biotzean min dut, min etsia,  
zotiñik-gabeko negar-miña.

Alatsu txoriak, uda-ondo,  
negua du galazi-eziña.

Abadiak antolaturiko Lore Joko haietako batean (Sara, 1867), «Ni nauk euskaldun, bai aspaldikoa / egundaino aizkorak ezin hautsizkoa» esanarazi zion Elizanburuk arbola bati. Lizentzia honek sortu zuen galarrotsik, epaimahaiak behintzat juzku estua egin zuen konposizioaz, zuhaitzek ahorik ez dutela-eta. Poesiaren librotasunaren aldeko borrokak —Vinson gerrilari bakar— itxura formala hartu izan du maiz, baina formaren ardurapean poesiaren funtzioaren nolakoa dago beti, eta horretan berebiziko garrantzia ukan zuten Xabier Lizardiren jarrerak eta obrak, ingurune hiperpolitizatu batean beti jokatu zuelako poesiaren autonomia begiratzearren. Horrela, olerkariak mende erdi eta gehiagoan ezin egin izan zutena burutu zuen Lizardik: «bezala», «iduri», «antzo», «hala» moduko alderagailuak eta gidoi-parentesiak baliatuz, gure poesiaren garapena azkartzeko baitezpadako tresna eman zigun: analogia poetikoa.

Gure poetaren aurkikuntza horri esker dakigu orain udaberria urdinez janzten den neskatxa dela; elurtzaren hondarrak «emazte zuhurraren zapiak» direla; basoa «atsedenaren eliza» dela eta uda «suzko itsasoa», eta hura dugula «uda igarotzeko ontzia»; izotz ondoko eguzkia «neguaren barrea» dela eta «neguak bere sudur ospeldu zorrotza» sartzen duela gure etxean... Aurkikuntza xalo eta partzial hauek bideratu zuten poeta, apurka, adierazpen ausartagoetara: «Aingura bota dut Arratsaldean / Oina ezarri dut Udazkenean.» Iruditeria mailako lorpenok, alabaina, ez zuten poeta errazkerian mugatu. Orixek aholkatu moduan beti goragoko asmoz, bere poemek gero eta distira partzial gutiago dute, metafora baliabide tekniko bezala ulertzetik poema bera metafora handi bat bezala lantzerako jo baitzuen, amonaren heriotzaren trataerak, adibidez, frogatzen duen bezala: «Biotzean min dut» eresitik «Asaba zarren baratza» eta are «Euskal Pizkundea» poema sinbolikoetara dagoen aldeak adierazten du poetaren eboluzioa.

Otañoren malenkonია ukatu zuen Orixek, eta Amerika hartu zuen ziegatzat, bere barrenekoak entzuteko. Otañok, izan ere, egiten ahal zuen amets Euskal Herri jator batekin, presabiniano, euskaldun, baserritar, eternoarekin. Egia da «Zazpiak Bat» izeneko poema egin zuela, egia da semeari aizkora eskuan hartu eta indarka hasteko esaten diola galdutako foruei eginikoan, baina funtsean ez du beste Euskal Herria bat amesten, eta ez da zapaldu bat, subjektiboki. Orixe zapaldu handi bat da, ezin du malenkonian aterbetu, atzean uzten duena herri baten suntsimendua izan da, eta urteetako alferrikako lan bat, maila pertsonalean. Bi polo horien artean, «Amerikako pampetan» eta «Amate baten itzalpean» poemek hartzen duten mende erdi horretan eta biek ere ordezkutzen duten jarrera guztiz kontrajarri horien artean kokatzen da, nolabait, exilioko poesia.

Hiru izen nabarmenduko nituzke nik exilioko poetak bezala: Monzon, Etxebarria eta Zaitegi, eta azken hau hartuko nuke exilioak, exilio politikoak alegia, sorrarazi ohi duen poesiaren egile eredutzat. Utzitako lurraldearen deia, hizkuntzaren hotsa, galdutako lagunak, urrundutako zapore, hotz-bero eta koloreak, herrimina, malenkonია, etorkizun libre baten ametsa... inondik ere, poeta exiliatuen prototipoa izan genuen Nazim Hikmet-en gaiak dira (Arestik itzulitako *Lau Gartzelak* hartan baino hobe ikusi genitzakeenak *Lanbide gogorra dela erbestea* izeneko bilduman). Horiexek dira Iokin Zaitegiren gaiak ere.

#### EUSKEL KANTA ATZERRIN

Euskalherri laztana, nire pake-giro!  
Gogoz beintzat, zugana banator berriro.

Oi! urrezko atedun amets-baratz urdin!  
Andre Poesi lagun, natortzu errimin.

Begiak malkoz lauso, biotzak poz-dardar...  
ta erriko bidaso buruak darakar.

Atzerrin dut iauregi, txabola txikarra.  
Nire goseran ogi, begien nigarra.

Erri, zure gomuta niregan gau t'egun:  
zurekiko apeta orain dut ezagun.

Begitan zaitut eder, izar antzo dirdai:  
gogoz bazterrik bazter ari nauzu aznai.

Nire aitak matsondoaz apain zun leioa:  
makur adar-iarioz dan txermenondoa.

Saroi itzaltsuenean dago basetxea:  
mendi barrutietan esirik larrea.

Gazteak inularrez maite duten dantza:  
alai baseliza-aurrez dager enparantza.

Ioale ots ezauna urrundikan dantzut:  
iduri aur bakuna, nauzu belarri-zut.

«Txirikiti-txainia, biar igandea:  
Ai nuke kantaria, nire tripa ase».

Gau-ametsaren zeru! Sagastian nabil...  
Bai zutela ao-keru, sagarrak nire urbil.

Zure ilerrin bederen, biar edo etzi.  
ai nuke gentza-atseden, gurasoen erri.

Beti erbestean idatzi zuen poesia Zaitegik. Gazte zelarik ere, ikasketak amaitzen ari zen Belgikatik igorri zizkion bere zirriborroak Lizardiri. «Olerkari-arnasa izanik iruditzen zait lanari ez diozula ekiten behar adina astiz, bihoztzean dezuna lasterregi jalgitzen dezula, hots, neurtitza aski landu gabe, bixitu gabe». Lizardiren diagnostikoa zuzena zen hagitz; esan liteke gerora ere Zaitegik ez zuela bere poesigintza behar adina landuko, gogoz ekin zion arren. Ia beti isurtzen zaio prosaismoren bat, eta gaia lantzeko erak askotan dauka artifizialtasunetik. Zaila da sorteriaren nostalgiaz topikoetan ez erortzea, eta esanen genuke horretan oinarritzen dela, hain zuzen, erbesteratuaren gaitza: iragana du etorkizun. Iokin Zaitegik dotoreziaz, goi-asmoz eta neurtitzetan zenbait berrikuntza ekarritz pairatu zuen gaitz hori.

Poema horretan neke handirik gabe atzematen ditugu Lizardiren eraginak poesiaren pertsonifikazioan eta aditz trinkoen erabileran, barbarako, baina batez ere poetak begiak lauso, malkotan edukitzeak, dakarkigu Lizardi akordura. Bai, sentimentalkeria hori ere Lizardiri zor dio gure poesiak, eta poeta berez malkontzi hutsa delako us-

teak baluke arrazoirik Salvatore Mitxelenaren formula eder hura irakurrita, «zeinen ederra den olerkaritza / biotzak min duenean!». Aipatu behar ote dugu hasperen honen iturburu testuala? Prefosta, Lizardiren obra osoa laburbiltzen da hor.

Lizardiren eragina luzea eta sakona izan zen, huraxe baitzen erreferentzia nagusi eta baliagarri bakarra gerraondoan hemen, barne-exilioan, idazten hasi ziren poetentzat. Lekuona gazteak ere, gazteago zenean, Lizardiren eraginpean idatzi zituen bere lehen poemak. Sozial-errealismoaren eragina ukan zuen gero, existentzialismoak kutsatu zigun ondoren... baina ez ziren, haatik, noraezean eginiko ibiliak. Sortzaile kontentagaitza estiloan, Lekuonak aitortua du ez dela idazteari lotzen «luma berritu zaiola nabaritzen ez duen bitartean». Egia da, testua obra estetiko konplutua bezala aurkeztu izan digu beti. Bere poemak, eta baita liburuak ere, sistema koherenteak dira, perfekzio batean eskaintzen zaizkigu. Horregatik ez da Juan Mari Lekuona epigono izan inoiz, ibili den eremuetan. Ez du lizardismorik egiten, ez aretismorik. Edonoizko fase-takoak direla, inkonfundibleak ez ezik balio absolutuko poemak ditugu bereak.

Errota zahar maitea,  
uraren ertzean.  
Uraren ertzean ta  
basati beltzean:  
Negar egiten duzu  
alea txetzean.  
Ni ere triste nabil  
zutaz oroitzean.

Zotin sekua dagi  
errotarriak.  
Itzalitako izar-distirak  
dira niretzat zure begiak.

Izar eder bat dago  
hor goiko lepoan.  
Errota zaharra, berriz,  
errota zokoan.  
Berebiziko pena

badaukat barruan:  
Ezin gintezke bizi  
elkarren ondoan.

Bizitza-legea  
nahi dut onartu.  
Horrela beharra  
koraiaz hartu.  
Berez dihoana  
zertan behartu?  
Nigan, ordea,  
ez nauzu fio;  
nire ahalmenak ez du balio.  
Sentitzen badut  
berriz haren kanta  
(errotaren tranka)  
barne-minduraz nagoke berriro...  
Errotaren oihuz  
maluraz nauzute.  
Zigor hau nirekin  
izango dut beti  
hiltzen naizen arte!

Lizardiren «Zuaitz Eroria», Lauaxetaren «Langile eraildu bati», Lekuonaren «Errota zahar», Miranderen «Zakurhila»... oro har, erori, kolpatu edo suntsituaganako atxikimendua nabari dugu guztietan, badirudi poetek barneratua dutela derrota kolektibo bat, alegoria desberdinetan kantatzen dutena... Aspaldiko kontua da Elizanbururen «...aizkorak ezin hautsizkoa» hura. Epikotasun lorios betetik urrunduta, suntsimendu baten zantzuak kantatzen dizkigute XX. mendeko poeta gailenek. Derrotaren kontzientzia honek ez garamatza ordea malkokeriara: poetak askatasun egarri handi batean kantatzen du «hegoak ebaiki banizkio...». Hain zuzen, «txoriñoak kaiolan tristerik du kantatzen...» horren ondorio eta erreazio dugu, poeta ez baitago jadanik kaiolan, ez da identifikatzen ez zuhaitzarekin, ez langile erahildurekin, ez zakurrarekin, kanpotik ari da —derrotatua baina biktimismorik gabe— eta gorazarre egiten dio eroriari, hari zuzentzen zaio, memorian jasotzen du, bere poesia ez baita lanturako, malkoa isuriko duen arren. Irakur dezagun berriro Lekuonaren poe-

ma: errotaren oihuz —interpreta bedi oihu ezaren oihuz—  
maluretan den arren, «bizitza-legea nahi luke onartu», eta  
aitorpen horrek darama gero Porlandi-ra:

Baina utz dezadan  
artzain bizitza ezti,  
baserri birako  
bakezko barruti.  
Mindura berrian  
kanta nahi dut beti.  
Min dut egiazki.  
Baina hobe dugu  
gauza asko galtzea  
eta ez pobreak  
goseak hiltzea.

Poeta malkontzia izanen da, baina ez negartia. Are  
gehiago, negarretik malkora dagoen bilakabidea da gure  
lirikaren eta are gure poesia moderno osoaren garapena.

Zuaitz bat, urtezua, lurrera botea...  
Zaarra izanagatik bazun ark osasun betea!  
Ondoan orra agiri, zornak ezotua,  
aizkora ankerraren ebaki sarri-berritua.

Ererikoan lurraren kontra hautsi ez diren adarrak ze-  
rurantz luzatzen ditu erruki eske; zuhaitz lagunak dar-dar  
batean daude, lurra nahigabez, haizea zinkuruz, ihes dagi-  
te txoriek... Amiltze honen deskribapenaren ondoren, es-  
ker gaiztoaren parabola bat garatzen du Lizardik, gizakia-  
ren ezinasearen alegia bat zehazki taxuturiko laukoetan;  
azkenik badatoz idiak, itzainak kate bat lotzen dio, zerra-  
ren hotsa entzuten da urrunean...

Baaramakete, eraman, zuaitz eroria...  
Errukia garaituz, betor nerekoikeria.  
Baaramakete, eraman!, bestela mendia  
ezpainikek gehiago begiaren pozgarria.

Badaramate zuhaitza noski, eta adarrak kenduta en-  
borra emanen diote zerrari, ez zaigu besterik esaten. Lizar-  
diren poema Arestik jarraitu zuen, dokumental beraren  
hurrengo sekuentzia balitz bezalaxe.

Aleman barkua atrakatu da Zorrotzan.  
Zimentua dakar, ehun kiloko sakoetan.  
Bien bitartean  
Anton eta Gilen zeuden  
zerrarekin  
tronko hura erdibitzen.  
Sokarekin...  
Eztago kablerik...  
Bestela...  
Tira eta tira,  
Orain Anton,  
gero Gilen,  
eznaiz hilen,  
Gilen.  
Hemen euskeraz  
ta han erderaz.  
Birao egiten zuten.  
Okerbideak ezpaitaki mintzaerarik,  
berdin tratatzen baitu  
erdalduna  
eta  
euskalduna.  
Arbolaren neurriak hartu nituen.  
Antiojuak bustitzen zitzaizkidan.  
(Amak gauean pentsatu zuen errekar  
erori nintzela). Eta esan nuen:  
*Beti paratuko naiz  
gizonaren alde.*  
Gilen.  
Anton.

Ikusi duzuen moduan, Lizardiren poema irauli egiten du Arestik, eta ez nagusiki ruralismoa gaindituz zuhaitza Zorrotzako portura ekartzen duelako; hori, garrantzitsua izanagatik, bigarren mailan ezarriko nuke nik. Poema bietan metafora zuhaitza da, baina Arestiren begiak ez du naturan pozgarri, gizakiari erreparatzen baitio lehenik, horixe da batetik bestera dagoen koska ikaragarria. Lizardiren poeman «aizkora ankerrak» bota du zuhaitza; itzaina keinu tragiko bat diseinatzeko baliabidea besterik ez da; lana bazegoen, langilerik ez. Arestirentzat zuhaitza lanaren metafora da, ankerkeria ez dago zerran, baizik eta



langileei eragiten zaien izerdian. Lizardik urrunean entzunarazten digun zerra-hotsak zirrara sentimental batez durduzaten gaitu, zerrautsak errautsa ekarki gogora... Arestik ez digu zerraren hotsa entzunarazten, trontzalarien biraoak baizik, handik Anton, hemendik Gilen, biak berdin madarikatzen... Eta eszena horren aurrean, Lizardiren kontenplazioa ukatzen du Arestik, ikusle pasibo izate-tik poemaren zati izatera ematen du urrats poetak, enborraren izariak hartzen ditu okerbidearen handia neurtzeko. Pauso horretan, sinbolismotik errealismora dagoen alde iragaten du euskal poesiak, mende honetan gure poesiak ezagutu dituen iraultzetarik bat ekarriz.

Neurtzerakoan antiojuak bustitzen zitzaizkiola esaten digu poetak. Negar egiten duela ulertzen dut nik, gizonaren ahuleziaren eta lanaren handiaren arteko desorekak amorratuta, inpotentziak gainez eginda. Malkoa isurtzen zaion aldi bakarra du ia bere obra osoan, eta zeharbidez aitortzen digu, ahalke da, ez du lirikotasun merkea egin nahi edo sentimentalkeria baliatu. Lizardik zuhaitzogatik egiten du negar, gizaki abstraktuagatik; Arestik izenak eta izerdiak ezagutzen dizkien gizakiengatik egiten du negar, gizon konkretuaren alde dagoelako: Anton, Gilen.

Arestik modernotasun bat ekarri zuen *Harri eta Herri* obrarekin, bistan da: negarra desagertu egiten da, malkoa txukatzen du, esan liteke poetak debekatu egin nahi duela lantua, kontestaziorako, salaketarako duela poesia.

Esanen dute  
hau  
poesia eztela  
baina  
nik  
esanen diet  
Poesia  
mailu bat  
dela

Horra definizio arestiarra berez definiezina omen den arterako. Irakurri batean sinplista dirudien ozarkeria hau onuragarria gertatuko zen gure poesiarako. Jokin Apalategiren *Burnitik* poema liburuaren portada gorazarre inplizi-

tu bat izan zen, I letraren ingudean jotzeko mailua da esku batek eusten duen T letra; mailuaren forma hartu zuen Artzeren poema bisual ezagunenetakoak; Ibon Sarasolak omenezko interpretazio formalista bat egin zion: «mailu guztiak poesia dira, baina ez poesia guztiak mailu»...

Azalean baino ez da xaloa definizioa. Huts larri bat egingen dugu mailuari, esate baterako, harria bera kontrajartzen baldin badiogu. Errazkeria da hori, benetako poesia iraintzen duen ebidentzien eremua. Irudi hori, bestalde, Iokin Zaitegik baliatua zuen lehenago, «Argin zarra» poeman:

Erriko arrobian  
ari nauzu argin,  
etengabe diardut  
gau ta egun... ekin!  
nekeak leporatuz  
biotz-eskuak min,  
nere amets ederra  
egi biur ledin

Arri mokorrak artu  
ta, gogoa larri,  
nere bizi osoa  
barren diet iarri:  
arpikoz iardun oi dut  
buru ta belarri  
gai zakarrok itzuli  
nairik izar-arri

Poema definitorio hartaz gain *Harri eta Herri*-n mailua aipatzen duen bakarrean, «Kantabriako itsasoa kolpeka jotzeko» darabil Arestik. Ez dezagun, beraz, poetak hitzari eman dion balioa makestu, mailuak goragoko zerbait adierazten du. Estetika obrerista baten aldekoa dirudien deklarazio honek badu barnean egia sakon bat. Ez du agintzen nolakoa izan behar duen poesiak, honen izaeraz eginiko hausnarketa baizik ez da. Mailua lanabesa baita, poesia tresna da, ez helburu. Honenbestez, Arestik trenkatu egiten ditu «arteak arte alde» leloaren hari ugariak, zertarako bat daukalako da poesia baliabide. Gabriel Aresti idazle fundazionala egiten duten osagarrietako bat dugu hauxe. Mailuaren sinboloaren bitartez, euskal poesia au-

tokontzientziara iristen da, bere burua definitzen ausartzen da. Aitor dezadan, niretzat behintzat, harako «etorkizunez beteriko arma» kurtsi samar hura baino bortitz eta baliagarriagoa egiten zaidala bere biluzian, edozein joera literario hautatuagatik.

Alabaina, gure poesiak arbolaganako errukia gizonaganako maitasunaz eta honen aldeko borroka aldatu zuen arren, malkoak badu halako indar misteriotsu bat poetari idaztera eragiteko, poeta hori «poeta errealista» izanagatik, beharbada poesia ez delako espiritu hiperminberen terapia bat baino. Kasu hau dateke, besteak beste, Manex Erdozaintzi-Etxartena. Poesia ez zela bakarrik sentimendu bat, tripako mina ere bazela, borroka baten elea, defendatu zuen gure poetak. «Iragana eta geroa orainean lotu nahi lituzkeen amets bat» du poesia, bakoitzaren bizitzeak dakarren tirabiraren gunea, eta honen hitza. «Poesiak ez du buru-buztanik, baina ez da gezurtia.» Ezta dolamen kantua ere, baizik eta «bere kuskutik ateratzen ari den langile gizarte baten elea.» Hitzok estu hartuta, iritzi okerra aterako genuke Erdozaintziren poesiaz. Itxaro Bordak ongi ikusia duen moduan, Erdozaintzi saiatzen da Iparraldeko kutsu erlijiozko poesiaren eta Hegoaldean garai horretan idazten zen poesia sozialaren artean bide liriko desberdin bat bilatzen. Presuner ohien frantsestasuna madarikatzen du eta herriaren izerdiaz liluratzen da, egia da, baina bere poemak irakurriz ikasiko dugu, hala berean, nola kanta primadera bihotzean edo zein hasperen egin izarrei beha.

Gau bilduan  
Nigar bat ixuri nuen  
Izen baten gainean...

Bizitzaren adin borobilduan:  
Akidura eta higadura  
Joaten zaizkidan urteen nostalgia  
Urrunean galtzen diren oroitzapen higatuak  
Bizitzaren adin borobildua!

Gau bilduan  
Nigar bat ixuri nuen  
Izen baten gainean...

Nigar bat  
Tristeziaz betea  
Oroitzapen higatuen nigarra!

(...)

Izen ahantziak lerro-lerro  
Izen ahantziak beren bizitasunean  
Goiz hontan gogoratu zaizkit  
    Berriro  
    Atzartzean  
    Izen ahantziak lerro-lerro  
Izen ahantziak beren saminean  
    Goiz hontan piztu dizkit  
    Suak  
    Eta gogoratu zaizkit  
Berriro...

    Gauaren suan  
    Nigar bat ixuri nuelakotz  
    Zure izenagatik...

    Nigar bat  
    Epelduraz betea  
Izen gogoratuen nigarra!

Bizitzaren gutizia borobilduan:  
Hats eta izerdi  
Heltzen zaizkidan eleen murmurika  
Urrunean ageri diren begi bustiak  
Bizitzaren gutizia borobildua!

    Nonbaiteko  
    Elearen hitzak  
Soaren dirdirak  
    Musuaren beroak  
Soinaren mugimenduak  
Itsasoarekin  
haizearekin...  
    Bizitzaren gutizia borobilduan  
    Igurikatzen ditut  
    Zure izenaren harainditik...  
  
    Zure izenaren honaindian  
    Nigar bat ixuri nuelakotz,  
    gutizia berrien nigarra!

Tankera hartu diozue noski, poetak bihotzetik egiten duela negar, hor hartzen baitu min. Oinazea ez da beti malkotan neurtzen, beraz, baina onartuko didazue noski bihotzaren malkoa ez dela posible lehenago malko fisiko bat ez baldin badago; alegia, analogiaz baliatzen dela sortzailea. Bihotzak begiaren ordezkoa egiten du askotan, baina begiek bideratzen dute sentimendua, ikusiz edo ikusia izanez, horregatik titulatzeko da poesia liburu eder bat *Biotz-begietan*. «Ene bihotza!» esaten diogu maite dugunari, baina «inoren begikoa» izatea ez da maitatua izatea? Lope de Vegak bildu zuen koplak hartan, «zure begi ederrok / ene laztana / katiburik naukate / libre nintzana» irakurtzen ahal dugu. Ez al da honen aldaera bat Laboak kantatzen duen Manex Pagolaren letra hura? Maitearen begiak oso gai errepikatua dugu lirika guztietan, liluratzeko baitira begiak, baita min emateko ere, edo liluratzeko malerusteko... «Berritzen ar'iz, Xuria / Nitán, egun guzietan, / Noizten begietan / Egin erautan zauria...», kexatzen zen Oihenarte. Begiak edertasunaren graduak dira, eta edozein izan liteke kalitatea: handiak izatea, txikiak izatea, beltzak izatea, argiak izatea, alaiak izatea, tristeak izatea... Ez al zuen jabearen begiak gizentzen behia? Eta alderaketaren zaborra barka diezadazuen, oroitaraziko dizuet maitemindua beti «itsuturik» dagoela, alegia, ez duela besteek bezala ikusten. Edo ez duela ikusi beharrik, «lanbroak izkutatzen dizkionean» maite ditu poetak gure bazterrak. Errealitatearen arbolak, izan ere, bai baititu sustrairen batzuk geure barnean.

izarrak itzaltzeraino  
dira argiak  
maitea  
zure begiak  
zure begiak  
maitea  
izarrak itzaltzeraino  
dira argiak

Poeta bera itsutzeraino dira maitearen begiak eder. Baina zotín liriko bat espero genuelarik, hona hemen poetak proposatzen digun errematea:

lastima! apoak joan beharrak

Berariaz eginiko itsuskeria da hau, umore beltzeko tanta bat. Halako ugari ageri dira J.A. Artzeren lehen aroan, onustea eta zurrunkeria kolpatzeko probokazioak diren lizun-zikin eginiko poemekin batera, egituraz oso sotilak diren zenbait testu laburretan isuritako lirikotasunarekin kontraste handia egiten dutenak. Horixe zekarren Artzek bere lehen liburuan, baina ez gintuen horrengatik hainbeste harrotu euskaldunok —literaturzaleok zein euskaltzaleok— *Isturitzetik Tolosan barru* hark. Estreinakoz, liburua objektu artistiko bezala ageri zitzaigun, alor anitzeko lanketa batean. Abangoardia literaturan sartua genuen plastikaren eta ozentasunaren eskutik; liburua ikusi eta entzuteko eszenario multiplea da, kaligramak eta hotsezko eskulturak eskaintzen zaizkio irakurle aktibo bati. Berbak ontzi ere badirela erakusten digu Artzek, barruan sartuta arkitektura miresten ari garela poetak jo egiten du; orduan durundio batek kordokatzen gaitu, hitzaren sus-traira garamatza, ia aro aurre-semantikora, hotsera, totelkatze primigeniora. Baina ez da ozentasun hutsa, marrumak kontzeptu bat ezkutatzen duela ohartzen gara, zentzumenak erreskatatu digulako. Ez irakurtzeko bakarrik, ikusteko ere balio dutela begiek oroitarazten digu poetak, belarriek entzuteko bezala. Artzeren ozendura-jokoek baliio sinbolikoa dute, fonosinbolismoa dira.

Begia eta begirada oso elementu inportanteak dira zenbait poetaren obran. Otamendirenean aldian behin indar bereziz ageri zaigu, Lekuonarenean maizago, eta ia aro guztietan, balio desberdinez. *Ilargiaren eskolan* liburuan lehenengoz aztertu zen gurean errealitatea hausnarketa estetiko gisa. Hartan kontenplazioak ez zeraman hasperenera, zehaztasunera baizik, Lekuonaren esateko dotoreziak aragotu baino egiten ez duen sentsualismoan hala ere:

ILE-ADATS 2 (Zatia)

Hor dugu munduaren kolorea;  
hor genbilzke ezpata xumeen aurrean uzkur;  
hor egin diezaiokegu besteren bihotzari

begi itsuzko soa;  
hor, hain zuzen, lasto zerratuen plegu artetik.

Gure oroimen mitikoan introspektzio baten antza duen antropologia poetiko bat egin zuen poeta honek *Mi-modramak eta ikonoak* liburuan, zientifismoak eragozten ez dion telurikotasunez. «Oihaneko drama» poeman molde ezin ederragoan deskribatzen digu amoranteen enkontrua, gure arbasoen aurreneko pasiozko sukarra:

Biz-bat zegiten irripar konzentrikoa  
eta irensten begiraden ogi berria

Begiaren balioaren eboluzioan ziklo osoak ikus genitzake Artzeren poemagintzan, elementu horretan oinarrituta osatuko genukeela, nago ni, Hartzabalgandik Hartzutenganaino datorren haria. Entzun:

Itsasoan sakonago  
eta urdina ilhunago.

Itsasoaren sakona  
barrentzerik  
ez dut ukan  
zu agertu aurretik,  
zure begiak eneetan  
pausatu dituzuino.

Ortziaren barrena  
sakontzerik  
ezin ukan dut  
zure begiak eneetan  
pausatu aurretik,  
zure begietan eneak  
murgildu ditudaino.

Ortzian barrenago  
eta urdina argiago.

*Ortzia lorez, lurra izarrez* liburu mardularekin Artzek giltzerdi egin zuen bere poesigintzan. Alienazioaren denuntziak haratago jo nahi du, moral askatzaile bat proposatzen du nitasun espiritual batetik kaos antolatu honi aurka egiteko baino gaintzeko. Gizarte materialista honetan ez etsitzeko ahalegin poetikoa da bere azken obra ere, salmodia kutsuko hegalditan antolatua. Poetak ez du galdu, haa-

tik, hitzaren alderdi guztiak ustiatzeko talentua, baina orain joko haiek zama semantiko handiagoa dute, eta esan liteke adieraren arabera antolatzen direla. Lehen zeukan espazioaren eta soinuaren ardura berberaz, orain Artze abiatua da formaren liberaziotik barnearen liberaziora.

«Zure begiak eneetan» edo «zure begietan eneak» dioenean transzendentzia bati ari zaio Artze, Espriuk —erreprotxe izpi batean, ene ustez— «betazalik gabeko begia» esaten zion berari... Artzek poema hau argitaratu zuen urte berean eman zuen ezagutzera Patziku Perurenak bere *Emily* liburua, eta hartan irudi berdina erabili zuen, bitxia da, «zureetan eneak», hitanoz baina:

Bi aldiz elurretan  
galdu nizkinan hireak  
Bi aldiz elurretan  
galdu, hireetan eneak

Bi apaburu eder  
ur garbitan erneak  
poza niri hireak

Bi sagar zuritan  
bazkatzen bareak  
zauria hiretzat eneak

Bi loreño horitan  
malkotan erleak  
eztia niretzat hireak

Bi leihoak itxirik  
barrenutsik etxeak  
tristura hiri eneak

Bi aldiz elurretan  
galdu nizkinan hireak  
Bi aldiz elurretan  
galdu, hireetan eneak.

Poemak, asmatu duzue, «Begiak» du izena. Begiak ez ezik belarriak, mihiak, sudurrak, eskuak har dezaketen oro egiten du bere eta barne Patziku Perurenak. Koloreak, hotsak, dastak, usainak, ukituak... hau da, naturaren ñabardura guztiak izendatzeko ahalmena daukan poeta dugu Perurena. Halako jakinduriaz non esan bailiteke gure ruralismo



guztiak deskubritu ezin izan zuen Naturaren kantore handi bat dugula bere obra. Ez ordea jarrera ideologiko edo aldeurreko hautu baten ondorioz; ez dugu haren lanetan deus aurkituko elaborazio hutsez egina, dena ematen zaigu lehenagoko hausnartze zuhur baten ostean —hitzaren adiera jatorrean, «auzmartze» baten ostean, berak esanen lukeen gisan—, Perurena zentzumenen poeta delako lehenik: berezko dohain garesti horixe dauka. Bere obra ugarian paisaia ageri zaigu protagonista nagusi, eta ondorioz poetaren bakardadea nabarmentzen da. Honek ez darama, hala ere, Orixeren naturarekiko urtze mistikora edo sentimentalkeriara; Perurenak panteismoz bizi du ingurua, telurikotasun hurbilean, hizkeraren narotasun liluragarrian.

### TESTAMENTUA III

Aurreneko ametsa itsu jaio zela egin  
Eta geroztik koloreak asmatuz bizi da:  
Silabak zuriak dira; beltzak aditzak.  
Urdinskak adjetiboak eta berdeak hitzak.

Haize finak baditu mila kolore  
Hamazazpi gorri eta bost more.

Isiltasuna zuria da; atsegina grisa, eta  
Tristura horia, sagar umoen gisan.  
Esperantza marroia, desioa berdaska  
Eta amodioa beltza, elurraren seaskan.

Gau suak urdinak dira, eta urak gorriak  
Oroimenaren erreka ilunean etorriak.

Euskara ere horizta da, zeruko lizardian  
Eta erdarak oro urdin, lurreko izardian.

Odola beltza dugu; poza hits zurizta  
Eta oinazea, betiko aitzaki gorrizta.  
Sinismena xuri beti, hots, beltz xikina.  
Politika berriz, gorotz ustel urdina.  
Gobernua betroia, eta iraultza nabarra.

Zuribeltza gure egia, eta bizitza negarra...  
Negar gorri lehorrak, berdez heza beharra.

Lirikotasunaren helburu nagusienetakoa hitza hizkeraren kutsaduratik libratzea dugu, poetak bere bihotza bi-

luzten duen bezalaxe soiltzen du testua, zinezkotasuna helburu. Apaingarria, ederra bada ere, askotan ez baita adierazkorra, aitzitik, kutsatzailea da. Estrofatik bertso librerera egin zuenean, Juan Mari Lekuonak mantendu egin zuen aldizkako errima bat, eragin handia zeukana hala erritmoan nola tonuan, sententzia biribiltzeko; baina ge-roago poema-multzoen errematerako kopletan eta zirkunstantziazko bertsoetan baino ez zuen erabili («Liburuen karraxa»). Puntua estrofa klasikoetara ekarrita herri poesiarren baliabideak eta haren zama ironikoa erabiltzeko duen trebetasuna nabarmendu zen; bestetik, bertso librearen puntuaz osoro biluzita bere poemak kontzeptualki guztiz zehatzak bilakatu ziren, eta hau salbuespena da lirikan. Uler bedi, ez naiz esaten ari Lekuonaren poemak maila denotatibo hutsekoak direnik, baizik eta konnotazio errazetatik eta esangura librengietako formulez goiti, poesiarren esentzialismo batean mugitzen dela sortzailea. Edergailua ez baita bakarrik forma mailan atzematen, apaingarri esaten dugun hori izan liteke mezuari desmezu egiten dion joko kontzeptuala ere. Eta soberakinak sobera dira beti.

gogoratuko duzu heriotzak zuen masaila horia  
gelako itzal ketsuan  
agurea eta amona aulki marroietan  
betebarrekin jarrita

korridorean zoru freskoa  
pauso ahul batzuen azpitik  
eta negar pixka bat isilik  
haurraren bideak leuntzen

bi koadrotan arbasoak  
denbora hatzetan balego bezala  
eta behakoak horman erailak  
edo ezpain gorrien puzturan

jendetza triste marmarka  
besarkadak eta intsentsua  
pertsonek joateaz solasa  
eta bihotzean gorde ezin lurpera zeramaten kaxa

eskaileretan beherantz baldar  
karreran

kalean  
airean

geldiro kanpaiak  
haurtzaroa iheska  
arropa beltz haiek  
eta atea itxi zuteneko danbada

Aldera ezazue heriotzaren ikuspegi hau Lizardiren «Biotzean min dut» harekin... Hemen dagoen negarra ez da poetarena, poetak malkoaren edertasun mindua atze-man nahi duelako, ez besterik, eta hori zaila da zinez hainbeste malko dituen arte batean, eta euskal poesian «anpuluak» ere badauzkagu, perla komiko horiek, niri behintzat modernista latinoamerikarren hiztegi anpulu-tsua —barka— gogorarazten didatenak.

Isiltasunetik oso hurbil egon ohi da lirikotasuna. Nahitarat aukeraturiko apaltasun horri esker eta sentimenduen esate xahu batean sortzen du Jose Luis Otamendik ere giro liriko berezi bat, inguru liluragarri bat, irudien zailan ez baina gardentasunean oinarrituta hunkitzeko ahalmen aparta duen sistema bat. Otamendi lañotasunaren poeta da, poesiari «poetikoa» den oro kenduta gelditzen den kristal garbi horixe eskaintzen digu, bere hitzak hunkidura aratzetarako gomita dira. Kanpai geldo horiek, agian, malkoak dira, baina gela ketsua zen, beharbada horrek eraginak dira. Nola nahi den dela, marrurik gabeko malkoa dugu, malko isila, baita besteenean ere, haurraren bideak errazteko... Elementu gutxi eta oso aukeraturikoren inpresionismo bat da Otamendiren lehen poesiarioa. Azkenaldiko poesigintzan berriz elementuz hornituago ematen digu bere lirika, eta joera barroko hau ez da metatze hutsa, sentimenduen konplexutasunak behartzen duen argitze saio bat baizik, menturaz debaldetako:

TALAI A GALDUAK - 2

Maite zaitudala badiot min eman nahi dizut  
Iritsi garela dirudi hilkintza amaituko da  
Arrotz egingo zaigu etxea eta maite dudana idatziko dut  
orduan

Kale honen beste aldean zer dago

Zuk eta nik ez dugu berdin sofritzen  
Nigandik urrun lehertu dira zure zainak zugandik urrun  
maiztu nire adiskidantzak  
Tartean basamortuak dagoz demokraziak dagoz  
herri gisuztatuak  
Ibaiko erdokatan itoek besoaz seinalatzen dizkidade  
Harrotutako hiri-sarrerak zubi altxagarriak  
Ez daukat armarik sehaskan ezkutatzeko  
Askatasun itsustu bat besterik ez bantustan atzendu bat  
besterik ez  
Zein banderaren pean bataiatuko dugu maitasuna  
[bigarrenez  
Zein uretan zein haitzarriren bila  
Proklama eder bat kopiatuko dut zure ireki guztietan  
irakurribako txatalak ageri dira  
Gagozanak gagoz  
Gurean ez da soldadu ezezagunik handizkako askatasunik  
Erraz dira desartikulatzen nire sentimenduk  
Min eman nahi dizut poema bateko trintxera estalgarritik  
Ezpaldutako arbolen etorbideak dauzkat, zeru bat  
Gauetz ureztatzen den futbol zelai bat bezalako eta  
uzteko karguak  
Gaizki egiten dituz zubiak gaizki idazten dituz gaizki  
maite zaitut bakealdi egoskabe honetan  
Zamaketariak okinak koldarrak gagoz  
Gagozanak  
Ibaia garbitzeko heldu den idortearen zain  
Ikasiko dut magalean zure soina nola batu, bizkarrera nola  
[ekarri  
Isiltzen banaiz iduriko du minik ez dela hemen  
Zorionaren piketeak jabetu direla lantoki guztiez  
muino guztiez kaleez  
Eta nik min eman nahi dizut maite zaitudanean

Nardagarria baina kongruentea esan dugu dela poeta-  
ren malkoa. Kongruente izan beharrak ordea nekatu egiten  
baitu batzuetan, honez gero gaixorik egonen zarete hain-  
beste bihotz minez eta espiritu malkoz. Hala bide zegoen  
Xabier Montoia ere, eta sinetsiez bazukeela horretara-  
rako arrazoirik, ezagutzen dudana irakurlerik asegitzena  
baita. Bost hizkuntzatan pairatu behar izan zituen negar  
guztiek eragindako nardak poema hau sorrarazi zion:

Negar egiten dut.  
Niregatik, zuengatik  
negarrez nago.

Madalena bezala nago negarrez.  
Jostailua izorratu diozuen haurra bezala  
negarrez nago.

Lotu duzuen zoroa bezala  
negarrez nago.

Suhiltzaileak deitzen dituzuenean piromanoa bezala  
negarrez nago.

Erremedio gabeko bale zauritua bezala  
negarrez nago.

Armiarmaren sare etsaietan harrapatu euliagatik  
negarrez nago.

Birikarik gabeko turuta bezala  
negarrez nago.

Saxofoi ilez butxatutako isurbidea bezala  
negarrez nago.

Ospitale bat bezala negarrez nago.

Pupitre bat bezala negarrez nago.

Barnebide luze bat bezala negarrez nago.

Puntagabeko urrats bat bezala negarrez nago.

Asmatiko bat bezala negarrez nago.

Txori murriztu bat bezala negarrez nago.

Negarrez nago Villon-ek negar egin zuen bezala  
patibuleko goren garaieratik mundua kontenplatuz.

Negarrez nago Van Gogh-ek negar egin zuen bezala  
bere odolezko belarria Gauguin-i bidalita.

Negarrez nago Alexandra Kollontay-k negar egin zuen  
[bezala

iraultzaren zakil mehatxugilea ikusiz.

Negarrez nago Mesrine-k negar egin zuen bezala  
balaz josita azaroko goiz hotz batean.

Negarrez nago Sid Vicious-ek negar egin zuen bezala  
bere zainak bilatzen, lainoan.

Negarrez nago Dylan Thomas bezala

Adamov bezala

Rimbaud bezala

Xabier Montoia bezala,  
neroni bezala, azken finean.

(...)

Niregatik negar egiten dut

—niregatik batipat—  
esku artetik ihes egiten utzi nuelako  
gozarazi ninduen txori bakarra.  
Negar egiten dut  
beti negar egiten denagatik, ezer egin ezinean.  
Negar egiten dut eta zuen aurrean erantzten naiz  
nire ahultasun eta nire ezintasuna erakutsiz.  
Negar egiten dut  
zuei bihotza eta ipurdia ukitzeko.  
Negar egiten dut zuen gupida eta haren losintxak  
[arrenka.  
Negar egiten dut  
atsegin dudalako.

Poetak katarsi politiko-moral bat egiten du gehiegi-keriaren bitartez. Desmitologizatze bat proposatzen du, eta barre ironiko bat egiten die ofizioko lagunei... Hauxe da Montoiaren poesia berezi egiten duen ezaugarrietako bat: probokaziozko jarrera, zenbaitetan desatsegina zai-  
gun eta beti ere poxelu egiten digun tonuz gora edo behe-  
ragoko agertze bat. Bere inkonformismoa, izan ere, berdin  
jazartzen zaio etika kristauari zein zintzotasun komunis-  
tari, azken finean ortodoxia modu desberdinei egiten die  
eraso, kontziente eta zuhurki.

Poeta beti izan da gauaren biztanle, izarrei beha egin  
izan du hasperen, edo ilunpean babestu ohi da itzalek  
ikara ez dezaten. Xabier Montoia bestelako poeta da, gaue-  
ko piztia den neurrian. Aurkintza urbano desolatuak era-  
kusten dizkigu, eta bakardadean kokatzen du bere burua.  
Maitasuna baino gorrotoa du balore, eta gorputzarekin  
batera transfiguritzen zaio espiritua, amoral bihurtzen da,  
indibidualtasuna aldarrikatzen du. Baina paradoxa bada  
ere, otsoen anaia egiten da. Pudore handi bat dago, ene  
aburuz, Montoiaren poesiaren funtsean, gainez egin ez  
diezaion gorde egiten duen lurreko kondentatuekiko elkar-  
tasun handi bat, arauak eder deklaratu duen ooren go-  
rrotoa delako berea.

Poema hori irakurrita, nor ausart liteke negar egiten,  
nor jar liteke malkoa idazten? Gizaki bakarra dago mun-  
duan hori irakurrita malkoa errebindika dezakeena: beste

poeta bat. Badakit Rikardo Arregik ezagutzen zuela Montoiaren lana, eta ez bera bezala gasteiztarra delako, baizik eta hura bezala irakurle handia delako. Arregi oso kontzientea da malkoa, alegia, lirika, oso landua dagoela, gai eternalak —heriotzak, maitasunak, maitasun ezak...— eragindako komunleku handi bat besterik ez dela. «Ezer berririk ez dago» esaten digu poema batean, eta hala ere ez da isiltzen, jarraitu egiten du «baina kristalaren bestaldean ikusiriko itsaso eta zerua / ez dira engoitik berdinak» esateko. Oreka ezin zailago horretan moldatzen du Arregik bere poesigintza: kultura erreferentziaz baina ez akademiko, inguruaz arduratuagatik kosmopolita, ondare unibertsaleko mitoak eta pertsonaiak bertakotasun batera ekarri-rik. Inon diren edertasunen miresle, «baina» hark bideratzen du idaztera, badakielako «hiri berrien promesa» ez dela kimera bat, beharrezko utopia baizik. Horrek ematen dio oroitzapena etorkizunetik datorrela baieztatzeko kurraia. Horregatik gainditzen du kultismoa, horregatik ez da apaingarri hutsa ageri duen dotorezia. Bere aipu ugariak ez dira sortzaile handiek daukaten elementu arrotzen asimilatzeko ahalmena besterik, Parthenon beldurgarria Altubeko lainoak biltzen du, Sarajevoko muinoek inguratzen dute bere Gasteiz, Ponpeian amaitzen du Zapateria kaletik barrena... Hori, besteak beste, zeharbidez eta berak duen manera finean, gure historiaren zekena kritikatzeko modua da.

#### LUR LOKARTUA I

Sankt Aleksander Nevski katedral ederrean  
ikono izarniatsu artean kuzkurturik  
dagoen atsoaren antzera, begi lauso,  
xuxurlatzen ditut elur santuen izenak,  
letania zaharrak, ene mila arrazoi,  
popeak ulertuko ez lituzkeen suak,  
gure hasperenak kandela ttipiak urtzen.

Liturgiaren kantu lasaiak bukatzean  
buruko zapia egokitzen du atsoak,  
eta nik, antzera, behar den hitza atontzen  
etxera aurretik ogia eta gurina  
erosteko indar doia emango diguna,

etxera aurretik barnea eta keinua  
maskaratzeko kemena emango diguna.

Brecht-ek antzerkirako gomendatzen zuen urruntasun efektuaren antzekoa lortzen du Arregik poemen geografia urrunean edo iraganean kokatzen duelarik. Irakurleak eszenario batean ikusten du poema, eta irakurtzen duena kronika objektibo bat dela uste du. Gero hasiko da kodeak interpretatzen, exotismoaren lilura pasatakoan. Eta orduan gure historia garaikideaz egingen du gogoeta, edo maitamadura dastatuko du. Bestek eta aspaldi «idatzi izan balitu bezala» idatzi izan ditu maiz bereak Arregik, maisua da teknika horretan.

Obra laburreko poeta dugun arren, Rikardo Arregik larderia handiz eraiki du kanon propio bat. Bere bigarren liburuan ni pertsonalak presentzia handia hartu du, eta gure egunerokoaren detaile arruntak txertatzen dizkio mundu mitikoari, indar handiko kontrastetan.

Rikardo Arregi Diaz de Herediak diosku mendia higitzen duen uraren antzera higitzen digula gorputza malko bakar batek. Desmasia bat irudituko zaizue, baina arrazoi du, bera poeta delako, eta poeten gorputzak bestelakoak direlako, minberak, izukor, edo nahiago baduzue, poeten malkoak bestelakoak direlako, urratzaile, erregarri, garratz.


Horixe baita poetaren lanbidea,  
ezer kobratu gabe negar egitea!

Eskerrik asko, poeta lagunok. Zuen malkoari esker daukagu gure maluren eta pozen berri; gure begian ikusten jakin izan duzuen zuen malkoari esker gure samin pertsonalak gozatu dizkiguzue; negar egiteko beldur ez zaretelako ikasi dugu kantatzen gure saudade kolektiboa, gure fado nazionala: «Nesta vida desvairada, ser feliz é coisa pouca.»<sup>1</sup>

---

1. XX. Mendeko Poesia Kaierak bildumaren bigarren emanaldia aurkezteko Koldo Izagirrek eman zuen hitzaldia (2000-11-24).





**JAKiN**

Tolosa hiribidea, 103-1.C  
20018 DONOSTIA  
Tel. 943.21.80.92  
Fax. 943.21.82.07  
[jakin@jalgi.com](mailto:jakin@jalgi.com)